

*Euskararen pizkundean  
lankide ditudan guztiei.*

Donostia, 1977/x/28

TXILLARDEGI

Erskaltzearen

**OINARRI  
BILA**

**morfosintasian  
eta  
fonologian**

DONOSTIA  
1977

Dep. Legal: S. S. 644/77  
I.S.B.N. 84-400-3785-6  
Imprime: ALVAREZ - LOREA, San Sebastián

# 1970-ko argitaraketaren Hitzaurrea

## Bi Hitz

Euskararen batasunerako bidean barrena abiatu-rik, gure euskalkiak funtsean bat egiten dituen agerre-razi eta ezagutarazi beharra dago; eta, era berean, eus- kalki guztiok erdaratik berezten dituen. Helburu bi- koitz horri buruz saiatu naiz neure liburu honetan, eta horretatik izenpurua: 'SUSTRAI BILA'.

Liburu hau ez da beste euskal gramatika bat. Berariaz puntu asko utzi dut alde batera. Sebero Altu- beren "Erderismos" deritzan liburu trinko eta bikainak ikutu dituenak, batez ere, ez ditut nik aztertu. Zertara- ko? Sebero Altube dugu euskal maisuetan handieneta- ko bat; eta haren lanetara jotzea dauka irakurleak.

Beste liburuetan xehetasunez azaldu ez diren puntu batzu argitzen saiatu naiz. Euskaltzale gazte su- tsuak izan ditut gogoan.

Aspaldidanik eta leku desberdinetan azaldu izan ditudan puntuak aurki ditzateke hemen nire ikasle izan- dakoek.

Gramatika-legeak hitz gutxitan eman ditut, leku- rik handiena gure herriko idazleei eta bertsolariei utziz. Haiengandik hainbat ikas daiteke maiz hauengandik.

Haseran adibide bakoitzari dagokion liburua eta orrialdea jartzeko asmoa nuen; baina alferrik nagitzen zuen liburuaren irakurrera, eta kendu egin ditut: idazlea edo bertsolaria besterik ezer ez dut aipatu, liburuaren xedeari buruz aski delakoan.

### **Hona hemen ene adibideen iturri-saila:**

#### *Bertsolari:*

Iturzaeta, Udarregi, Fernando Amezketarra, Txirrita, Boryel, Lexo, Alzoko Imaz, Pello Errota, Zabaleta biak, Taberna, Xalbador, Xenpelar, 'Auspoa' liburuen arabera. Zapirain errederiarraren esaerak, 'Eusko Folklore'tik hartu ditut, III.

#### *Idazle:*

- Auxular ('Gero').
- Etxepare ('Primitiae Linguae Vasconum').
- Tartas ('Onsa hiltzeko bidia').
- 'Ziberuko Gūthūna'.
- Etxahun (Lhande eta Haritschelharren izkribuetan).
- 'Textos arcaicos vascos' (Mitxelenak idatzia).
- Arrue ('Baserritarraren eskola').
- Mogel ('Peru abarka').
- Añibarro ('Eskuliburua').
- Gerriko ('Kristau dotriña').

- P. Barrutia ('Acto para la Nochebuena').
- Urruzuno ('Iru ziri' eta 'Urzale baten').
- Oihenarte ('Oihenarteren gaztaroa neurthizetan').
- Duhalde ('Meditazioniak').
- Haraneder ('Ebanjelioak' eta 'Philotea').
- Mendiburu ('Otoitz-gaiak').
- Paskual Iturriaga ('Jolasak').
- Mendigatxa (Azkueren lanetan eta 'Epistolario' delakoan).

Liburua gure herriarentzat lagungarri baledi, pozik ninteke. Esperantza horretan, agur t'erdia.

*Egileak, 1970*

# “OINARRI BILA”- RENTZAKO HITZAURRE BERRIA

Bi hitz bakarrik egindako aldakuntzez.

Lehenengo bost kapituluetan, etsenpluak osatu dira, paradigma batzu erantsi (*batzu*-ri buruz bereziki), *ene/neure* arazoa taxutu eta borobildu; eta, bere hartan, baina azken ohar batez, “*eritzi*” aditzari buruz Euskaltzaindian presentatu nuen txostena sartu dut osoki.

Seigarren kapituluak fonologi-arazo batzu argitzen ditu, beti ere Euskara Batua helburu, baina honetan guztiz neure buruz ari naizelarik; Fonologiako korapiloez Euskaltzaindiak oraingoz ez baitu ezer erabaki.

*Donostia, 1977ko Abuztuaren 10*

# 1. EUSKAL DEKLINABIDEAZ

## 1.1. IZEN ARRUNTEN DEKLINABIDEA.

Baionan 1964-ean eta Arantzazun 1968-an izan ditugun bilzarren ondotik, eta batasunerako bidean, deklinabide bakar bat nagusitu bide da gure artean izen arrunt edo komunei dagokienez; eta hau da:

### Bokalez bukatuak.

mendi -	mendi - A	mendi - AK
mendi - K	mendi - AK	mendi - EK
mendi - rl	mendi - ARI	mendi - EI
mendi - rEN	mendi - AREN	mendi - EN
mendi - rEKIN	mendi - AREKIN	mendi - EKIN
mendi - rENTZAT	mendi - ARENTZAT	mendi - ENTZAT
mendi - Z	mendi - AZ	mendi - EZ

mendi - TAN	mendi - AN	mendi - ETAN
mendi - TAKO	mendi - KO	mendi - ETAKO
mendi - TARA	mendi - RA	mendi - ETARA
mendi - TATIK	mendi - TIK	mendi - ETATIK

mendi - rIK  
mendi - TZAT

*(indef.)*  
(zenbat,  
hainbeste,  
bost)

*(sing.)*  
(dakigun)

*(pl.)*  
(aipatu  
ditugun)



## Kontsonantez bukatuak.

haran -	haran - A	haran - AK
haran - eK	haran - AK	haran - EK
haran - I	haran - ARI	haran - EI
haran - EN	haran - AREN	haran - EN
haran - EKIN	haran - AREKIN	haran - EKIN
haran - ENTZAT	haran - ARENTZAT	haran - ENTZAT
haran - eZ	haran - AZ	haran - EZ

haran - eTAN	haran - eAN	haran - ETAN
haran - eTAKO	haran - eKO	haran - ETAKO
haran - eTARA	haran - eRA	haran - ETARA
haran - eTATIK	haran - eTIK	haran - ETATIK

haran - IK  
haran - TZAT

*(indef.)*

*(sing.)*

*(pl.)*

Loturen legeak hauk dira, hortaz:

### **Mugagabea** (indef.):

- 1 bokale + kontsonante = lotura  $\Phi$   
(mendi + Z = mendiz)
- 2 kontsonante + bokale = lotura  $\Phi$   
(haran + I = harani)
- 3 bokale + bokale = lotura R  
(mendi + I = mendiri)
- 4 kontsonante + kontsonante = lotura E  
(haran + TAN = harane-  
tan)

*Oharra:* prolatiboan, "tzat" atzizkia BETI loturarik gabe.

### Singularrean:

1 bokalez amaitzen diren hitzetan = lotura  $\emptyset$  .

2 kontsonantez amaitzen diren hitzetan, eta *lekutasunari* dagozkion kasuetan, lotura E: (haran + ko = haraneko). Beste kasuetan: lotura  $\emptyset$  .

### Pluralean:

Loturarik ez behin ere: bere osoan erasten zaio atzizkia hitzari.

Beraz: E + E = EE (larreetan, etxeetako).

### Oharra:

Zenbait gramatikalariri gaitzi bazitzaion ere, "inesivo, inesif" delakoan ("non?" galderari erantzuten dion kasuan), eta zergatik ez dakidala, loturazko E agertzen da kontsonantezko hitzetan, eta ez besteetan. Gauza bera "nongo", "nora" eta "nondik" galderei erantzuten dieten kasoetan:

bihotz - E - an (ez "bihotzan")

bihotz - E - ko (ez "bihotzko")

bihotz - E - ra (ez "bihotzra")

bihotz - E - tik (ez "bihotztik").

*Diptongoz* bukatzen diren hitzei buruz, arazoa ez dago garbi, euskalkien artean diferentziak daudelako. Azkuek berak ez daki zer gomendatu; eta bere "Morfoloía Vasca"n erregela bat eman ondoren ("La segunda vocal de los diptongos AI, EI, OI, EU, se considera, por lo general, como consonante para los efectos de la epéntesis vocálica", 294 gn. orr.), haren izkribuetan eta "Morfoloía"n bertan, erregela hori errespetatzen ez duten etsenpluak irakur daitezke.

Hau dela-ta, Mitxelenaren iritziari jarraituz, hau proposa dai-  
teke deklinabide-eredutzat:

-AI, -EI, -OI: *bokalez* bukatzen diren izenen arabera deklina.

-AU: *kontsonantez* bukatzen diren izenen arabera deklina.

Adibidez:

'mendi' bezala,

ZELAI... zelaiKO, zelaiTIK, zelaiAN,...

HODEI... hodeiKO, hodeiTIK, hodeiAN,...

KANTOI... kantoiko, kantoitIK, kantoian,...

baina 'haran' bezala,

GAU... gauEKO, gauETIK, gauEAN,...

GARAU... garauEKO, garauETIK, garauEAN,...

\* \* \*

## 1.2. "A" BATEZ BUKATZEN DIRENEN DEKLI- NABIDEA

Deklinabidea begiratu hutsaz, gauza ageria da bi bokaleen arteko elkarketa dela-ta, -A eta -E batez bukatzen diren hitzetan ibili behar dela kontuz.

-A batez bukatzen diren hitzak, batez ere, huts askoren itur-  
buru dira; gaurko euskaldunek ez baitakite askotan non bukatzen  
den hitza, eta artikulua non hasten. Doinu-ezagugarriak ezabatu  
eta galdu ala, izkribuen egokitasuna ere gain-behera doa, gipuz-  
koar idazleen artean batez ere.

Huts-iturri hau ez da gaurkoa. Aspaldidanik Aizkibelek, esate  
baterako, izen guztiei -A erasteari iritzi zion bidezkoena; eta haren  
hiztegian zein izen amaitzen den -A batez, eta zein bestela, jakin  
nahi duenak, beste iturritara jo behar du argi beharrez.

Herri-xehearen ohiturak ere bide beretik jotzen du: gipuzkoar bati "bochorno, temps lourd" nola esaten den galdetuz gero, gehienetan 'sargoria' entzungo da; eta galdetzaileak 'sargori' soilki dela errepikatuz gero, erantzulea haserretu ere egingo zaio apika, edo-ta euskaraz ongi ez dakien batekin mintzo dela sinistuko.

Izen arrunten -A guztiak erantsitako artikulutzat hartzea, ordea, sasi-razionalizazio den aldetik (funtsean, hizkuntza-estrukturen aldakuntza baita) erdalkeria da, eta euskal gunaren galtzearen neurri. Eta fenomeno hau Gipuzkoan oso aurreratua izatea ez da harrigarri: gipuzkera baita, hizkera-alderdi askotatik, euskalkirik ahulena. Gipuzkoar irakurleek aisago barkatuko naute, nik uste, ni neu donostiarra naizela aitortu ondoren...

Hau dela-ta, beharrezko iruditzen zait -A-z bukatzen diren izenen deklinabidea osorik ematea.

Berezitasunak eta ohiko hutsak nabarmen-erazteko, bi hitz antzeko deklinatuko ditugu: bata -A berezkoa duena (ATORRA), bestea -A gabea (MALKOR); biak elkarren ondoan paratuaz.

#### MUGAGABE EDO INDEFINIDO

atorra	malkor
atorrak	malkorrek
atorrari	malkorri
atorraren	malkorren
atorrarekin	malkorrekin
atorrarentzat	malkorrentzat
atorraz	malkorrez
atorratan	malkorretan
atorratako	malkorretako
atorratara	malkorretara
atorratatik	malkorretatik
atorrarik	malkorrik
atorratzat	malkortzat

Neuk bezala igar dezake irakurleak huts asko egiten dela.

## MUGATU-BAKARRA EDO SINGULAR

atorra	malkorra
atorrak	malkorrek
atorrari	malkorrari
atorraren	malkorraren
atorrarekin	malkorrarekin
atorrarentzat	malkorrarentzat
atorraz	malkorraz
atorran	malkorrean
atorrako	malkorreko
atorrara	malkorrera
atorratik	malkorretik

Azkeneko lau kasoetan gertatzen dira hutsak.

## MUGATU-ANITZA EDO PLURAL

atorrak	malkorrek
atorrek	malkorrek
atorrei	malkorrei
atorren	malkorren
atorrekin	malkorrekin
atorrentzat	malkorrentzat
atorrez	malkorrez
atorretan	malkorretan
atorretako	malkorretako
atorretara	malkorretara
atorretatik	malkorretatik

Alegia: PLURALEAN BERDIN deklinatzen dira biak.

A berezkoa duten hitzetan, beraz, hau dugu:

### **Mugagabeen**

A + kontsonante = lotura  $\emptyset$  (eliza + TAN = elizatan).

A + bokale = lotura R (eliza + IK = elizarik).

### **Singularrean**

A + A = A (eliza + AN = elizan).

### **Pluralean**

A + A = A (eliza + AK = elizak).

A + E = E (eliza + ETAN = elizetan).

### **Gainerantzean**

Bokalez bukatutakoak bezalaxe.

\* \* \*

Zein dira, ordea, -A berezkoa edo organikoa duten hitzak? (alegia, artikulurik ere gabe, -A batez amaitzen diren izen arruntak).

Kasu askotan zail zaie euskaldunei (gipuzkoarrei batez ere) hau garbitzea; eta on izango da hitz-lerrokada xehe bat eta lege batzu ematea.

### 1.3. ZEIN HITZEK DU -A BEREZKO HORI?

Hiru azterpide emango ditugu, hirurak maiz baliagarri:

a) **Zalantzako hitza BAT numeralarekin elkartzuz aztertzea.**

Alegia:

“ama bat” esaten da, ez ‘am bat’; beraz, AMA da hitza.

“aita bat” esaten da, ez ‘ait bat’; beraz, AITA da hitza.

“alaba bat” esaten da, ez ‘alab bat’; beraz, ALABA da hitza.

Fonetika-bide honek ez du askotan ezer argitzen:

“bihotz bat” esaten da, ez ‘bihotza bat’.

Baina “baratza bat” ongi da.

“zubi bat” esaten da, ez ‘zubia bat’.

Baina “habia bat” esaten da.

b) **Zalantzan dagoen hitzari -RIK atzizkia erantsiz aztertzea.**

Alegia:

“amarik” (ez dago “amarik”) esaten da, ez ‘amik’; beraz, AMA.

“aitarik” esaten da, ez ‘aitik’; beraz, AITA.

“alabarik” esaten da, ez ‘alabik’; beraz, ALABA.

Gipuzkoa-Nafarroa-ko muga aldean bi azterpide hauek (eta bigarrenak bereziki) nahaspila franko eman diezaiokete halere bertakoari (Orixe eta Mendiburu idazleak berak lekuko).

#### d) **Zalantzan dagoen hitza bizkaieraz aztertzea.**

-A berezkoa askoz hobeki gorde da bizkaieraz gipuzkeraz baino; eta bizkaitarrek argi egin diezagukete puntu honetan; baita artikulu hutsa erantsiaz, bizkaieraz  $a+A=EA$  ematen baitu; eta ez A.

Esate baterako:

“nire arnasea”, beraz... ARNASA (ez ‘arnas’)

“nire alabea”, beraz... ALABA (ez ‘alab’)

“nire alkandorea”, beraz... ALKANDORA (ez ‘alkandor’).

Zenbait kasutan, halaz ere, iraun egin dezakete zalantzek; eta, argibidez, -A duten ATZIZKIEN eta zalantzako HITZEN errokada bat emango dugu.

## **1.4. -A BEREZKOA DUTEN ATZIZKIAK.**

### **-ERA**

egoera, gertaera, mintzaira, etorrera, sarrera, eta abar.

### **-GOA**

bekaizkoa, etsaigoa, gaitzerizkoa, ahaikoa. Atzizki hau ekialdean erabiltzen da batez ere, mendebaldean -TASUN delakoa nagusitu baitzaio; etsaitasun, ahaidetasun, eta abar.

-A hori itsatsia dela garbi dago: ‘Ziberuko Gūthūna’ liburuak hau dio:

*—ez dit nahi ADIXKIDEGUARIK gure gloriaren etsaieki (S).*



Etxahunek hau dio:

—LAGUNGOARIK gabe diren malerusak (S).

Eta Axularrek behin eta berriz -A-kin idazten du. Esate baterako:

—*anhitz beltzuri eta BEKHAIZKOA izaiten dutela.* (L).

Mendiburuk berak 'etsaigoa' erabiltzen du.

## -KERIA

gaiztakeria bat, gaiztakeriarik ez

erokeria bat, erokeriarik ez

astakeria bat, astakeriarik ez.

Lhanderen hiztegian “-KERI” atzizkiaz hau esaten da: “variante de ‘-keria’”; eta Azkuek parean dakarzki biak hiztegian “-KERIA”ri halere zabalera handiagoa ezarriz.

Problemaren azterketak hau erakusten du: orain dela urte gutxi arte, “-KERIA” izan dela atzizki bakarra; eta, gaur berean ere, gipuzkeraz entzuten dela “-KERI” delakoa.

Gregorio Arrue ernaniarrak, halaz ere, hau idatzi zituen joan den mendean (G):

—*lagunaren ARGALKERIARIK badakigu, erregu zaiogun beragatik Jaungoikoari.*

—*munduaren LABAINKERIA guziak.*

—*demagun, bear etzan LABAINKERIARIK esan bazi-tzaion.*

Beste euskalkietan arazoak ez du zalantza-izpirik uzten:

—*JELOSKERIA batetarik hatsarria oro, dio Etxahun zuberotarrak (S).*

Eta Juan Mogel bizkaitarrak hau dio:

—*FIGURERIJA guztijak gura ditube* (B).

Eta bide beretik Axular nafarrak ere:

—*zer ERHOKERIA da bada hau?* (L).

### **-TZA; -KUNTZA atzizkiak.**

Zalantza handirik ez dago, nik uste; baina adibide batzu emango ditugu (G):

—*Adanen seme alaben JAIOTZAKO lenengo soinua* (G. Arrue).

—*lurreko BIZITZA laburra ematean* (G. Arrue).

—*betiko BIZITZAN sartu nai badezu* (G. Arrue).

Gauza bera Gerriko gipuzkoarrak (G):

—*eta Pilatosek Jesukristoren gurutzearen gañean ipiñi eragin zuen titulu bat, iru HIZKUNTZATAN eskribitua.*

Eta Gipuzkoako bertsolariak (G):

—*BIZITZA txarrak ekarriko du gero ondoren tristia* (Iturzaeta).

—*bigarren atean laugarren BIZITZAN an izango da nesk'ori* (Txirrita).

—*arrotasunak ez gaitu gero libratzen ERIYOTZATIK* (Lexo).

Eta Otaño erdi-bertsolari erdi-olerkariak ere (G):

—*URDITZA artatik itzuli.*

Bizkaian gauza bera da, eta Kortezubiko Aranatzek hau kon-  
tatzen dio Aita Barandiaran antropologilariari:

—*ERIJOTZIEK artu eban besoetan umie* (B).

Eta Haraneder lapurtarrak zalantzarik gabe deklinatzen ditu: akhabantza, laguntza, eta abar. Gauza bera Axularrek.

## 1.5. -A BEREZKOA DUTEN ZALANTZAZKO IZEN ARRUNTAK.

Mitxelenaren hiztegi edo hitz-zerrenda delakoan (Aran-tzazurako prestatu zuen bi mila hitzen lerrokada) mota honetako hitz mordo bat aurki daiteke. Frogakaririk gabe emango ditugu hemen maizenik erabiltzen direnak; eta, izkribuak lagun gero, irakurleari harrigarri gerta dakizkiokeenak.

**Hona hemen lerrokada bat:**

abarka	aharra	ahizpa
aingira	aingura	aintzira
aisia	aita	aitona
aizkora	alaba	alkandora
amona	antsia	arantza
arbola	ardura	area
arrautza	arroa	aska
askazia	atxakia	atorra
ausardia	aza	azienda
baba	balantza	balea
balentria	baratza	bazka
beila	birjiña	bizitza
borda	denbora	enara
erdara	erregela	erregina
erromeria	eskola	estalbia
euskara	ezkila	familia

feria	ferra	gartzela
gazteria	gerla	gona
grina	gutizia	habaila
habia	haga	hegoa
heriotza	herra	hisia
horma	imajina	itxura
justizia	kaiola	kalapita
kandela	kuia	labana
lotkia	malenkonioa	maratila
marra	nahaspila	neska
okela	ordena	orua
pertza	premia	presuna
saltsa	sardina	segurantzia
txabola	upela	zalantza
ziza	zuhurtzia	

Ondoren aipatuko ditudan -A berezkoak txit harrigarri gertatzen zaizkie gipuzkoarrei; eta beharrezko iruditu zait banan-banan neure iritzia izkriburen eta lekukotasunen bidez frogatzea. Bestela, arkaismokerian abiatu naizela pentsatuko luke zenbaitek.

### **ANAIA (ez 'anai')**

Euskal literatura GUZTIAN barrena "anaia" deklinatu da, ez 'anai' (edo "anaie" ere bai).

Irakur dezagun Mogelen idazkia (B):

*—mutil gaztia nintzarian ikasi neban arotzia, neure ANAIJA nagusijagoak etxaguntza au eruango ebalako usteaz. Ill jatan ANAIJA A; ta gurasuak itxi nenduben euren oinordekotzat ta etxajaube.*

Euskal Herriko beste muturrean hau dio Etxahunek (S):

*—ANAIE batek betzeiztan bi lekhü ordeñüz ützi aurhidek zeiztaden hurak fraudaz ebatsi.*

Eta Gipuzkoako Gerrikok (G):

—*Dinaren ANAIA osoak ziran Simeon eta Levi armaturik,  
bengantza artzera joan ziran.*

Eta Nafarroako Axularrek (L):

—*igorri zerautzan bere ANAIA hari aitzinetik presentak.*

Baina euskaldun herriak ere 'anaia' dio, eta ez 'anai'; baita Gipuzkoan bertan ere. Gogora ditzagun bertsolari batzuen esanak:

—*alkar peleetzera  
ainbeste ANAIA,  
amaika ta erditako  
Donostiko plaiâ (Juan Zabaleta) (G).*

—*Zeberio ta Etxarri, eta  
Reparazen almenak,  
iru ANAIA oiek dirade  
etxe au egin dutenak (Iturzaeta) (G).*

—*Mendaron fama aundiya duten  
beste ANAIA birekin (Lexo) (G).*

—*eta ANAIA gazteena asten da  
abe-mariak errezatzen (Udarregi) (G).*

—*ariyen markak iya jo ditu  
gure ANAIA zarrenak (Lujanbio Nikolas) (G).*

—*Gipuzkoatik Arjentinara  
gure ANAIA gaztiak  
berak jarrita bertso ederrak  
kartan bialdu zizkiak (Lujanbio Anjel) (G).*

Barandiaranen lekukotasunak erakusten duenez, Ataunen 'anaia' esaten da (G):

—*ANAIE zârrenâri astoa lapurtu zioen*

—*gero ANAIE gaztêna jûn ementzan morroi*

Eta 'anaia' ere Igorren, Bizkaian (B):

—*etze orretan ANAIJE bi eta iru arreba... anaje... beste anaijeak... anejari... anajiek erantzun eutzon.*

Mendigatxa erronkariak ANAXE erabiltzen zuen.

Eta Beobide azpeitiarrak hau dakar:

—*ordenako ANAIATXO batek (G).*

## ANIMALIA

Gerrikok, Mendiburuk, Axularrek, Mogelek, eta bestek 'animalia' deklinatzen dute beti.

Bestetan 'alimale' irakur daiteke.

## ARNASA

Euskal aldizkari bati 'arnas' izena eman zaionean, zerbait esan behar dela deritzat.

Bizkaieraz ez dago dudarik, gorago esan dudan bezala; 'arnasea' esaten baita. Ikus Mogel (B):

—*ez da bere ARNASARIK bere ona elduten*

—*ARNASIA bere zorko dozu.*

Baina Gerriko gipuzkoarrak ere hau idatzi du (G):

—*azkeneko ASNASEA gurutze santuan eman arteraño.*

## AXOLA

Mitxelenaren hiztegi laburrean hala dator; eta gehienetan 'axola' (= 'ajola') dela garbi dago.

Harrigarri da, halere, xubereraz gutxienez -A berezkoa ez izatea:

—zer AXOL dūgū nulanahi izanik mündū huntan? —dio  
Ziberuko Gūthūnak (S).

Erronkarin ere AXOL zen hitza. Nahiz “axolagabe” Erronkari-  
ko hitza izan.

## BURDINA

Garibaik dakarren atsotitza dugu argigarriena:

—*‘Baliz’ko oleak BURDINARIK emon ez daroa.*

Mogelek berdin (B):

*onelan garbituten da BURDINIA*

eta berdin ere Haraneder lapurtarrak (L):

—*BURDINAZKO xiri mehar batzu.*

Gipuzkoan ‘burni’ entzuten bada ere, Bizkaian ‘burdiña’ jaso  
du Barandiaranek (B):

—egidazu BURDINA zabal bat... BURDINA au... BURDI-  
NA goriagaz (Natxituako bati entzunak).

## EGIA

‘Egia’, eta ez ‘egi’ (‘HEGI’ beste gauza bat da, hain  
zuzen).

Ez da egia gaur ‘egi’ erabiltzen denik, eta ez area-  
go betidanik hala izan denik.

Gogora ditzagun aurrenik literaturako etsenplu  
batzuk:

—*misterio eta EGIA gehienak... EGIA hori ez dirogülakoz  
enthelega... EGIA hori beno argiagorik ezta Ebanje-  
liuan... errelijioneko EGIA gehienek ez jakitia* (Ziberuko  
Gūthūna) (S).

—erraz adi zentzakeen EGIA au (G. Arrue).

—beste EGIA askorekin batera (G. Arrue).

—iduki bada, arren, gogoan EGIA andi au (G. Arrue).

Gerriko gipuzkoarrak 'egia' erabiltzen du beti.

Entzun orain Mogel bizkaitarra (B):

—ze EGIJA ederrak!

Areago Iparraldeko idazleek: Axular, Leizarraga, eta abar.

Baina Gipuzkoako bertsolarien lekukotasunak 'egia' agerrazten du (G):

—egun oietan aditu degu  
bada majiña bat EGIA (dio Iturzaeta jatorrak).

—alaxen ere somauko nuke  
aldi bat EGIYA (Iturzaeta).

—fedeko EGIA bat  
kantuko moduan:  
zer pena pasa zuen  
Jesussek munduan (Xenpelar).

Eta Erronkariko errefrauak (R):

—gezurtiari ezau xinestan EGIARIK.

## ELIZA

Hitz hau garbi dago. Baina etsenplu pare bat aipatuko dut, 'elizean', 'eliz bat', eta horrelakoak, falta ez direlako.

Mintza bekigu Etxahun aurrenik (S):

—Praube hura da izan  
zazpi erresumatan;  
bai eta ere mez-entzün bi mila ELIZATAN...



*Jinkua zelin bada  
zü ELIZAN bezala,*

Eta Mogel Bizkaitik (B):

*—Nos aztu jatzuz txikitan guraso edo Eskola Maisubak  
irakatsi eutsuzan eskaari ELESIAK artuta daukazanak?*

Eta Iturzaeta bertsolaria Azpeitia aldetik (G):

*—mixonistak sartu dirade  
goiko ELIZA berriyan.*

Bizkaitarrekin edo Gipuzkoako goierriarekin har-emanak dituenak, ez du hitz honi buruz zalantzarik izango.

## FARRA

Hitz honetaz zalantza handia bide dago; halere gauza garbia da 'farra' dela hitza, ez 'far' ('farra' = 'farre' = 'parre', hau bai).

'farragarri' / 'negargarri' bikotea begiratu besterik ez da behar, hitzak 'farra' (edo 'farre') eta 'negar' direla ohartzeko. Alegia, 'farra'k -A berezkoa duela, eta 'negar'ek ez duela.

Lekukotasunak ematea ez da zaila (G):

*—Ainbeste burla nik zuri egin, eta guziaz ere FARRA egi-  
ten didazu? (G. Arrue).*

*—etzaiozu eragin  
jendiai PARRARIK (dio Gaztelu bertsolariak).*

*—iñoiz FARRA egin (dio ere P. M. Otañok).*

## GAUZA

'gauz bat esango dizut' eta horrelakoak sarritan entzuten baitira Gipuzkoan, on da, nik uste, arazoa garbi uztea.

Bizkaieraz ez dago dudarik (B):

*—agindu guri al daigun edozeiñ GAUZATAN (Mogel).*

eta lapurteraz ere ez, beste muturrean (L):

*—behar dautazu GAUZA bat onhetsi (Otxalde).*

Gregorio Arrue ernaniarra izan daiteke Gipuzkoarren lekuko (G):

*—agertzen zuen GAUZA guzietan*

*—GAUZARIK premiazko eta bearrenetan ere*

*—GAUZA bitarako da gaubella*

*—baña nola deabruak GAUZARIK santuenetan ere eskua sartu nai duen.*

## **GILTZ(A)**

Honela eman du Mitxelenak hitz hau; alegia, -A berezkoa balitz bezala, erdizka bederen.

Uste dut nik GILTZ dela zabalena eta zaharrena.

Gipuzkoan 'giltza' aditzen da (G):

*—alkantzatu dezagun zeruko GILTZIA, dio Iturzaetak.*

Baina bai Azkuek bai Lhandek GILTZ dakarte hiztegian.

Mogel bizkaitarraren lekukotasuna bide beretik doa ere:

*—Ez daukat GILTZIK; etxeoandriak gorde daruaz (B).*

“Giltzatu”, ordea, “giltza”ren alde mintzo da.

## **JAKINDURIA (-DURIA)**

Bizkaitarren izkribuek ez dute zalantzarik uzten:

*—au da nire APAINDURIA guztija (J. A. Mogel)*

—*soñoko bitxidunak eta janz-barrijak eztakarrela JAKI-TURIJARIK* (J. A. Mogel).

Gipuzkoarrek berek egokiro erabili dute -DURIA atzizkia gaur arte (G):

—*onaren eta gaitzaren JAKINDURIAKO arbola zeritzana* (G. Arrue).

—*JAKINDURIAKO liburuan ipiñita dauzka* (G. Arrue).

—*JAKINDURIARIK preziatuena* (Gerriko)

eta Iturzaetak (G):

—*gizon ona ta leiala degu*  
*JAKINDURIYAZ betia.*

## KATE(A)

Mitxelenaren hitz-lerrokadan parentesiren artean doa A hori.

Antzina -A berezkoa zela garbi dago.

Baina baita orain dela gutxi arte ere Gipuzkoan bertan (G):

—*autsi eragin ziozkan pekatuaren KATEA gogorak* (G. Arrue)

—*agertu zitzaiozkan bereala borrero gogorak KATEAZ eta griluz beterik* (G. Arrue).

## KOPETA

Axularrek, Juan Bautista Agirrek, eta bestek KOPETA darabilkite. Eta bertsolariek gauza bera:

—*KOPETAKO barnizak bista darama* (Xenpelar) (G)

—*gorputza alper eta*  
*KOPETIA illun* (Ganduaga) (B)

—*zazpi azal badira*  
*zenbaiten KOPETAN* (Lexo) (G).

## KOROA

'katea'ren jatorri-mota berbera izaki, 'KOROA' da hitza, ez 'koro'.

Tartas zuberotarrak hau dio (S):

—*emanen KOROA bat anguriena bezain ederrik*

eta Gregorio Arrue gipuzkoarrak (G):

—*au maiteago det munduko KOROA guziak baño.*

Gipuzkoako herriak berak horrela erabiltzen du (G):

—*buruan berriz sartu zioten*  
*KOROA arantzazkoa,*  
*arekin ere eman ditzaion*  
*pena bat oñazezkoa* (Alzo'ko Imaz).

## LOTSA

Gipuzkoan 'lotsik ez al dezu?', eta horrelakoak, entzun daitezke.

Hitza halere 'LOTSA' izan da beti Euskal Herri guztian:

• —*ez deusut nik LOTSARIK galdu, ez galduko bere; baño*  
*bai egija garbijak esan* (Mogel) (B).

G. Arruek 'lotsa' dio (G):

—*begiratu bear dute zer LOTSATAKOAK diran berak eta*  
*zer jenderen artera joan litezkean.*

Udarregi jatorrak honela dio (G):

—*LOTSAZ edo bildurrez*  
*ez arren ukatu.*

eta Erronkariko ipuinak (R):

—*Otsailsko: ezdadak LOTSARIK ene axurientako.*

## MAKILA

Hau harrigarri gertatu ohi zaio askori; eta, hori dela bide, adibide gehiago ekarriko dut honera, hitza zalantzarik gabe 'makila' delako, eta ez inondik ere 'makil'.

Hona hemen Mogelen esakuntza bat (B):

—*eutsi bada MAKILLA bat larrapastauta jausi etzaitian, ta baserri txakurren batek usigi etzaitzan. MAKILLIAK bildurtuten ditu.*

Iparraldean 'makila' eta 'makhila' entzuten da.

Baina Gipuzkoan bertan hala da. Gogora G. Arrue (G):

—*eta irten zan, MAKILLA bat eta bost arri ezpada beste arma gabe.*

—*ni txakurren bat naizela uste al dek, MAKILLA orrekin jotzeko?*

—*beren ordeztartu zituen kutxan MAKILLA motz bat eta papera giltzaren bean.*

—*guraso eroai MAKILLA motz orrekin galantak eman begizkiela.*

eta Txirrita bertsoariak hau dio (G):

—*lizar-MAKILLA aundi batekin  
Erroman bertan izana.*

eta A. Zabalak:

—*artzen du MAKILLA bat (G).*

Jose Migel Barandiaranek Ataunen bildu dituen etsenpluek gauza bera erakusten digute (G):

—*bê nausîk MAKILLA'at ema'ementzion*

—*MAKILLA orrek*

—*etzôla geatu âzingo MAKILLAIAK.*

Gramatikarik jakin ez arren, bestalde, erraz somatzen da hori:

a) 'mutil' hitzetik, 'mutiltxo' ateratzen dugu; baina 'makila' hitzetik, 'makilatxo' atera dugu. (K. Beobide, 160, 174)

b) Era berean, 'soil' hitzetik, 'soildu' atera dugu; baina 'makila' hitzetik, 'makilatu' atera dugu.

## NESKATILA

—*NESKATILLIAK urten lei noranai bere ule trenza ederragaz; baña ez neskiak (Mogel).*

—*aserratu biar dabenian NESKATILLA batek (Mogel).*

J. M. Barandiaranek hau entzun zion Oñatiko Igartuari:

—*berakin joan NESKATILLIA eta eurak serbitzen jarri zan... an ebilleta ikusi eban NESKATILLA bat.*

Iparraldean gauza bera da; eta Etxahunen bertso hau aipatuko dugu:

—*Gaiherdi alteko zerena ümitik eritzen ümen-tü NESKATILA gaztiak.*

## NESKATXA

Baita Gipuzkoan ere hau da hitza, eta ez 'neskatx'.

Entzun Zabaleta bertsolaria (G):

—*lenguan entzun niyon  
nik NESKATXA bati.*

G. Arruerengandik hamaika adibide bil daiteke (G):

- NESKATXA garbiak lotsatu oi dira alako gauzak adituta*
- iñoiz batu oi zaizte NESKATXA lotsagabeak*
- ikusi nuen artemeñ NESKATXA bat ernegatzeko zorian*
- demagun NESKATXA batek ezkontzarik aitatzen bazaio, hitza ematerako artzen duela denbora*
- NESKATXA nasaitzar batzuei*
- NESKATXA tontatzar nasaiak*
- NESKATXA bat bere ezkongaiarekin hizketan ikustea*

## OLA

Hitz hau 'olha' zen Iparraldean, eta 'ola' besteetan. Ez da 'ohol' hitzarekin nahastu behar.

Bizkaitarrek ongi gorde dute hitza (B):

- ze on jatorko Bizkaijari OLA onetarik?* (Mogel)
- zer egingo OLARIK ezpalego?* (Mogel)
- gau eta egun dabill OLIA* (Mogel)
- OLAAN ikusi dituzun gauzaakaz* (Mogel).

## ORROA

Harritu egin nau puntu honetan Mitxelenaren hitz-lerrokadak, 'orro' baitakar, eta ez 'orroat'.

Azkueren hiztegian 'orro' dator; baina 'orroat' ere bai, Azkuek dionez Gipuzkoan eta Bizkaian erabilia. Lhandek, berriz, 'orrot'

dakar Zuberoan. Eta 'orroaka', 'orroatu', eta abar, 'orroat' hitzaren lekuko dira.

Iparraldean maiz entzun daiteke: 'orroaz', ez 'orroz'.

Gauza bera idarokitzen du J. M. Barandiaranek ezagutarazi digun 'Santa Jenobebaren bizitza' delakoak, Errenderiako Juan Kruz Zapirainek idatzia (G):

*—otso ta legoi, artza ta azeri  
danak zituben aldian;  
ayen ORRUA izugarriyak  
jarritzen zuten aidian.*

K. Izagirre-k ere *orrúa bat* dakar (Arantzazu).

## PIZTIA

Mogel bizkaitarrak 'piztija' dio beti (B):

*—PIZTIJA asko jakin ta malmutz onen ure-ebiltia  
—ondo dakije au PIZTIJA zital oneek dagozen geleetan lo  
egiten dabenak.*

Eta Gregorio Arrue gipuzkoarrak (G):

*—PIZTIA gaizto nazkagarriz betea.*

## SAKELA

Bere horretan dago baita Gipuzkoan ere. Gogora ditzagun bertsolari batzu:

*—SAKELATIK alargundu,  
begiratua illundu  
orra gustuak atzendu (Xenpelar)*

*—sardin erria taluarekin  
egun guztiko SAKELAN (Joxe Garmendia) (G)*



—*kastarik utzi gabe*

*SAKELARA bildu* (Alzo'ko Imaz) (G).

Eta J. M. Barandiaranek hau jartzen du andoaindar baten ahoan:

—*egia baldin bada, SAKELAN sar; gezurra bada, atera ez dedilla* (G).

## 1.6. MUGAGABE EDO INDETERMINATUA NOIZ ERABIL

Ohar bat aurretik.

Euskaraz, betidanik, bi taldetan banatu ditu euskaldunak, lumeroari dagokionez, gauzak eta ideiak: hiztunekiko ezagunak edo mugatuak batetik (ETXEA / ETXEAK); eta hiztunekiko ez-ezagun edo mugagabeak bestetik (ETXE). Horregatik gure deklinabidea: hirukoitza, eta ez bikoitza.

“ETXE” hitza aipatu dugunez gero, ekin diezaiogun berari. Lumeroari gagozkiola beti, espagnolak eta frantsesak bi talde berezten ditu:

Batean: CASA (la, una) = MAISON (la, une).

Bestean: CASAS (las, dos, tres, cien, pocas, muchas, cuántas?) = MAISONS (les, deux, trois, cent, peu de, beaucoup de, combien de?).

Horregatik, ERDARAZ ESKOLATUAK GARELAKO, euskaraz ere BIKETA HORRI EUSKAL BIKETA BAT AURKITU-NAHI IZATEA. (Euskaldunak ez baitaki artikulua erdaraz berex doala; eta euskaraz loturik). Alegia: erdal estrukturari, kopiakeria bat eginez, euskal sasi-estruktura bikoitz bat erantsi nahia. Kalko edo berdin-

keria hau, hain zuzen, hizkuntza-estruktura truke bat den aldetik, zuzenki doa euskal gunaren kontra eta gaitzetsi egin behar da.

Euskarazko lumero-estruktura HIRUKOITZA baita. Oraindik ere gure indeterminatua eta gure plurala berezten ez dakitenek, ez dute ez euskaldun intelektual izenik merezi, eta ez gutxiagorik ere. Zeren-eta gure hizkuntzaz mintzatzen eta idazten egokiro jabetu ez den euskalduna, besterik izan baitaiteke apika; baina ez euskaldun intelektuala eta Euskal Herriaren aintzindari kultura-gaietan. Hau esan beharrik ba ote dago oraindik?

Grezierak 'dual' zeritzan lumero berezia zuen bezala, geuk ere badugu 'mugagabea'; eta sasi-itzulpenetatik atera beharra dago.

\* \* \*

Noiz eta nola erabiltzen da 'mugagabe hau'?

a) Eman dezagun esakuntza hau:

—Pedroren ETXEA erre da.

Hitzegiten ari direnek ba dakite zein etxe den Pedroren hori. Beraz 'etxea', mugatu-bakarra, edo singularra.

Eman dezagun orain, ordea, beste hau:

—Pedroren ETXE bat erre da.

Hitzegiten ari direnek ez dakite oraingoan zein etxe den hori; eta mugagabea erabiltzen dute. Badakite *bat* erre dela; ez, ordea, zein. Horregatik ETXE erabili beharra, nahiz etxe bat izan. Eta agian galdetuko dute, argi bila: 'zein ETXE erre zaio?'

b) Eman dezagun orain esakuntza hau:

—Andoniri bi LIBURUAK galdu zaizkio.

Hitzegiten ari direnek ba dakite zein diren bi liburu horik; bestela hau galdetuko lukete: 'zein bi LIBURU?'

Baina eman dezagun orain beste hau:

—Andoniri bi LIBURU galdu zaizkio. (Bego horretan oraingoz 'zaizkio' hori).

Hitzegiten ari direnek hau konprenituko dute: *bi* direla galdu diren liburu horik, baina *zein* liburu ote daitezkeen ez dakitela.

Lehenengo esakuntza, beraz, 'mugatu-anitza' dugu (=plurala); eta bigarrenean, BI ALE IZANIK ERE, 'mugagabe' (=indeterminatu) bat.

d) Eman dezagun orain:

—Zenbat ADISKIDE ikusi duzu?

Ez dakigu ez nor diren adiskide horik, ez xehetasunik bat ere. 'Adiskide' hitzak, beraz, mugagabe izan behar du.

e) Eman dezagun:

—GUDARI asko hil zen urte hartan.

Berriz ere: 'asko' izanagatik ere, hizketan ari direnek ez daki-te xuxen *nor* diren gudari horik; hitza, hortaz, mugagabe gisa doa: 'gudari', ez 'gudariak'.

Mugagabe edo indeterminatuak, beraz, ez du ezer ikustekorik BAT/ASKO erdal zatiketarekin: erdal biketa hori erauzi egin behar dugu euskaraz. Mugagabe izatea ala ez izatea, beste honi datxeko: EZAGUNA/EZ-EZAGUNA izateari hain zuzen.

Arreta jarriz gero, bestalde, hau erreparatuko dugu: euskarazko indeterminatuari *artikulurik eza* dagokiola erdaraz.

Hona hemen adibide batzu:

1. Zer ORDU da? (mugagabe)
2. Zenbat LAGUN zegoen han? (mugagabe)
3. Nire ETXEAN izan zen (mugatu)
4. Nire ETXE batetan izan zen (mugagabe)

5. Zenbait MENDITARA igo naiz (mugagabe)
6. Bi HERRITAN ikusi naute (mugagabe)
7. Bi HERRIETAN ikusi naute (mugatu)
8. ZAKUR gutxi ageri zen (mugagabe)

\* \* \*

### 1.61. Indeterminatu edo mugagabea lau kasutan erabiltzen da euskaraz:

#### a) **Numeralekin:**

ETXE bat, bi ETXE (edo ETXE bi, mendebaldean), hiru ETXE, lau ETXE, hamar ETXE, mila ETXE.

Ohar bat honi buruz: etxe horik hiztunentzako ezagunak edo mugatuak direlarik, 'mugatu'ra pasatzen da: 'etxe bat', 'etxea' bihurtzen da; 'bi etxe', 'bi etxeak' bihurtzen da (=bi etxe horik); eta abar. Gorago ere azaldu dugu hau.

#### b) **'Indefinido, indéfini' deritzaten adjetiboekin:**

ETXE asko, ETXE anitz, ETXE gutxi, edozein ETXE, zenbait ETXE, aski ETXE, beste ETXE, honenbeste ETXE, horrenbeste ETXE, hainbeste ETXE, honenbat ETXE, horrenbat ETXE, hainbat ETXE, makina bat ETXE, eta abar. (Baina ETXEA franko, legetik at.)

#### d) **Galderazko adjetiboekin:**

Zer ORDU da?

Zein GIZON?

Zenbat ETXE?

e) **Itxura aldakor, nahasi edo abstrakto duten hitzetan:**  
(eta, eskuarki, erdaraz artikulurik ez dagoen esakuntzatan)

- EZKERRETARA jo genuen
- URETARA bota zuen bere burua
- EGUZKITAN berotu dira
- ez da BEKATUTAN egon behar
- utz nazazu BAKETAN
- MEZATAN egon ahal haiz?

Hona hemen sailka banaturik, etsenplu batzuk:

a) **Numeralekin:**

- hiru lan GAITZI bürüz abiatürük beitzen* (Etxahun) (S).
- praube hura da izan  
zazpi ERRESUMATAN;  
bai eta ere mež'entzün  
bi mila ELIZATAN* (Etxahun) (S).
- bost ETXETAKO primü nintzan sorthürük* (Etxahun) (S).
- ogei-ta-amairu:URTEREKIN eman zuen bizia* (G. Arrue) (G).
- lau GIZALDITAKO historia* (Arrue) (G).
- filosofo andi BATI galdetu zioten bein* (Arrue) (G).
- egozten diela pozoia gutxienez HIRURI* (Arrue) (G).
- negozio au gertatzen zaigu  
amaika zar da GAZTERI* (Saiburu) (G).
- bi gizon GAIZTOK makillatuta  
bera egondü zan larri* (Iturzaeta) (G).

- bi URTEREKIN txandan aldatu* (Iturzaeta) (G).
- despatxatzera nua  
istori abekin,  
irurogei-ta-amabi  
bertso BERRIREKIN* (Iturzaeta) (G).
- lengoan lagun batek  
agindu dit neri,  
bertsuak paratzeko  
dama gazte BIRI* (Lexo) (G).
- izketako bide au  
BOSTI irakurri* (Txirrita) (G).
- bi gizon PRESTUK mortu ontara gabaz ekarri ninduten* (Zapirain) (G).
- nik entzutiaz dud, izeiak eta letrak irureun URTEREN  
bizia deila* (Erronkariko Mendigatxa) (R).
- zeren bi pena SUERTE baitira: bata da 'paena inflictá',  
BERTZEK emaiten derakuna, BERTZETARIK heldu  
zaikuna, nola baita purgatorioetako pena, eritasun  
BATETAKOA... bertzea da 'paena assumpta', gerok  
geure borondatez hartzen duguna* (Axular) (L).

**b) Adjetibo mugagabekin:**

- ainbeste URTETAN garbi eta penitente bizi* (Arrue) (G).
- ainbeste NEKEREN artean asko aurrera litekeala bertu-  
tearen bidean* (Arrue) (G).
- errietako okasio galgarri ASKOTATIK eta alperkeriak oi  
dakartzien pekatu ez GUTXITATIK apartatuak daude* (Arrue) (G).
- zenbait ERRITAN eztago onelako batzarrik* (Arrue) (G).

- zenbait *ERRITAN* eraman ditu urak kale osoak (Arrue) (G).
- au edozein *MANDAMENTUTAN* gertatzen da (Arrue) (G).
- txaala esaten jako edozein *BEIKUMERI* (Mogel) (B).
- BESTEREN* bizkar ibillitzia  
ai zeñen gauza on dan (Txirrita) (G).
- itz *GUTXIREKIN* bukatzeko:  
*BESTEREN* andre zalia (Zapirain) (G).
- ez *BESTERENGATIKAN*  
murmuraten asi (Lexo) (G).
- neki*a pranko egiñdakuak  
*BESTERENTZAKO* lanian (Lexo) (G).
- gizon *bilgune* batian, batek ez badu *elerik* erran, *karentako* erraiten dá anitx *GISATRA* (Mendigatxa) (R).
- anitx *ERIRI* iltako ordiuan eta azmoaldiari (Mendigatxa) (R).
- ah! fede *APHURRETAKOA*, fidantzia *GUTITAKOA!* (Axular) (L).

d) **Galderazko izenordeekin:**

- adierazo* zien... zer *JATORRITATIK* jaioko zan (Arrue) (G).
- ZERTATIK* sortu dala deritzazu? (Arrue) (G).
- ZERTATIK* datorren askoren itxumena (Arrue) (G).
- jakin* gura neuke ze *ERRITAKUA* zarian Prantzijan (Mogel) (B).

- zein BIRETATIK onena zuen arturik abertentziya* (Iturzaeta) (G).
- zer KLASETAKOA zan beraren ordena* (Iturzaeta) (G).
- zenbat TOKITAN onlako gauzak* (Iturzaeta) (G).

e) **Zenbakaitzetan:**

- karobia SUTAN dagoela* (Arrue) (G).
- ala ere ZORRETAN oi da gelditu* (Arrue) (G).
- kristau onak eztira pagatzen DIRUTAN* (Lexo) (G).
- diabruak eztaude beñere PAKETAN* (Lexo) (G).
- berriz joateko oñen gañean ondo NEKETAN jarri zan* (Imaz) (G).
- guziok gaude eriotzaren ZORRETAN* (Imaz) (G).
- Jinko, majestate HANDITAKOA* (Ziberuko Gūthūna) (S).
- adin HANDITAKOAK ziren* (Haraneder) (L).
- lagun urkoren BATI zu MEZATARA joanaz kalte ANDI-REN bat etorri ez dakion* (Arrue) (G).
- jai-goiz batean MEZATARA zijoazen bi adiskideak* (Urruzuno) (G)
- MESATARA etxereanik urteten dogunean* (Añibarro) (B).
- MESATARAKO pausuen kontu ederra* (Añibarro) (B).



- eza bota bear aurra URTARA* (Arrue) (G).
- ezeak ematen dituzte lore eta frutuak; eta igarrak eztira ezpada SURTARAKO* (Arrue) (G).
- infernuko SURTARAKO* (Arrue) (G).
- URTATIK atera eragin zuen* (Gerriko) (G).
- SURTAN erreta kiskali nitun ez zidan iñork ikusi* (Iturzaeta) (G).
- arbola ezea... arbola igartua... SURTARAKO baizik izango eztira* (Gerriko) (G).
- alarguntzen diran emakumeak, SURTAN erre oi dituztenak* (Arrue) (G).
- URTAN itoak izan ziran* (Gerriko) (G).
- ume bîk URTA eroi emen zitzaioztan... URTAN eskubiko besoa... URTATI agudo atâ ementzian* (J. M. Barandiaranek Ataunen entzuna) (G).
- meikûk ur BEROTAN mañu 'at artzêko aindu ementzian* (Barandiaran) (G).
- URTAN garbitu* (Zapirain) (G).
- SURTAN jarri ta ezagutzen dek nolakua dan eltzea* (Xenpelar) (G).
- beti SURTAN erretzen egotea baño andiagoa* (Gerriko) (G).
- beatz punta bat URTAN bustirik* (Gerriko) (G).
- beatz bat bakarrik SURTAN erretzen edukitzea ezin sufritu degu* (Gerriko) (G).
- URTATIK atera* (Mendiburu) (AN).

## 1.62. 'BAT' MUGAGABE.

Euskalki guztietan, izenaren atzetik doa 'bat' numeralala. Beraz, 'bat' erasten zaizkio atzizkiak.

'BAT' numeralala izaki, *mugagabe* gisa deklinatu behar da (ikus HARAN-en deklinabidea, 1.1 puntuan):

haran-	bat-
haran-eK	bat-eK
haran-l	bat-l
haran-EN	bat-EN
haran-EKIN	bat-EKIN
haran-ENTZAT	bat-ENTZAT
haran-eZ	bat-eZ
haran-eTAN	bat-eTAN
haran-eTAKO	bat-eTAKO
haran-eTARA	bat-eTARA
haran-eTATIK	bat-eTATIK

Horrelaxe deklinatzen zen lehen; eta horrelaxe deklinatzen da oraindik ere lapurteraz, baxenabarreraz eta zubereraz. Hegoaldean, aldiz, erdal pentsakerak nahasirik, 'BAT' singularizat hartzen da zenbait kasutan; eta 'batean', 'bateko', 'batera', eta 'bate-tik' entzuten dira. Alegia: 'haranean', 'haraneko', 'haranera' eta 'haranetik' delakoen kideak.

Hona hemen adibide batzu:

—*erre behar bethi su gar eli BATETAN* (Zuberoko Güthüna) (S).

—*Jesüsen khorpitz saintia ezari zien hobe berri BATETAN* (Z. G.) (S).

—*huntarzünak beitütü harek heñ hun BATETAN ezarten* (Z. G.) (S).

- bizi nunbait hor bazter BATETAN* (Etxahun) (S).
- libera bat urrin gozozko ur BATETARIK* (Haraneder) (L).
- bertzerenaz izan nuzu amoros lekhu BATETAN* (Etxepare) (BN).
- ene librüto honek eta nik merexi dügüla sü handi BATE-TAN bizirik erra gitian* (Tartas) (S).
- profeta hark berak dio bertze lekhu BATETAN* (Tartas) (S).
- utzirik alde BATETARA zure merezimendu handiak* (Axular) (L).
- bekhatu bat egin zuenean, berehala bertze BATETAN behaztopatu eta erori baitzen* (Axular) (L).
- Indietara edo bertze lekhu hurrun BATETARA partitzen denean* (Axular) (L).
- urthe BATETAKO haurra zen Saul erregetu zenean* (Axular) (L).
- halako biserekin zubi BATETARIK iragaiten zarela* (Axular) (L).

### 1.63. BAT MUGATUA

Bi aletako multzo batetan, ordea, ale banako bi azpi-multzo definituz gero, bi azpi-multzo horik definitu edo mugaturik gelditzen dira; eta orduan hau esan daiteke:

BATA eta BESTEA.

Kasu honetan honela deklinatzen dira bi azpi-multzo mugatuok, guztiz *harana* eta *mendia*-ren hildoetatik:

## mugatua

bat- -A	eta	beste- -A
bat - AK	eta	beste - AK
bat - ARI	eta	beste - ARI
bat - AREN	eta	beste - AREN
bat - AREKIN	eta	beste - AREKIN
bat - ARENTZAT	eta	beste - ARENTZAT
bat - AZ	eta	beste - AZ
bat - eAN	eta	beste - AN
bat - eKO	eta	beste - KO
bat - eRA	eta	beste - RA
bat - eTIK	eta	beste - TIK

Ongi ageri denez, eta azkeneko lau kasuei dagokienez, Hegoaldeko euskalkietan paradigma batetik bestera igarotzen gara, BAT zenbait kasutan *mugagabe*, eta beste zenbaitetan *sin-gularra* balitz bezala, onartu ezinezko nahasketan.

Jakina: eskuarki *mugagabe* da BAT, eta *mugagabe* gisa behar da deklinatu.

### 1.64. GAINERAKO NUMERALAK

Gauza bat da BOST ETXE (ba dakigu bost direna, baina zein diren ez dakigu), eta beste bat da BOST ETXEAK (orain ba dakigu bost direna, eta zein diren ere bai).

Gauza bera gertatzen da BOST eta BOSTAK formen artean:

BOST (*mugagabe*)  $\neq$  BOST-AK (plurala).

Erlazio hau, jakina, BAT eta BATA-ren artean dagoenaren kidea da.

Deklina ditzagun biak elkarren parean:

bost -	bost - AK
bost - eK	bost - EK
bost - l	bost - El
bost - EN	bost - EN
bost - EKIN	bost - EKIN
bost - ENTZAT	bost - ENTZAT
bost - eZ	bost - EZ
bost - eTAN	bost - ETAN
bost - eTAKO	bost - ETAKO
bost - eTARA	bost - ETARA
bost - eTATIK	bost - ETATIK

Antzekoak dira oso, baina ez berdinak.

Gauza bertsua gertatzen da ZAZPI eta ZAZPI - AK elkarren parean deklinatuz:

zazpi -	zazpi - AK
zazpi - K	zazpi - EK
zazpi - rl	zazpi - El
zazpi - rEN	zazpi - EN
zazpi - rEKIN	zazpi - EKIN
zazpi - rENTZAT	zazpi - ENTZAT
zazpi - Z	zazpi - EZ
zazpi - TAN	zazpi - ETAN
zazpi - TAKO	zazpi - ETAKO
zazpi - TARA	zazpi - ETARA
zazpi - TATIK	zazpi - ETATIK

**1.65. GAINERAKO IZENLAGUN MUGAGABEAK** bide beretik deklinatzen dira. Hona hemen adibide gisa:

asko -	zenbait -
asko - K	zenbait - eK
asko - rl	zenbait - l

asko - rEN  
asko - rEKIN  
asko - rENTZAT  
asko - Z  
asko - TAN  
asko - TAKO  
asko - TARA  
asko - TATIK

zenbait - EN  
zenbait - EKIN  
zenbait - ENTZAT  
zenbait - eZ  
zenbait - eTAN  
zenbait - eTAKO  
zenbait - eTARA  
zenbait - eTATIK

zer -  
zer - K  
zer - I  
zer - EN  
zer - EKIN  
zer - ENTZAT  
zer - eZ  
(zer - TAZ)  
zer - TAN  
zer - TAKO  
zer - TARA  
zer - TATIK

nor -  
nor - K  
nor - I  
nor - EN  
nor - EKIN  
nor - ENTZAT  
  
nor - TAZ  
nor - ENGAN  
  
nor - ENGANA  
nor - ENGANDIK

Bukaerako *-r* hori ahula da; eta horretatik heldu da lotura batzu *r*-rik ez balego bezala gertatzea. Gogoan har: (B) atan, ak, atatik, eta abar.

## 1.66. BATZU: MUGAGABE ETA PLURAL

Funtsean *mugagabe* da BATZU, "zenbait" bezalaxe; eta horretatik bere jatorrizko deklinabidea:

(unos, quelques uns)

batzu -  
batzu - K

batzu - rI  
 batzu - rEN  
 batzu - rEKIN  
 batzu - rENTZAT  
 batzu - Z  
 batzu - TAN  
 batzu - TAKO  
 batzu - TARA  
 batzu - TATIK

“Batzu” horren multzoa bereziki mugatu ez denean, hauxe da deklinabidea.

Multzo bat, ordea, bi azpi-multzotan erdibitzen denean:

multzoa = *batzu - AK* + *beste-AK* orduan, *bat - A* eta *beste - A* deklinatzean bezalaxe paradigma bikoitz hau dugu:

(los unos, les uns)

(los otros, les autres)

batzu - AK	eta	beste - AK
batzu - EK	eta	beste - EK
batzu - EI	eta	beste - EI
batzu - EN	eta	beste - EN
batzu - EKIN	eta	beste - EKIN
batzu - ENTZAT	eta	beste - ENTZAT
batzu - EZ	eta	beste - EZ
batzu - ETAN	eta	beste - ETAN
batzu - ETAKO	eta	beste - ETAKO
batzu - ETARA	eta	beste - ETARA
batzu - ETATIK	eta	beste - ETATIK

“batzuek” eta “besteek” bi azpi-multzo horiek (guztiz “bata” eta “besteak” delakoen kide hertsia) elkarrekiko duten erlazioa garbi agertzen da Soroa-ren perpausa honetan:

–batzubekiñ... eta bestiekiñ...

Ageri denez, eta BAT numeralarekin bezalaxe, gero eta maizago erabiltzen dugu bigarren paradigma hau; nahiz *gehienetan*, BAT bezala, BATZU hori MUGAGABEA izan.

Ene ustez, eta mugatasuna bereziki agertzen ez delarik, MUGAGABE gisa behar litzateke deklinatu.

### 1.67. BESTE OHAR BATZU

DA eta ZEN aditzen aurretik, gipuzkeraren eraginez, artikulua erantsi ohi zaio adjetiboari. Iparraldean hobeki gorde izan da mugagabe hori:

–*bere poza adieraztea* **ERRAZ ezta** (Arrue) (G).

–*ERRAZAGO da... Jaungoikoaren aginduak gordetzen* (Arrue) (G).

–*ikusita ere* **GAITZ da** *sinisten* (Arrue) (G).

–*gurekin agintia*  
**ERRAZ da** *izaten* (Lexo) (G).

–*ume koskorak ama galtzean*  
*egun bat* **ZAIL du** *pasatzen* (Iturzaeta) (G).

–*ZAIL da* *dirua sartzen*  
*bolsan duroka* (Lujanbio) (G).

–*biziyo txarrak engañatzia*  
*animarentzat* **KALTE da** (Xenpelar) (G).

–*epel badator, SIÑALE da* *sua dagola* (Urruzuno) (G).

–*bithina, ahuntzumea, GAZTE deno, ON da* *jateko,*  
*SAMUR da, UXTER da, SASOAL da* (Axular) (L).

Oso jator esanak dira ere ondoko hauk:



- gaiñerakoan lotsa bear lirake neskatxak GIZASEMERI eskurik ematen* (Arrue) (G).
- edertasuna bera danaren jauregina ezin ar lezake jarlekurik mantxaren kutsurik DAUKANEK* (Arrue) (G).
- irinzaka aguanian OÑI ezin eraginda esango dok* (Mogel) (B).
- BESTEREN aotik egokiago sekulan ez tet aditu* (Udarregi) (G).
- bajin bat aldiz ondra EDERRIK zeuk eman eta jasua* (Iturzaeta) (G)
- bire GALANTIK pasatu zuen bere oñakin korrik* (Iturzaeta) (G).

Azkeneko bi adibide hauen kera hori oso bizirik dago Iparraldean.

## 1.7. ERREGE, FARAON, PAILASO

Norberaren erregea denean, Errege bihurtzen da, pertsona-izen alegia.

Honetan ere dudarik batere ez dago; eta gaurko idazleek lardaskatu dute euskal deklinabidea, erdaraz 'el rey, le roi' esaten baita; eta ez 'Rey, Roi', 'Joanes' edo 'Maria' erabiltzen diren bezala.

On izango da, nik uste, 'errege'ren deklinabidea osorik ematea:

errege -  
errege - K  
errege - rI

errege - rEN  
errege - rEKIN  
errege - Z  
errege - GAN  
errege - GANA  
errege - GANDIK

Hona hemen etsenplu batzu, Ekialdetik Mendebaldera:

- benedika itzazü gure Aita Saintia, gure Jaun Apezküpia, gure erretora, gure ERREGE* (Zuberoko Gühüna) (S).
- ERREGEREN prokuradorik egin batzarri ederra* (Etxahun) (S).
- egun batez txispa bat fan zitzazun ERREGERI eskiuara* (Mendigatxa) (R).
- ERREGEK hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela* (Axular) (L).
- ERREGE serbitzera naio det juan* (Iturzaeta) (G).
- Madrilla joan da ERREGE preso zuten artu* (Udarregi) (G).
- ERREGEGANDIK bi zaldun ziran kondiagana etorri* (Zapirain) (G).
- etzion inbidiarik ERREGERI ere* (Urruzuno) (G).
- eztauka ERREGEK ez bigunagorik ez obagorik* (Mogel) (B).
- ERREGEK orduan zabaldu eban... joan san ERREGE-GANA... erakutsi eusezan buruek ERREGERI... Ikusirik ERREGEK ez eukala miñik... ERREGE gaixo dago* (Ikus Barandiaranen ipuinak, III, 32, 33, t.a.) (B).

—*prestau egizue biotz biloiz gauza ez onetan zeuen ERREGERI dagokan ostatua* (Añibarro) (B).

eta euskaraz agertu den lehendabiziko liburua hitz hauetaz hasten da:

—*ERREGEREN advokatu bidezko eta nobleari... Bernard Etxeparekoak* (BN).

Era berean deklinatu izan da 'Faraon' hitza: 'faraonek', 'faraonen', eta abar. (Ikus Gerriko, esate baterako; eta Axular).

Barandiaran-en ipuin-bilduman ageri denez (ikus Orozko-ko Pedro M. Olarte-ren pasadizuak) deklinabide hori bizirik dago: errege, erregeren, erregegana...

Era berean, eta zenbait bertsolarirengan ageri denez, PAILASO hitza ere ERREGE BEZALA DEKLINATZEN DA. Ikus Erreteriko bertsolarien bilduman (Auspoa, 74-75): pailaso, pailasok, pailasoren.

## 1.72. "ETXE"

Etxe hori norberaren etxea denean, leku-izenen arabera deklinatzen da:

—*ez bortian ez ETXEN gal dezan ardirik* (Etxahun) (S).

—*arotzaren ETSEN sukaldarreko pala zurez* (Erronkariko atsotitz) (R).

—*jente guziua egoiten da ETSEN* (Mendigatxa) (R).

—*onki sinatruk balio du ETSEN eta karriketari ebiltako* (Mendigatxa) (R).

'Etxe' hitzaren berezketa hau bizirik dago Iparraldean.

### 1.73. 'ARIMA' HITZA BIZIGABEEN ARABERA DEKLINATZEN

'Euskaldun fededun' esaerak idaroki lezakeenaren kontra, eta sinistunen ustez arima hilezkor izanagatik ere, 'ARIMA' hitza (eta gauza bera 'izpiritu', 'gorputz' eta antzekoak) bizigabeen arabera deklinatzen da. Esate baterako:

- ez dute ornituko ANIMAKO jakinduriarik, ez dituzte aditu ESPIRITUKO gauzak* (Arrue) (G).
- ala sortuko du gure ANIMETAN benetako atsegiña* (Arrue) (G).
- artua duen ANIMAKO garbitasuna adierazotzeko* (Arrue) (G).
- ANIMAKO agortasuna* (Arrue) (G).
- kezkarik gabe garbi ipiñi bere ANIMAKO lana* (Imaz) (G).
- sabelak emoten deutsu ardura geijago ARIMAKO gauzak baño* (Mogel) (B).

Bide beretik Lexo bertsolaria:

- Gero ikusiko degu denak Josefaten beren ANIMETARA gorputzak juaten* (G)
- gure ANIMAKO etsaiek* (Gerriko) (G).
- kentzen du ANIMATIK* (Gerriko) (G).

## 1.74. 'EGUZKI' HITZA, ALDIZ, BIZIDUNEN ARABERA DEKLINATZEN

Alderantziz, eta jentilak aspaldidanik akabaturik eta ehorztirik egon arren, euskaldunek modu berezitara erabili bide dituzte 'EGUZKI' eta 'ILARGI' hitzak.

Hona hemen 'eguzki'ri buruzko adibide harrigarri batzu:

—*begira bada eguzkira. Ogeitabost milloi legua botatzen dituzte lurretik BEREGANA* (Arrue) (G).

—*orren antz gutxi bat EGUZKIAGAN daukagu* (Gerriko) (G).

—*EGUZKIAGANDI~~K~~ berotasunak prozeditzen duen bezela* (Gerriko) (G).

—*EGUZKIAGAN ipiñi digu gure Jaungoikoak misterio onen antz eder bat* (Gerriko) (G).

Beste hizkuntza zaharretan ere berdin gertatzen zen: indo-europeo zaharra, e. a. (Guiraud).

## 1.8. ADITZAREN OSAGARRIA MUGAGABE

Lafittek bere Gramatikan ongi esana duenez, aditzari dago-kion izen osagarria, *bereziki mugatua ez denean*, MUGAGABE gisa agertzen da euskaraz:

—NESKAME joan da

—APEZPIKU izendatu zuten

—ARTZAIN egon zen hamar urtez.

“Le nom attribut se met toujours au NOMINATIF INDEFINI, quand il est rattaché au sujet ou au complément par un verbe autre qu'*être* ou *avoir*, ou encore si le verbe est sous-entendu:

- aitzindari izendatu dute, on l'a nommé chef;
- oilo gosea kantari, la poule affamée (est) chanteuse''  
(73. orr.).

*Bertsolariek* bizi-bizirik dute hizkuntza-joera hau:

## GELDITU

- MORROI gelditu* (Txirrita) (G).

## BILDU

- naiz bide gaiztoz izan  
jardun DIRU biltzen* (Alzo) (G).  
(diruA biltzen besterik izango litzateke = denok dakigun  
diru HORI biltzen ari dela.)
- egun guziyen ORBEL biltzen* (Izagirre) (AN).

## ERAMAN

- SUI eraman* (Txirrita) (G).

## JOAN

- NESKAME joan* (Urruzuno) (G).

## MOZTU

- MANDO mozten* (Urruzuno) (G).

## HARTU

- MIÑ artzen degu* (Txirrita) (G).
- zorrotz artu ziyon KARGU* (Txirrita) (G).
- artu gendun PARTE* (P. Errota) (G).

- neri artzen KARGU* (Erauskin) (G).
- oinbestez KARGU artzia* (Erauskin) (G).
- KARGU artzekua* (Iturzaeta) (G).
- guziek ESENPLU hartzeko* (Bordel) (BN).

## JAN

- BAZKARI jaten ari ziral*a (Txirrita) (G).
- ARTALE jaten ai ote zian* (Errenteri) (G).

## ZURITU

- BURU zuritzen asiya* (Txirrita) (G).

## EDAN

- ARNO edaten ari ziren* (BN) (Bordel).

## IZAN

- oraindika MIN du* (Balendin) (G).
- ipurdiyan MIN du* (Lexo) (G).

## EMAN

- PARTE eman* (Txirrita)
- SU eman eta erre biar du* (P. Errota) (G).
- pertsu BERRI emaitera  
orai naiz abian* (Luzaide) (BN).
- bi eskuaidi TXISTU emanda* (Txirrita) (G).
- MUSU eman* (Zepai) (G).

—*orretzek ematen dit MIN* (Yantzi) (AN).

—*ganboarrok SU emaiten* (1448-ko kanta zaharrea) (B).

## HARRAPATU

—*bafore txikiyakin*

*ATUN arrapatzen* (Txanka) (G).

## BOTA

—*ai dituk IKATZ botatzen* (Motza) (G).

## KARRIATU

—*egunez LOI karriatzen* (Motza) (G).

## EKARRI

—*adunatarrak UR ekartzeko*

*zeuken propositu fiña* (Zulaika) (G).

—*ekharri zin ARTHO* (Etxahun) (S).

—*ekatzu ESKU* (Soroa) (G).

—*ARNO ekartzen duena* (Bordel) (BN).

## JO

—*LUR jotzen du askotan nekazariak* (Iturriaga) (G).

## KONDATU

—*ari da GEZUR kondatzen* (Mattin) (L).

—*DIRU kondatzen* (Xenpelar) (G).

(dirua kondatzen = denok dakigun diru-pilo HORI kondatzen.)



## ERREKISTATU

—*ETXE errekiatzen* (Axura) (G).

## ASTINDU

—*BELAR astintzen* (Iturzaeta) (G).

## SALDU

—*BARKILLO saltzen* (Balerdi) (G).

—*or nabil ESNE saltzen* (Urki) (G).

## JARRI

—*ESKANDALU jartzen* (Txapela) (G).

—*BERTSO jartzen asi nintzan* (Yantzi) (AN).

## BATU

—*AZUR batzen ekin zan* (Barandiaran) (B).

**1.81. BIHURTU** aditzak merezi luke aipamen berezia (=convertirse en).

Iparraldean *bilhakatu* erabiltzen dute (=devenir); eta frantsesez, bestalde, euskal joskera berbera dago:

*gizon bil(h)akatu da* = *il est devenu homme*.

Hegoaldean, berriz, gazteleraren eraginaz (se ha convertido en un hombre), esaera desegokiak eta aldrebesak irakurtzen dira:

*gizonarengan* (?) *bihurtu da*.

Euskaraz *hauxe da esakera*:

- *gizon bihurtu zen*.
- *emakume ospatsu bihurtu da*.
- *arazo latz bihurtu da*.

## 2. MUGAGABEA 'HAU, HORI, HURA' ADJETI-BOEKIN, ETA ADITZAREKIN

### 2.1. MUGAGABEA ETA 'HAU, HORI, HURA'

Mugagabeak 'HONETAN', 'HORRETAN', eta 'HARTAN' adjetibo erakusleekin erabiltzen dira (erdaraz, 'singular'ekin esango genuke); eta ez 'hauetan', 'horietan' eta 'haietan' delakoekin:

—zenbat urte HORRETAN ari zara hori ikasten?

—zenbait aste HONETAN hori entzun dugu

—hamar hilabete HARTAN ez zuen ikusi.

Lotura hau, nahiz erdaldun belarriei oso bitxi gertatu, guztiz bidezkoa eta bizia da Euskal Herri osoan.

Hona hemen adibide batzu:

#### HONETAN:

—*hamar urthe HUNTAN bizi niz esklabo* (Etxahun) (S).

—*neronek ere aditu diyot*

*esaten asko gizoni:*

*lau urte ONTAN biziya kendu*

*zaiola zenbait personi* (J. R. Taberna) (G).

—*bi urte ONTAN doble ta geio*

*pagamentuak aziyak* (Iturzaeta) (G).

- zortzi egun ONTAN nun izan zera, pikaro burugabia?*  
(Fernando Amezketarraren emazteak galdetu) (G).
- sei urte ONTAN gerla ari da*  
*astean bezain berri da* (Boryel) (BN).
- bi urte ONTAN pazientziyan*  
*ez naiz egondu gabia* (Zabaleta) (G).
- ogei ta sei urte ONTAN*  
*ainbeste desgrazi* (Zabaleta) (G).
- iru eun ONTAN emen ai gaittuk* (Ataunen Barandiara-  
nek bildua) (G).
- bost egun ONTAN ez det*  
*pikorrikan egin* (Xenpelar) (G).
- bi urthe HUNTAN* (Ademak Azkueri egindako gutun  
batean) (L).
- Zortzi urti hontan (AN) (Urdiain).*
- sei urte ONTAN* (Boryel) (BN).
- sei urte ONTAN* (Txanka) (G).

Argi-iturri diren aldetik, aipamen berezia merezi dute ondoko bi hauek:

- naio det soldau izan*  
*iru urte OSOAN* (Iturriaga) (G).
- urte asko ONETAN* (Urki) (G).

Esaera ez da berria, bestalde:

- laur egun HUNTAN hila* (Haraneder) (L).

## **HORRETAN:**

- bi urte ORTAN* (Txanka) (G).

eta

## HARTAN:

—*laur egun HARTAN ehortzia* (Haraneder) (L).

—*berrogoi urthe HARTAN* (Hiribarren) (L).

—*gütiena bizpahirur ehün urthe HARTAN* (Constantin) (S).

—*hamabi urthe HARTAN odol galtze batek hestutzen zuena* (Duvoisin) (L).

Urte mordo horik *multzo gisa* agertzen dira:

—(bi urte) honetan

—(lau egun) honetan.

“Bi urte”, beraz, *bienio* balitz bezala; eta “lau egun”, “espacio de tiempo de cuatro días de duración.”

Neronek ere bestetan oharrerazi dudanez (ikus “Fontes”, nº 25, 50. orr.), “dizaine d’années” itzuli du xuxen Haritschelhar-ek Etxahun-en esana (=“hamar bat urthe huntan bizi niz esklabo”); eta *multzo* gisa hartu behar dira numeral horik.

## 2.2. MUGAGABEA ETA ADITZA

Hildo beretik, mugagabeak SINGULARRA behar du aditzean beti. Nahiz, kopuruari dagokionez, bi, hiru, mila, asko, ala majina bat izan. Zuberotan erregela hau OSOKI betetzen da; besteetan, erdalkeria aurreratu ala, ahuldu egin da erregela.

Horri buruz, eta Etxahun-en izkribuak oinarritzat harturik, lan xehe bat egina dut berriki (ikus “Fontes”, nº 25, I-IV, 1977; 29-55 orr.).

## 2.21 NUMERALEKIN

Zuberoan hau bizirik dago gaur bertan. Hona hemen Mizpiratzegi xiberutarrak diona: "Si le substantif est à l'indéfini, comme un mot précédé d'un chiffre par exemple, on doit employer la forme verbale exprimant le complément au singulier. Ex.: Tu donnes LES livres = libriak emaiten *dütüzü*. Tu donnes DIX livres =hamar librü emaiten *düzü*". ('Dictionnaire Français-Basque', 133).

Ez, ordea, Zuberoan bakarrik, segidan agertuko den bezala.

Ohar funtsezko bat, halere:

Multzoa aurkeztu edo ezagutarazi artean MUGAGABEA da; baina segida gero MUGATU bihurtzen da, Beñat Mardo-k ongi senditzen zuenez:

—*Beñat esker dereiat;  
HIRUR perrüka ba DIAT,  
sagarroi larrüz eginik, eta  
hire begirutzen TIAT.* (S).

a) Ikus ditzagun, hasteko, MILA numeralazko etsenplu batzu, euskalkiiz euskalki hautatuak.

Axularrek oso nahasirik du puntu hau, nahiz batzutan ondo idatzi:

—*egiten DUZU zeure baithan barrena mila pensu eta gogoeta, mila dorre eta gaztelu* (Axular) (L).

—*mila bekhatu, malizia eta enganamendu egiten DUTELA* (Axular) (L).

Etxeparek ongi dio:

—*milla gizon gaixtorik DA emazte batendako* (BN).

Eta gauza bera Bizkai-ko beste muturrean:

—*milla grazia ematen DEUTSAT*  
*au ordenadu dauen Jaunari* (Mogel) (B).

Ez da pentsatu behar hau arkaismoa denik, ondoko bertsolarien paperetan ageri denez:

- ba DUTE MILA fantesia* (Boryel) (BN).
- ba ZEUKAK MILLA bat malezi* (Xenpelar) (G).
- orreatikan egiten al DEK*  
*MILLA fantasiya?* (Xenpelar) (G).
- BADUTE milla aitzaki* (Xenpelar) (G).
- negoziatzen DUTE*  
*MILA malezia* (Boryel) (BN).
- txurreru oik ba DUTE*  
*MILLA martingala* (Txirrita) (G).
- ezin ikusi orrek*  
*ba DU MILLA neke* (Astiasu) (G).
- ba DU MILLA borondate* (Urki) (G).
- jaun prestu oiengandik*  
*DEGU MILLA grazi* (Lexo) (G).
- eskaten DIZUT MILLA grazi* (Yantzi) (AN).
- azio oiगतik*  
*DIZUT esker MILLA* (Iturzaeta) (G).
- zor DIZUT MILLA graziya* (Iturzaeta) (G).
- bizitzian ba NEUKAN*  
*MILLA sentimentu* (Segura) (G).
- ijito bati eskatu NIYON*  
*nik MILLA pezta justuba* (Errikotxia) (G).

—oietatikan etortzen ZAIGU  
guri MILLA pikardia (Alzo) (G).

—orrek BA DU MILLA BAT mudantza (P. Errota) (G).

—ez GINUEN segurki  
MILLA alegrantzia (Luzaide) (BN).

Pluralaren eta mugagabearen arteko desberdintasuna ongi agertzen da Bizkaiko ipuin honetan:

—berari ostu EUTSEZAN diruek...

baina

...emon ZESAN amar anega arto (Barandiaran).

b) Gauza bera HAMAICA numeralaz:

—onezkeru AMAIKAK  
eman DU biziya (Garmendia) (G).

—AMAICA animak irabazi DU zerua (Txirrita) (G).

—entzun DEZU AMAIKA  
bertso eder eta fiñik (Txirrita) (G).

—ba DUTE AMAIKA kariñu (Txirrita) (G).

—beren denboran pasatu DUTE  
AMAICA otz eta bero (Txirrita) (G).

—jendiak ba ZEBILKIK  
AMAICA armoni (Txirrita) (G).

—AMAIKAK esan biar DU (Juan J.) (G).

—AMAICA gezur sartu DIRAZU  
joan daneko bost urtian (Txirrita) (G).

—AMAICA burla egiten DIYO (Txirrita) (G).

—pasatzen DUTE AMAICA inbiri (Lexo) (G).

- gure gañera DATOR*  
*AMAIKA eraso* (Lexo) (G).
- AMAIKA mutil gazte*  
*BADABILL ondora* (Lujanbio) (G).
- eman izan DIRAZU*  
*AMAIKA engaño* (Astiasu) (G).
- munduan pasatu DUTE*  
*AMEIKA egun eder* (Yantzi) (AN).
- matrimoniyuak ba DU*  
*AMAIKA lardaska* (P. Errota) (G).

d) Gauza bera *BOST* numeralaz:

- malko ederrik bota biar DU*  
*BOSTEK begiyan ertzetik* (Errenteri) (G).
- BOSTEK ba DAUKA negarra* (Alzo) (G).
- BOST ikusi bear DU*  
*allegatzen danak* (P. Errota) (G).
- nere gorputzak ba DU*  
*BOST alabantza* (Alzo) (G).
- aspaldiyan pasa DU*  
*BOST persekuziyo* (Lexo) (G).
- BOST kontu eder jakin biar DU*  
*munduan bertsolariak* (Xenpelar) (G).
- orain ezkondutzen DA*  
*BOST buru-arin* (Zakarra) (G).

e) Batzuen ustez, 5, 11, eta 1000 numeralak mugagabe gisa erabil daitezke; eta horretatik ikusi duguna. Baina fenomenoak guztiz da orokorra, eta Euskal Herrian barrena bizi-bizia, ber-



tsolarien lekukotasunaz ageri denez (puntu honetan xiberutar idazleekin ados direlarik):

2:

—*BI berset dolorusik nahi DIZUT khantatü* (Etxahun) (S).

—*ezagütürük ezi merexi ZIELA  
holako süjet nublek BI kopla* (Etxahun) (S).

Eta Tartas zaharrak:

—*erranen den bezala, salbatzeko BI gauza behar DA* (S).

Eta Erronkari-ko Mendigatxak:

—*aren gaztezutuan kemenko mitilek egiten  
emon ZEIN BI kuadrilla* (R).

—*anke ZIOLA nik bino BI urte oboro* (R).

Gauza bera entzun du Holmer-ek Bizkaian:

—*BI ume izandu ZUEN* (Holmer) (B).

eta berdin gipuzkoarrek:

—*iya BI urte DA nerekin  
tratatzuten zala asi* (Saiburu) (G).

3:

Ziberoan, jakina:

—*HIRUR etxalte BENIN galdü aitagati* (Etxahun) (S).

eta Arue-ko Tartas-ek:

—*HIRUR gauza gomendatzen DRAUZIET* (S).

eta Erronkari-n:

—*solo IRUR egun igaro ZION oian* (R).

Baina baita Gipuzkoan ere:

—*IRU bakarrik aitatuko DIZUET* (Gerriko) (G).

—*bati eta biri bezela igual*  
*aditzen ZAIO IRURI* (Txirrita).

4:

Arueko Tartasek:

—*edirenen DUZU laur kapitulu ene librian* (S).

—*Nafarruak galtzen DU IRU LAU legua* (Boryel) (BN).

6:

—*zük BADÜZÜLA BOSPASEI amore.* (Etxahun) (S).

—*eskeñi DIYOT SEI errial* (Soroa) (G).

—*SEI libera omen DUTE* (Luzaide) (BN).

7:

—*ZAZPI urte DA*  
*etzaitudala ikusi* (Zapirain) (G).

10:

—*eskatu DIT AMAR pezeta* (Soroa) (G).

—*emanen DAUNAT AMAR sos* (Barandiaranek bildua)  
(BN).

—*Biñau gaizuak HAMAR lüs aisa galdü ZIN* (Etxahun) (S).

15:

—*orai berian igari DUD Erronkarian AMABORZ egun* (R).

16:

—*AMASEI sos balio ZUN* (Yantzi) (AN).

20:

—*OGEI duro irabazten DUN gizonak* (Yantzi) (AN).

25:

Erronkariko Mendigatxak, ez beti aditzaren ahuleziaz:

—*aita batek alabari  
egun batez erran zaun:  
BADUN OGEITABORTZ urte,  
eta bordaltu bear dun* (R).

50:

—*BERROGEI-TA-AMARRI galdetzen baDIYO* (Soroa) (G).

100:

—*pisatzen ZUN EUN kilo* (Yantzi) (AN).

110:

—*ükhenen DIK EHUN ETA HAMAR kolpü* (S) (Xiberua).

1400:

—*pagatu ZUN MILLA TA LAU EUN pezeta* (Yantzi) (AN).

10 000:

—*AMAR MILLA pezta nai baldin badezu* (Txirrita) (G).

16 000:

—*AMASEI MILLA persona omen ZAN  
España onetatikan* (Udarregi) (G).

Hortaz, gaur bertan ere ez Gipuzkoan eta ez Bizkaian lotura bidezko hau arras nahasia denik ez dut uste. Oker entzun ez badut, Bermeo aldean hori entzuten da; eta Joxe Azurmendi nere adiskideak dionez Zegama aldean bizirik dago ere.

Erdaran murgilduta bizi garenez gero, bati baino gehiagori itzuri zaio euskal xehetasun bitxi hau. Baina aipatu ditudan bertsoek, Gipuzkoakoak izanik, erdarakadaren berritasuna salatzen dute.

Zuberoko modu jatorrari menegin egin behar ote zaionetz, ez da oraingo nire arazoa.

Geroak eta herriak erranen.

## 2.22. 'INDEFINIDO, INDEFINI' DERITZATEN ADJETIBOEKIN

Kasu honetan ez dago dudarik; eta geure lotura-moduari eutsi behar diogu neure ustez. Hona hemen adibide ilara argitsu bat:

'Zuberoko GÜthüna' delakotik:

—*noiz ere uste beütüzü bekhatü murtal ZUNBAIT egin dü-züla* (S).

—*ene bekhatiegatik egin BEITZIAN haiñbeste nigar* (S).

eta Arrasateko erretzearen oroitzapeneko bertso zaharretan:

—*eskerrik asko emaiten DEUSAT  
Andra Santa Maiñari* (B).

Etxahunek hau dio (S):

—*estatu horrek DEREIZÜ hanitx uhure*

—*behar DÜZÜGÜ eman zumait berset berri*

- nahi ZÜNÜKILA entzün zunbait  
üskaldün koblakari*
- Parisen BADA andere  
zunbait unest düda gabe*
- estranjer ere zunbait BADÜZÜ han*
- hanitx jente BADÜZÜ mahañin.*

Eta Gregorio Arrue gipuzkoarrak (G):

- gizonen iritziak ainbeste desberdintasun eta gorabera  
BADAUKATE geron begiaz dakuskigun lurreko gauzen  
gañean*
- zer propositu oi DARAMA askok konfesiora?*
- egiaz mesederik asko egiten DIO pekatu bakar batean  
erori danari*
- askok ez oi DU pentsatu nai, pentsatzen eztana etorriko  
ez balitz bezela*
- eztago hitz loiak baño anima geiago galtzen DUEN  
infernuko asmaziorik*
- nola lantegi batzuetara lagun geiago batutzen BAITAN*
- lagun gutxi oi DAUKATENEAN*
- askok ondo gogoan josita iduki bear LUKEANA*

Gauza bera Mogel bizkaitarrak (B):

- asko nekezaleri esan BAZEUNTSA*
- kalte geijago izango DAU*
- etorkizunak emoten DEUTSU orrenbeste bildur?*
- bati baño geijagori entzun DEUTSAT*

*—ez neban sinistuko baserritar batek jakin LEIJALA ain-  
beste izen.*

Gogora ditzagun Etxepare zaharraren esakuntza jator batzu (BN):

*—orhit adi nola DUIAN egin anhitz bekhatu  
—nihaurk ere uken DIZIT zeinbat ere amore  
—anhitz plazer ukhen BADU, anhitz behar dolore  
—Jeinko ezten bertze oro DAGO zure azpitik  
—zuk bezanbat dignitate mundu orok EZTUKÉ  
—hark orori emanen DIK bere merexituia*

eta Tartasen beste batzu (S):

*—erranen DU zonbaitek  
—zergatik hanbat hon lurrian biltzen DUZU?*

eta Axularren mordo bat, beste milaren artean hautatua (L):

*—zerbait kalte ethor ZEKION gogoanbeharrez eta beldu-  
rrez  
—anhitz malizia eta phentsu gaixto sor ZITEKEIELA  
—anhitzetan egiten DERAKUTE etsaiek hanbat ongi eta  
ontasun  
—Perikles famatu hark mantenatzen ZUEN bethi ere bere  
herritik kanpoan zenbeit gerla  
—hek anhitz kalte eta nahasketa egiten BAITUTE  
—anhitz malizia erakutsi izatu DU alferkeriak  
—anhitz desenkusa eta estakuru edireiten DU*

- anhitzi iguriki DIO eta igurikitzen DIO zahartu hutsezko phonduraino*
- egun batez galdegin zeraukaten Aletsandro Handiari ea nolatan erdietsi eta irabazi ZUEN hanbat biktoria*
- bekhatu guti DUZUNEAN*
- egiteko guti emaiten DIO*
- bekhatu gehiago DUZUNEAN*
- trebatuz gero anhitz gauza egiten DA*
- nola eritasun handiak, sendatuz gero ere uzten ohi BAITU bere ondotik zenbait erro gaisto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala uzten DU denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik zenbait ondore gaixto*
- anhitz BAITOHA garaziatik garaziara*
- hartzaz orhoiturik egiten DU zenbait hats-beherapen*
- benturaz anhitz BAITAGO orai ifernuan*
- zertan pentsatzen ohe duzu zuk, orainokoan ere, buruan ile DUZUN baino bekhatu gehiago egin DUZUN horrek?*
- zeren hanbat ongi eta ontasun egiten DERAKUN*
- girstino onek urthe batez anhitz obra on egiten DUTE*
- anhitzi gerthatzen ZAIKANA*

Erronkarin ere egoki erabiltzen zen hau (R)::

- nai NOKE anitx gaiza erran*
- anke berze gisako arbole anitx aztan DELA*
- zor korren pakatiagatik saltu DA kainbat arbole.*

Ez nuke nahi, halere, irakurleak honetan intelektualkeriarik -  
txikiena ikus lezan. Entzun ditzagun bertsolariak orain.

Iturzaeta jatorra aurrenik (G):

- euskaldunaren batzokia da*  
*Azpeitiako Loiola,*  
*aitona pranko kendu DIGUTE*  
*malkuak zerizkiola*
- gizon oien berri*  
*askok DU igerri.*
- anima asko ofenditzen DA*  
*seigarren mandamentuan*
- dударик ezta, obligazio*  
*asko DIOGU Jesusi*
- ainbeste lotsa, neke ta pena*  
*gugatik ZUAN ikusi*
- gugatik pasa ZUAN*  
*ainbeste pena*
- BADUTE lanik asko*  
*beren animetan*
- zenbait persona BADA mingaiñ beltzekua*
- oinguan azaldu DEK*  
*ainbeste kolore,*  
*eurekin EZTADUKAK*  
*naï ainbat balore*
- gaizto asko jartzen DA*  
*onan izenez...*  
*oker asko jazten DA*  
*zuzenen jantziz*



- zein dauden itxusi  
askok DU ikusi*
- aurten orrena persona askok  
egin du juramentuba*
- nai bada ikasi esan DIGUTE  
fedeko asko egia*
- arrotasuna mundu onetan  
daukagun gaitzik txarrena,  
altu-ustian dauan askori  
joaiten DIO barrena*
- bei onek egin DU  
asko azio txar*
- zenbaitek ez DU pentsatzen onek  
zer lezakean ekarri*
- oinbeste gauza igartzen DEGU*
- bajeza asko botatzen ZAIGU*
- konpaiti ontan ainbat jakintsu  
beste klasetan ote DA?*
- askok uste DU ez dadukala  
euskerak edertasunik*
- zenbaitek EZTU gogoik emateko*
- langille asko nekian  
ari DA jornal merkian*

Berdin ere Udarregi bertsolaria (G:

- txiripa asko pasa  
ZIOTEN alkarri*
- zenbaitek EZTU ganadubakin  
suerte onik merezi*

- orrenbeste urte DA*  
*Kristo jaio zala*
- konfesatzera joanda*  
*zenbaitek zer DAUKA?*
- zenbaitek adituta*  
*egingo DU farra*
- esanda ere zenbaitek*  
*sinistuko al DU?*
- aurten orrera persona askok*  
*izan DU juntamentuba*
- obrero askok segitu nai DU*  
*zortzi orduko lanian*
- askok beñipein beti disponitu DU*  
*ofrendarekiñ juatia*
- anima asko salbatutzen DA*  
*limosna dala mediyo*
- desordenuak BADAkar*  
*makiña bat kalte*

Eta Txirrita (G):

- eta zerorrek ez badakizu*  
*galde ZAIOZU askori*
- gizarajoan BADU beregan*  
*makiña bat desgrazia*

Boryel nafarra gogora dezagun orain (BN):

- aita amek pena asko*  
*jasan DUTE guretako*
- halako zonbait ere bizi DA*  
*Españan ala Frantzian*

- ene izpirituan  
BAZEN zenbait bertsu
- zahar bezanbat gazte  
BADUA mundutik
- yeloskuan bizi DELA  
nexka gazte anitz

eta Lexo segidan (G):

- aspaldidanik egin DIT  
makiña bat burla
- komentuan zer pasa dan  
askok DU jakindu
- langilleriaren izerditikan  
zenbaitek nai DU zupatu
- zenbait nagusik egiten DAKI  
gero ganetikan farra
- guregatik ibilli DA  
ainbeste komeri
- sendatu DUTE zenbait  
anima eritu
- langillearen izerditikan  
zenbaitek nai DU zupatu
- zenbait nagusik egiten DAKI  
gero gañetikan farra
- ortik naigabe asko  
DATOR ingurura
- ardi asko faltatu  
ZAI O zar da gazte

Saiburuk hau dio bertso batetan (G):

—nobiyo askok egingo DIZU  
beste orrenbeste utsegin  
(bi aldiz doa bakarrean aditza hemen)

eta Lujanbioren bertsoetan hauk irakur daitezke (G):

—askok galdetutzen DU  
gizon oi non dan

—pasara eman DIO  
zenbait bertso zarri

—ori berdintzen lan DU  
gaur zenbait medikuk

—urte asko DUTENAK  
beren bizkarrian

—festak egingo DIZKA  
askok ingurutik

eta Imazen bertso-paperetan (G):

—mezak gutxik entzuten  
DITU debozior

—desprezio ta injuri asko  
jendeak egiten ZION

—antxe BADAGO zenbait  
pena eta neke

—mediku askok egiten ZIYON  
Inaziyori bisita

eta Pello Errotarenetan (G):

—sekula EZTET ikusi  
oinbeste komeri

eta P. Zabaletarenetan (G):

—*saltsan sartzian obe degula  
askori aditzen ZAIO*

—*onenbeste kastigu  
al DEGU merezi?*

—*makiña bati kendu DIOTE  
osasuna ta biziya*

Xalbadorrek hau kantatu zuen (BN):

—*heriotzeak egin arazten  
DAUKU zonbait gogoeta*

eta Zakarrak (G):

—*askok esaten ZIDAN  
nuela berandu*

eta Zapirainek (G):

—*gure kondesa bixitatzera  
etortzen etzan gutxi ZAN*

eta Santakruzek, bi aldiz segidan:

—*zenbait predikadorek  
sermoia asten DU,  
eta atentziyua  
askok paratzen DU.*

eta Xenpelar bertsolaria bukatzeko (G):

—*azal ederragua DU  
zenbaitek orpuan*

—*egin DA zenbait kamiyo*

—*kantuz eman DIDAZU  
makiña bat pena*

—*egunez askok ikusten GAITU  
guazen ilunabarrean*

Etsenpluen ilara luzea da; baina nahiago dut euskaldunak beren buruz mintza daitezen, ni neure tema bat defenditzen ari naizela inork pentsatzea baino.

## 2.23 GALDERA ADJETIBOekin

Hauekin ere aditza SINGULARREAN, gainerako indeterminatuekin bezala. 'Zer ordu DA?' galdetzen da; ez 'zer ordu dira?'. Baina, era berean: 'zenbat ordu pasa DUZU mendian?', 'zein adis-kide ikusi DUZU' (nahiz erantzuna ustez 'plurala' izan); eta abar.

Hona hemen adibide batzu:

—zenbat filosofo munduaren gizaldietan ez DA irten?  
(Arrue) (G).

—zenbat kalte egiten ez DUTE beren esaera eta liburua-  
kin? (Arrue) (G).

—zenbat mesede egin ZIGUN emen salbatzalle maiteak?  
(Arrue) (G).

—zenbat anima DAGOEN infernuko su gar izugarrietan?  
(Arrue) (G).

—zenbat lujuriotsu ez DAGO infernuan! (Arrue) (G).

—zenbati ez oi DATORKIO gogora? (Arrue) (G).

—zenbati... kontzientziak eman oi ez DIZKA bere dei, kez-  
ka ta imurtziak? (Arrue) (G).

—zenbat malko gori bota ETZUAN San Agustinek berak!  
(Arrue) (G).

—zenbat kalte egiten DOZUBEN (Mogel) (B).

—erri abetan egiña DIGU  
zenbat mesede ta grazi (Iturzaeta) (G).

- aren partetik zenbat egin DAN  
eliza eta konbentu (Iturzaeta) (G).
- zeñek juzgatu zenbat mesere  
egiten DIGUN ark guri? (Iturzaeta) (G).
- zenbat on egin DUAN  
Jaungoikuak jakin (Iturzaeta) (G).
- zenbati egin DIO  
sabeleko miña (Udarregi) (G).
- zenbat fabore egiñ LEZAKEN  
gizon baten talentubak (Lexo) (G).
- iñork ez daki animarentzat  
zenbat bentaja DATORREN (Lexo) (G).
- zenbat gizon aundik  
propina eman DIT (Lujanbio) (G).
- zenbat persona egun orietan  
joan DAN konfesatzera! (Imaz) (G).
- zenbat pena ta mixeri pasa DEZUTEN (Zapirain) (G).

eta aspaldiko Tartasek bide beretik (S):

- gugati zonbat urhats, zonbat jauzi eta laster  
egin DIAN gure jaunak konsidera ezazu.

Erdal estroktorek idarokitzen digutenaz arras bestaldera, euskarazko indeterminatuari SINGULARRA datxeko; indeterminatu edo mugagabe hori *multzoa* baita.

### 3. ENE / NEURE, HIRE / HEURE, T.A., BEREZKETA

Gaurko idazleon luman (neurean ere bai!) nahasketa handia dago honi buruz, euskarak berezten dituen gauzak berriz ere erdarak ez baititu berezten; eta euskalki osotan ere ba da nahaspila franko. Zubereraz semantikazko eremu guztia hartu bide dio 'ene' delakoak, 'neure' delakoari. Gipuzkoan 'nere', 'zere', eta horrelakoak gaizkitu egin dute egoera. Eta bizkaitar batzuk, bizkaieraz ari direlako nunbait, beti 'neure', 'geure', eta sail horretakoak erabili behar bide dituzte; bizkaieraz 'nire', 'gure', eta abar, ez balira bezala.

Gauza bera gertatzen da NI / NEU, HI / HEU, t. a. sailean. Hauei buruz halere ez naiz luzatuko. Irakurleak ba du nora jo: Altuberen 'Erderismos' liburu bikainera.

#### 3.1. NI / NEU SAILA

Ohar eta adibide bakar batzu soilik (ikus 'Erderismos', 96 gn. orr. eta hurrengoak).

Lehenengo lerrokadan izenorde *normala* doa; eta bigarre-nean, 'slash'en ondoan, galdegai-izenorde *azkarra*:

NI / NEU, nerau  
HI / HEU, herori  
HURA / BERA



GU / GEU, geroni  
ZU / ZEU, zerori  
ZUEK / ZEUEK, zerok  
HAIK / BERAK

Bien arteko desberdintasuna, *indar-kontu* bat da.

Galdegaia (frasearen kaka, edo erantzun nagusia, esan dezagun) izenordea bera denean, izenorde *azkarra* erabiltzen da; eta esakuntzaren galdegaia besterik denean, izenorde *normala*.

—atzo etorri nintzen *ni*

(alegia: NOIZ ETORRI ZINEN? ATZO etorri nintzen ni)

—*neuk* esan nizkion egundokoak

(alegia: NORK entzunarazi zion merezi zuena? NEUK.)

Gogora ditzagun adibide argitsu batzu:

—*erran itzazü... zure bekhatiak oro, ZIHAURTAN ezagützen tüzün bezala* (Ziberuko GÜthüna) (S).

—*NIHAUREK ene faltaz NIHAURI zerratü dütüt zelüko borthak. NIHAUR ene faltaz jarri niz lanjerian* (Z. G.) (S).

—*GEROK egin nai ez baditugu artarako eskatzen diran gauzak, gerea izango da errua* (Arrue) (G).

—*itxi daiogun oni gerorako, ta NEUK aztertuko dot zure jakiturija andia* (Mogel) (B).

—*NIK pagauko dot ardaa, ta pagau egizu ZUK bazkari on bat* (Mogel) (B).

—*NEUK emongo deutseet arpegi justiziako opiziale diruzalialai* (Mogel) (B).

—*Peru, ez dantzuzu ZUK?* (Mogel) (B).

—*ZUK alan dinozu orain* (Mogel) (B).

- ZEUK ikusiko dozu* (Mogel) (B).
- esan digute kargu aundiak  
dauzkagula gurasuak  
ondo zaitutzen GEU eta geren  
famiariaren pausuak* (Iturzaeta) (G).
- etzan sugoia SUK jo senduna, NEU nintzan* (J. M. Barandiaran) (B).
- GIHAUR beikira legiaren begiratzaille gaixtoak* (Tartas) (S).
- bekhatuak eta bekhatuzko obrak baititugu geure-geureak eta GEROK eginak* (Axular) (L).
- ZERORRI uzten deratzut, ZEURK egizu justizia* (Axular) (L).
- GEURK gere barruan ditugu* (Gerriko) (G).
- ori sendatzeko izan ditekean erremediorik egokiena eta eragilleena da, gere burua ondo GEURK ezagutzea, eta orretarako gere pekatuak banaka examinatzea* (Gerriko) (G).

### 3.2. ENE / NEURE SAILAK

Jar ditzagun, hasi aurretik, bi adjetibo-sailak elkarren ondoan bi ilaratan:

NIRE (=ENE)	/	NEURE
HIRE	/	HEURE
HAREN	/	BERE
GURE	/	GEURE

ZURE	/	ZEURE
ZUEN	/	ZEUEN
HAIEN	/	BEREN

Eta azter ditzagun esakuntza batzu:

—HAU ENE etxea da = HAU NIRE etxea da.

ENE lehenengo pertsonakoa da (1); HAU hirugarren pertsonakoa (3). Pertsona-kidetasunik? Ez = 1/3. Beraz, ENE sailekoak erabili behar.

Eman dezagun orain beste hau:

—hau NEURE etxea *dut (nik)*

NEURE lehenengo pertsona (1); NIK lehenengo pertsona (1). Pertsona-kidetasunik? Bai = 1/1. Beraz, NEURE sailekoa dagokio.

—HORI ZURE etxea da. (3/2). Beraz, ZURE ongi da.

—ZEURE etxea hondatuko duzu (zuk) (2/2) ZEURE ongi da.

Hauta ditzagun euskal literaturako etsenplu jator batzu:

—*HAREN haurrak eta ENIAK haurride oso lirata* (Etxepare) (BN).

(3/1) 'haren' eta 'ene' ongi, beraz.

—*etsaiari ENE amoreakgatik barkha diazozuela* (Axular) (1/2) (L).

—*dardoak bano lehen liro erdira ENE bihotza* (Alegia: HARK erdiratuko luke ENE bihotza, 3/1) (Etxepare) (BN).

Hortaz: ADITZARI DATXEKON IZENORDEA ETA ADJETIBO PERTSONA BEREKOAK DIRENEAN (pertsona-kidetasuna

dagoenean, aditzaren ekintza-bihurrera bailegoan) 'NEURE' SAILEKOAK ERABILTZEN DIRA; ETA KIDETASUN HORI EZ DAGOENEAN, 'ENE' SAILEKOAK.

Galdegaiaren eraginak, bizkaieraz batez ere, nahasi egin du erregela hau, batez ere adjetiboa aditzaren aurretixek doanean.

### 3.21. BATZUTAN "IZAN" ADITZAREKIN GERTATZEN DIRA: enea da, zurea da, gureak dira, eta abar.

—*ENE gogoa nola baita* (Etxepare) (BN).

—*ENE ustian* (Etxepare) (BN).

—*ENE unsa eginak orai oro gaitz dira* (Etxepare) (BN).

—*zer ere hon baituzuie, ORO dira ENIAK* (Etxepare) (BN).

—*ENEAK dira FALTAK, ENEA da HOBENA* (Axular) (L).

—*ENE bihotz eta arima zurekila dirade* (Etxepare) (BN).

—*ezta ZURE bururako GURE jakiturija* (Mogel) (B).

—*GUREAK dira FALTAK* (Axular) (L).

—*BEKHATUA ZUREA da, BARKHAMENDUA ENEA* (Axular) (L).

—*ENE guziak ZURE dirade, eta ZUREAK ENE* (Haraneder) (L).

—*HAU da ENE manua* (Haraneder) (L).

—*orai ENE aldia da, lehen ZUREA zen bezala* (Axular) (L).

edo NOR soilezko adizkerak (egon, ibili, t. a.):

—*ENE baitan dago orren azken ilabetiaren 25-ko karta* (Mendigatxa) (R).

- ENE pena sar dakion bihotzian barrena* (Etxepare) (ENE pena HARI sar dakion: 1/3) (BN).
- ENE kontra ibili zara* (Axular) (L) (1/2).
- ENE arima jalgiren da... kanpora* (Etxepare) (BN).
- NIRE etxian... jan aurretik alan egin oi da* (Mogel) (B).
- zertan daguan NIRE bildurra* (Mogel) (B).
- ENE euskara eta lengajia eztaikit aprobatia izanen denez* (Tartas) (S).

Bestetan NOR / NORK edo antzekoak dira adizkerak, baina ekintza-bihurrerarik ez da gertatzen: zuk ene etxea saltzen, hark ene arima enganatzen, eta abar:

- ENE gogoia unsa ezta kusazu* (Etxepare) (ENE gogoia ez dakusazu ZUK, beraz 1/2, 'ene') (BN).
- emongo dabela kerellaren bat NIRE kontra* (Mogel) (EURAK emongo dabe NIRE kontra, 3/1, 'nire') (B).
- ez dakusk barriz NIRE bitzta ona?* (Mogel) (ez dakusk HIK NIRE bitzta ona?; 2/1, 'nire') (B).
- edirenen DUZU LAUR KAPITULU ENE liburian* (Tartas) (2/1, 'ene') (S).
- ENE sorbalden gainean egin zuten egur BEKHATOREEK* (Axular) (1/3) (L).
- ENE izenian anhitzetan galdeginik limosna ZUIEK ukhen baituzuie hetzaz guti ansia* (Etxepare) (BN).
- ENE enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia bertze enseiu hobeago baten egitera, eta ENE hemengo falten ere erremediatzera* (Axular) (ENE... hunek kilika eta gutizia zinitzan ZU, 1/2) (L).

Aldiz, aditzaren ekintzan halako ekintza-bihurrera gertatzen denean, beste sailekoak erabiltzen dira: *nik neure etxea saldu dut*, *ni neure etxean geldituko naiz*, eta abar:

### NIRE/NEURE:

- manatuko dut NIK ere NEURE ondokoa* (Axular) (L).
- gozatu nahi dut NIK ere NEURE denboran* (Axular) (L).
- NEURE onen erdiak emaiten derauztet probei* (Axular) (1/1) (L).
- gelditzen naiz NEURE baithan* (Axular) (L).
- inguratu nuen itsasoa NEURE mugez eta mugarriez* (Axular) (L).
- NIK NEURE sorbalden gainean errezibitu nituen azoteak* (Axular) (1/1) (L).
- hau edireiten dut NEURE alde eta fabore* (Axular) (1/1) (L).
- NIK eztakit beste euskerarik NEURE guraso ta auzokoei entzunda ikasi deutseedana baño* (Mogel) (1/1, 'neure') (B).
- eruango zaitut egun batzuketako NEURE etxera* (Mogel) (alegia: *eruango zaitut NIK NEURE etxera*, 1/1, 'neure') (B).
- ez dot oraindino Jaunaren izenik enzun NEURE umeen aoti bere* (Mogel) (*ez dot NIK entzun... NEURE umeen*, = 1/1) (B).
- igaren udan... egin dut NEURE loan amets bat* (Tartas) (*egin dut NIK NEURE loan*, 1/1, 'neure') (S).
- zuiegatik ekarri dut gero NEURE bizia* (Etxepare) (Ongida: *ekarri dut NIK (1) NEURE (1) bizia*) (BN).

- NIRI NEURE aitzinekoak utzi derautan azienda haur* (Axular) (L).
- oraigunian il zitzaitadan ÑORE mentian adexkiderik andien ekundana* (Mendigatxa) (hil zitzaidan NIRI NEURE... 1/1 'neure') (R).
- ez naiz NEURE burutik mintzo* (Axular) (=ez naiz NI NEURE burutik mintzo, 1/1, 'neure') (L).
- ordu hartan diakusazut galdu NEURE buruia* (Etxepare) (Alegia: NIK dakusat NEURE burua, 1/1) (BN).
- NEURE gogoa nerakutson sekretuki* (Etxepare) (NIK NEURE...) (BN).

### 3.22. BERDIN GURE/GEURE DELAKOETAN:

Batetik:

- egoite hura da GURE galgarria* (Axular) (L).
- noiz izanen den GURE azken eguna* (Axular) (L).
- GURE kontuko denbora da lehen* (Axular) (L).
- iragana eta ethorkizuna eztira GURE* (Axular) (L).
- egin du GUREAK* (Axular) (L).
- GURE gorputzak ur lasterrak bezala dohatzi* (Axular) (L).
- GURE urtheak ethortzen dira joaiteko, eta ez gurekin egoiteko* (Axular) (L).
- GURE bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika* (Axular) (L).
- GURE bizia ttipitzen eta laburtzen da* (Axular) (L).

baita bihurrerarik gabeko hauk ere:

- JAUNGOIKOAK GURE obra guztiak kontuan... neur-tzen baititu* (Axular) (L) (3/1).
- ezin engana gaitzake gu, GURE lehenbiziko aita-ama HEK bezain erraxki* (Axular) (L).
- badaki GURE bekhatuen berria* (Axular) (L) (3/1).
- GURE buruko ileak ere khondatuak baitadutza* (hark) (Axular) (L) (3/1).

Baina, bihurrera delarik:

- GUK GEUREAK, oraino gehiago balira ere, erremedia baititzakegu* (Axular) (L) (1/1).
- GEURE bizitzea... ordenatzen dugu* (Axular) (L) (1/1).
- zahartuko baikina bezala GEURE gauza guztiak egin* (guk) (Axular) (L).
- GEURE baithan baitakigu* (Axular) (L) (1/1).
- han-arteraino GEURE buruak zordun dadutzagu* (Axular) (L).
- barkhatu behar diogu GEURE etsaiari* (Axular) (L).
- GURI ere GEURE Jainkoak barkha diazaguntzat* (Axular) (L).
- GUK GEURE buruan daramagu* (Axular) (1/1). Beraz, 'geure'.
- beraz hunelatan arrazoinekin edukiko dugu GUK ere fidantzia handia eta esperantza beroa GEURE Jainko baithan eta HAREN miserikordian* (Axular) (L).
- ainbeste desberdintasun eta gorabera badaukate GERON begiaz dakuskigun lurreko...* (Arrue) (G).



—*erregu zaiogun Jainkoari, eta GERON barruan ito deza-  
gun* (Arrue) (G).

### 3.23 JAKINA: gauza berbera gertatzen da pertsona guztietan: HIRE/HEURE

—*pensa zak hura dela HIRE salbatzailea* (Etxepare) (3/2,  
'hire') (BN) (izan).

baita ekintza-bihurrera ez dagoenean ere:

—*maite jitubek IRE odoloste, lukainka, gibel...* (Mogel)  
(alegia: HAIEK maite dizkitek HIRE odoloste, 3/2, 'hire')  
(B).

Baina bihurrera hori dagoenean, beste sailera aldatzen da:

—*erhogoatan* badaramak *HEURE mende guzia* (E-  
txepare) (BN).

—*egin ezak HEURE ezagutzia... hortan baituk HEURE  
debozionia* (Etxepare) (BN).

—*regla ezak egun oroz onsa HEURE etxia* (Etxepare)  
(BN).

—*HEURE gauza guztietan emak dilijentzia* (Etxepare)  
(BN).

—*orki zak YORE umetarik, iaurek egiten iuana YORE  
amari* (Mendigatxa) (R).  
(2/2). Beraz, 'heure' (erronkarieraz, 'yore').

### 3.24. GAUZA BERA ZURE/ZEURE SAILAZ:

—*minberatu ez ditezen ZURE belarriak* (Mogel) (B).

—*ZURE zaanak agirijan dagoz* (Mogel) (B).

—*hala doa JAINKOA ere ZURE animatik ihes eginaz*  
(Axular) (3/2, 'zure') (L).

baita hauetan ere:

—*indarra eta haizea eman ahal diazaio SPIRITU SAIN-  
DUAK ZURE gogoari* (Axular) (3/2) (L).

—*ZURE berbeetia DIABRUBAK BERAK bere aituko eztau*  
(Mogel) (B).

—*NEUK aztertuko dot ZURE jakiturija andija* (Mogel)  
(1/2, 'zure') (B).

Baina bihurrera dagoelarik:

—*zer aterako dezu munduko irabazi, anditasun eta leun-  
kerietatik, baldin ZERE anima betiko galtzen badezu?*  
(Arrue) (G).

—*ZUK ZEURE neurria bete* (Axular) (L) (2/2). Beraz, 'zeu-  
re'.

—*eztuzu ZUK ZEURE arrazaz ukhatu, etzara ZEURE lei-  
nutik eta ethorkitik hastandu* (Axular) (L).

—*ZEURE eskuan dituzunak utzi dituzu galtzera* (Axular)  
(L).

—*ikhusazu ZEURE itsutasuna* (Axular) (L).

—*ZUK ZEURE neurria bete* (Axular) (L).

—*ZUK aterako bazendu ardaia ZEURE kontura* (Mogel)  
(2/2, 'zeure') (B).

—*ZEURE eskua zabaldu ta guztiok bedeinkatu* gagizuz  
(Mogel) (B).

On izango da, bukatzeko, Axularren idazki jator hau:

—*Etzaitzila ZEURE ondokoaren esperantzan, eta hark eginen duen deskarguan fida. Zeren, ZERORREK, bizi zarela, ZEURE arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta ZEURK egin duzun falta ZEURK erremediatzen ezpaduzu, eztezazula pentsa, eztakizula iduri, gero ZURE ondotik ZURE ondokoak, ZUK ZERORREK baino hobeki eginen duela.*

Gauza bera “zuek” delakoaz:

—*ZEUEN buruen etsaiak Jainkoagatik egin nahi ezpaduzue ere, zergatik, ZEUEN probetxuagatik eta gehiago bizitzeagatik bedere, etzarete bekhatu egitetik begiratzan? (Axular) (L).*

—*baldin deusetan ere ene alderakotzat zordun edireiten baditutzue ZEUEN buruok (Axular) (L).*

### 3.25. HIRUGARREN PERTSONETAN GAUZA BERA:

Batetik:

—*nola hizan redemitu HAREN odol sainduiaz (Etxepare) (Ongi da: nola haizen HI redemitu HAREN odolaz, 2/3, ‘haren’) (BN).*

—*uraxe dala AREN zentroa, AREN azkeneko eta zorioneko fiña... eta BERE indar guziarekin nai luke BERE zentrorra eldu (Gerriko) (G).*

—*estenditzen (da) orotara HAREN potestatia (Etxepare) (BN).*

—*bertze erremedio guztiak akhitu direnean, HARENAK hasten dira (Axular) (L).*

baita:

- orduan behar duzu ZUK Jainkoa baithan eta HAREN miserikordian fidatu eta esperantzatu* (Axular) (L) (2/3).
- kontu egizu ezen probe hura dela Jainkoa bera, zeren HAREN izenean eskatzen zaizu, HAREN izenean emaiten diozu, eta Jainkoak ere, BERARI emaiten baitzino bezanbat, estimatzen du* (Axular) (L).
- kontenplatu behar dugu... HAREN pena handia* (Etxepare) (1/3) (BN).

Baina:

- A bizi dau BERE zoruak, eta ZU ZEURIK* (Mogel) (B) (3/3) eta 2/2). Beraz, 'bere' eta 'zeure'.
- HARK BERE azken finean egin zuen enseiua eta penitentzia-itxurapena, ibentzen zaiku GEURE begien aitzinean etsenplotzat* (Axular) (L).
- BERE burua ZURE alderakotzat zordun erakusten du* (Axular) (L).
- istoriano BATEK dio BERE liburian* (Tartas) (S).
- aita BATEK BERE semiari ofiziorik erakusten etzionean* (Axular) (L).
- AITAK BERE haur maitia gaztigatu ohi du* (Etxepare) (BN).
- AK uste dau eztaguala BERA legezko barberorik* (Mogel) (B).
- ezagutuko du BERE jakinduriaren laburtasuna* (Arrue) (G).
- HARK BERE ahoaz erran* (Tartas) (S).

- graziak oro BERE eskuian nahi duien orduian* (Etxepare) (Alegia, HARK BERE eskuan, 3/3, 'bere') (BN).
- baitu BERE odolaz karioki erosi* (Etxepare) (BN).
- NORK BERIA baiezila emazterik ez hunki* (Etxepare) (BN).
- NORK BERIA bertziari eztu nahi partitu* (Etxepare) (BN).
- orduian ere BERE eskuian dik grazia guzia* (Etxepare) (BN).

**3.26 Hildo beretik, eta gutunen haseran, jatorrago da 'ENE' edo 'NIRE' adjetiboa erabiltzea, 'NEURE' baino:**

- ENE alaba* (Axular)
- ENE ama maitea* (Axular)
- zaudete iratzaririk, ENE anaia maiteak* (Axular)
- Ene seme: begira ezazu denbora* (Axular).

# 4. ADITZAREN PROBLEMA BATZU

## 4.1. ADITZAREN 'INFINITIBOA' ETA ADITZAREN 'PARTIZIPIOA'

Ez dakit nik zergatik; baina, aditzak jokatu edo konjugatzerakoan, erdarakadak entzuten dira maiz. Uste daitekeen baino maizago.

Gaurko euskaldun eskolatu bati galdera hau eginez gero: "Nola esaten da 'ver, voir' euskaraz?" eskuarki hau entzungo dugu: "IKUSI". Euskal gramatikarik gehienek gauza bera. 'Ikusi', halere, ez da 'ver, voir', '*visto, vu*' baizik. Alegia:

Ikus = ver, voir  
Ikusi = visto, vu

Era berean, 'cénar, souper' ez da 'afaldu', '*afal*' baizik:

afal = cenar, souper  
afaldu = cenado, soupé

Lehenengoa 'infinitebo' dei dezakegu, eta bigarrena 'partizio'.

Herriak berak horrelaxe itzultzen zituen erdal aditzak Erronkarin (Mitxelenak emana du honen berri). Eta lekukotasun berbera utzi zigun Azkuek (ikus 'Cartas de Mendigacha a R. M. Azkue', EUSKERA 1957, 163 gn. orr.). Mendigatxak hau idazten zion:

ver	= EKUS
callar	= IXIL
escuchar	= BEA

Eta kakoa horretan datza:

IKUS (infinitibo) .....IKUSI (partizipio)  
GERTA .....GERTATU

*Hots, PARTIZIPIOAK 'IZAN' eta \*'EDUN' HARTZEN DITU  
BETI LAGUNTZAILE; INFINITIBOAK, BERRIZ, \*'EDIN' eta \*'E-  
ZAN'.*

Alegia:

GERTATU da	IKUSI du
GERTATU zen	IKUSI zuen
GERTA daiteke	IKUS dezake
GERTA dadin	IKUS dezan
GERTA bedi	IKUS beza

Aditz-laguntzaileen trukeak, *euskal jatorrizko moldearen galera erakusten du*; erdaraz ez baitago, berriz ere, euskaraz dugun laguntzaile-bitasun hau. 'Gerta da' esateak (edo-ta, sime-triaz, 'gertatu daiteke') euskal aditz-laguntzaileen berezitasunaren berririk ez izatea erakusten du; eta erdakeria hutsa da.

\* \* \*

Arazoa ez alferrik zailtzeko, eta aspaldidanik arkaismo bihurtu zirelako, ez ditugu hemen kontutan hartuko antzinako geure 'gerta zedin' (= 'gertatu zen') eta antzekoak. Irakurleak dakikeenez, Etxepareren eta Oihenarteren olerki batzutan irakur daitezke horrelakoak; batez ere, Garibairen eta Oihenarteren atsotitz-bildumetan; eta, noski, Leizarragaren Ebanjelioetan. (Beste batzu ere aurki daitezke Mitxelenaren 'Textos arcaicos vascos' liburuan.)

Berezketa hau eginez gero, beraz, bion erabilbide zuzena gauza agiria eta erraza da:

Aditzaren egintza EGINKIZUN denean: INFINITIBOA

Aditzaren egintza EGINA denean : PARTIZIPIOA

Esate baterako:

—GERTA daiteke (alegia: ez da oraindik gertatu; 'gerta' beraz).

—GERTA dadila (ez dakigu zertan den; 'gerta' beraz).

—atzo istripu bat GERTATU zen (istripua gertatua baita).

—hori GERTATU da.

Berezpide edo biketa hau bizi-bizirik ezagutu du euskarak euskalki guztietan orain dela gutxi arte (Bizkaian ezpada). Donostian bertan, kalean beraz, eta erdaraz ere ba zekien gizarte batean, Etxegaraiak egoki erabiltzen zituen joan den mendean:

—EKUSI dut zeruba

—EKUS dezagun aur jaio berriya

—oneraño berari diogu JARRAITU

—JARRAI zaiogun

—illundurikan geraden ARKITU

—ARKI dezagun

—ADITU dutelako Jesusen jaiotza

—gure lege adiña ADI ezazute (ikus bere 'Festara').

Nola jakin, beraz, INFINITIBOA zein den euskaraz?

a)	gertatu .....	gerta (infinitebo)
	harrapatu .....	harrapa
	hartu .....	har
	osatu .....	osa
	bazkaldu .....	bazkal



Alegia: *partizipioak '-tu' duenean, 'tu' kenduaz.*

- b)
- |              |       |
|--------------|-------|
| ikusi .....  | ikus  |
| etorri ..... | etor  |
| itzuli ..... | itzul |
| hautsi ..... | hauts |
| utzi .....   | utz   |

Alegia: *partizipioak '-i' duenean, 'i' kenduaz.*

Ohar bat, halere: 'i' ren aurretik soinu oklusibo bat datorren batzuetan, ez da 'i' hori kentzen:

- |               |         |
|---------------|---------|
| iraungi ..... | iraungi |
| aurtiki ..... | aurtiki |

d) 'n' batez bukatzen diren partizipioek ez dute aldakuntzarik izaten:

- |             |       |
|-------------|-------|
| esan .....  | esan  |
| jasan ..... | jasan |
| egon .....  | egon  |
| jan .....   | jan   |
| eman .....  | eman  |

Infinitibo hori HIRU aditz-modutan erabiltzen da:

#### 4.11. POTENTZIALETAN (= gauza gerta daiteke, baina ez da oraindik gertatu.)

- ezin IKHUS Jinkua behin ere* (Zuberoko Gühüna) (S).
- ez lezazteke BIL* (Manezaundi) (AN).
- meza entzun gabe GERA ditezke* (G. Arrue) (G).
- ezin KONTA nitzake* (Arrue) (G).
- ezin PENTSA liteke zertara joko lukeen* (Arrue) (G).
- ezin SALBA liteke iñor* (Arrue) (G).

- bakarrik Jaungoikoak berez BARKA lezake pekatua* (Arrue) (G).
- GERTA liteke etsamiñatzeko bururik eta denborarik ez izatea; baiña ez GERTATU eta ez GERTATUKO da, eta ezin GERTA ere liteke, damu eta propositu gabe konfessio ona egiterik* (Arrue) (G).
- nola GERA zitekean bada Jesus gloriatz jantzita?* (Arrue) (G).
- ez dago izarretatik asi eta jauregi onen anditasun eta zabalera EZAGU ditzakean iñor* (Arrue) (G).
- nork KONTA litzake zeruko izarrak?* (Arrue) (G).
- ezin ASOLBI litezkeala alako batzarrak beren etxeetan iduki nai dituzten gurasoak* (Arrue) (G).
- azal zaizkigutzu beste zernai lanetan ARKI litezkean perillak* (Arrue) (G).
- gurasoak errazen KEN litzakee* (Arrue) (G).
- nola SENDA liteke len oñezaz daguana?* (Iturzaeta) (G).
- nun SAR?* (esan zion ataundar batek J. M. Barandiarani; alegia, nun SAR naiteke) (G).
- egun familia guziak dakagu eskin artetan egun guzian; eta ez gaizteke ASPER berari begira egitiaz* (Mendigatxa) (R).

#### 4.12. SUBJUNTIBOETAN (= gauza ez da egiazki gertatu.)

- behar diren xedeak HAR ditzagün* (Zuberoko GÜthüna) (S).

- ez, jauna, ez, eztüzü nahi GAL dedin bekhatoria; ÜTZÜL dadin zureganat nahi düzü (Z.G.) (S).*
- enüzü diñe zü SAR zitian ene bihotzian (Z. G.) (S)*
- enezala EZAR alagera (Z. G.) (S).*
- lasterreon SAR gaitazan kantoeko zarzaikeran (Mondragoeko kanta zaharretatik) (B).*
- agotik SAR dadinean egiten da gure aragi (Iruñeko Txapelketako olerkian, 1609) (AN).*
- gauza guzien Egille eta Jabea bera zala EZAGU zezaten (Arrue) (G).*
- algarreki izanen gira Jinkuak BERHEZ artino (Etxahun) (S).*
- esango dizuet erraz ADI zentzakeen egia au (Arrue) (G).*
- BEGIRA dezagun izar, eguzki, illargi eta zeru ederretara (Arrue) (G).*
- JARRAI zaiogun leial bere dotriña santuari (Arrue) (G).*
- obeto ikasirik GERA ditezen (Arrue) (G).*
- ADI dezazuten (Arrue) (G).*
- josirik GERA ditezen (Arrue) (G).*
- konbit zorioneko au gizaldi guzietara ZABAL zediñ (Arrue) (G).*
- agindu dit... KOMULGA nadilla, eta ondoren ESKAIN nakiela Jesus eta bere amari (Arrue) (G).*
- eta eskeintza oek BERRI ditzadala (Arrue) (G).*

- konfesore askoren artean BILLA dezagula alik onena (Arrue) (G).*
- murmurazioaren azi zitala ZABAL dedin (Arrue) (G).*
- MAITA dezagun alkar Jesukristogan (Arrue) (G).*
- indartzen zituzten seme-alabak, munduaren olatuetan ONDA etzitezzen (Arrue) (G).*
- beren seme-alabaz ardura eta kondu andi bat AR deza-  
ten (Arrue) (G).*
- guraso pobreak oroï bitez... uztarri ain gogorraren  
azpian SAR ez ditzaten (Arrue) (G).*
- orduan batak esan egioke mendi bat ara edo onera  
ALDA dezala; besteak itxasoak AGOR ditzala; onek  
eguzkia ILLUN dezala, ark gaua egun BIUR dezala  
(Arrue) (G).*
- TOPA dezala alik lasterren konfesore jakintsu bat  
(Arrue) (G).*
- ezkontzeko eguna URRERA dakieneraño gaizki bizi  
(Arrue) (G).*
- esan egijozu PRESTA dedilla azerijak ataira erakarri eta  
artutera (Mogel) (B).*
- iñuzentiak ez bagerade  
ASKA ditzagun buruak (Iturzaeta) (G).*
- zar eta gazte GERTA gaitezen  
bienabenturaduak (Iturzaeta) (G).*
- PENTSA dezagun ze oponiyo  
aundiya duen gugana (Iturzaeta) (G).*
- nere kristauak, SAIA gaitezen  
au biterteko paratzen (Iturzaeta) (G).*

- laguntasuna ESKA deiogun* (Iturzaeta) (G).
- inozente daudenak*  
*ABERTI ditian,*  
*ERREMEIA dezagun*  
*oker egitian* (Iturzaeta) (G).
- uste ezatala ONDA ez gaitzen*  
*eriotzako plazuak* (Iturzaeta) (G).
- begira deskuidorik*  
*GERTA ez dakizun* (Udarregi) (G).
- soldaduak han ditu*  
*manatzen berehala,*  
*konpañiarengana*  
*LAGUN gintzatela* (Boryel) (BN).
- xuhurra denak ez dezala*  
*okasionerik XERKA;*  
*bere usaia hala duyena*  
*nik ez dezaket debeka* (Boryel). (BN).
- Jauna, AR bazineza*  
*kanbiatzeko xedia* (Boryel) (BN).
- alegiñean SAIA gaitzen*  
*geren bizitza onian* (Imaz) (G).
- aien legera BIUR zedilla*  
*edo bularrak mozteko* (Xenpelar) (G).
- SAR lakion buruko unetraino* (Mendigatxa) (R).
- ez dezaudan ESKRIBI ilabete oroz* (Mendigatxa) (R).
- emazteak ez nezan BERANTETS* (Manezaundi) (AN).
- PRESTA nadilla ilteko* (Añibarro) (B).
- ASE eztezazun, HIGUIN etzakitzan eta GAITZETS e-*  
*tzaitzan* (Axular) (L).

—*baina hanarterainokoan, dezadan atsegin HAR, dezadan mundua ZERBITZA, nakion GOZA, nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik eztukedan bezala, ASE eta ASPER* (Axular) (L).

**4.13. INPERATIBOETAN** (= agindu bat da, bete beharrekoa; eta, horregatik beragatik, ez oraindik gertatua edo egina.)

—*HAR ezazü zelütik elkhirik* (Etxahun) (S).

—*iferniala JEITS zíte phentsamentüz, GALTHA damnatier zerk egotx dütian harat... IKHAS ezazü bizitzen Jinkuaren beldürrian* (Z. G.) (S).

—*IRATZAR adi, ene arima* (Z. G.) (S).

—*othoi, BALIA zakitzat, ARDIETS ezadazü grazia* (Z. G.) (S).

—*orai eta bethi, ARGÍ, BEGIRA, GOBERNA nezazü, eta hiltzeko orenian BALIA zakitzat, halabiz* (Z. G.) (S).

—*GEN akida ene aitzinetik* (Mendigatxa) (R).

—*PARKA beztad* (Mendigatxa) (R).

—*Labrit ene Errege  
aita seme dirade,  
Kondestable jauna  
AR bitzate anaie* (Nafarroako kanta zahar batetik) (AN).

—*arma zorrotz bat AR zazute ta  
KEN zaizkazute bularrak* (Udarregi) (G).

—*Jinkuak MADARIKA beza Gaztalondo Topetia* (Etxahun) (S).

—*Jinkuak LAGÜN bitza hoiek, nik maitha artino* (Etxahun) (S).

- KONFESA* zaitekez gaur (Añibarro) (B).
- GOGORA* eikezuz (Añibarro) (B).
- SAR* bitez amar txori mota karioletan (Arrue) (G).
- URRIKAL* bedi pekatari onezaz (Arrue) (G).
- ERREGU* bezaio ondo pekatariak (Arrue) (G).
- INDAR* zaitezte bada Jaungoikoagan (Arrue) (G).
- MAITA* zazute; baña *BEGIRA* zer maitatu bear dezuten (Arrue) (G).
- nere maiteak: ORDI* zaitezte nigan (Arrue) (G).
- SAIA* bitez irakurtze piska bat erakustera (Arrue) (G).
- AR* itzazute bada gogoan San Agustinen hitz oek (Arrue) (G).
- BUKA* ezazu asi dezun salla (Arrue) (G).
- bizi nahi badugu*  
*trankil eta uros,*  
*harma xaharra SAL eta*  
*berririk ez EROS* (Xalbador) (BN).
- arren BEDINKA* bitza  
*Goiko Jaunak* (Iturzaeta) (G).
- nork bere gurasoak*  
*ERRESPETA* bitza (Lexo) (G).
- ordu gaiztoan KEN* zaitez orrik (P. Barrutia) (B).
- KONBERTI* bidi llantua gozo, *KONSOLA* bidi mundua (P. Barrutia) (B).
- JARTzak bazkârie* (Barandiaran) (G).
- nere eskutik lore eder au AR* beza (Zapirain) (G).

- ai, jauna! BARKA beza: oraintxe obeki entenditzen diot* (Urruzuno) (G).
- ez iadi SAR atorra zazpi baratakoan* (Mendigatxa) (R).
- itzal on ekuteko, ARRIMA adi malta andiari* (Mendigatxa) (R).
- nagi: EITZ nazak xagitra, as nein lan egitra* (Mendigatxa) (R).
- KONSERBA zak gutaz asetako ganiua, berriz salutatra el gitian artio* (Mendigatxa) (R).
- jauna: KEN niganik* (Añibarro) (B).
- ez LEHIA, ez KHEXA, ez BERANTETS: sarri naiz zurekin* (Axular) (L).
- orai PHENA, orai BARUR, zilizioa HAR* (Axular) (L).

#### 4.14. PARTIZIPIO BITXI BATZU

##### PARA (ez 'paratu')

Bertsolariak maiz entzuten dituztenek ba dakite hau:

- bertso pare bat PARA dut

Hona hemen adibide batzu:

- nagusiari ejemplo onik ez diozu PARAKO* (Xenpelar) (G).
- agoztuaren ogei ta biyan PARA didate lazua, kantatutzeko ia daukadan memoriya animosua* (Xenpelar) (G).

eta Elantxobeko bati Barandiaranek hau entzun zion:



—*PARA zan umien aurrien oneri eraitten* (B).

eta Xenpelarrek beste batetan:

—*orra bertso berriyak  
Xenpelarrek PARA,  
askok jakin dezala  
nere euskara* (G).

### **SENTI (ez 'sentitu')**

—*enbustერიან engañatzen nau  
dirua SENTI dianian* (Xenpelar) (G).

—*eta SENDI bihotzian haren pena handia* (Etxepare) (BN).

—*interesa galduaren usaia SENTI dutenean* (Arrue) (G).

—*SENTI zan* (P. M. Otaño) (G).

—*estud ñontik miñik SENDI* (Mendigatxa) (R).

### **ERDI (ez 'erditu')**

Axularrek eta Haranederrek beti 'erdi zen' diote:

—*ERDIKO zaitzu seme bat* (Haraneder) (L).

—*ERDI behar duenean* (Axular) (L).

—*sagarroia, bere egitez ere, nekez ERDITZEN da* (Axular) (ez 'du') (L).

eta Fernando Amezketarrak hau esan zuen:

—*milla zortzireun urte  
dijuanarekiñ,  
Birjiña ERDI zala  
semiarekiñ* (G).

Gauza bera gertatzen da beste batzutan: PASA, AITOR (izan), t. a.

#### 4.15. 'NORAKO' ADITZAK

*'Norako' aditzek '-tu' gabe egiten dute partizipioa:*

burura .....	burura
etxera .....	etxera
mundura .....	mundura

eta 'etorkizuna' ere zuzenean eratzen dute, '-tu' erantsi gabe:

bururako  
etxerako  
mundurako

Beraz:

etxera da  
etxera zen  
etxera daiteke  
etxera dadin  
etxera bedi

Hona hemen adibide batzu:

- a) *–oren baten bürüko GANERA ziradin* (Etxahun) (S).  
(alegia: Gan herrira ziren; Gan Biarnoko herria da.)  
*–PAUERA zirenin* (Etxahun) (= Pau-era heldu zirenean)  
(S).  
*–persuna gaixo horiek ETXERA ziranin* (Etxahun) (S).  
*–ZUBIRA ginenian*  
*oro elgarrengana* (Boryel) (BN).

- ausi ezpanu barrena*  
*gaur ez nintzan ni ONERA* (Zabaleta) (G).
- puntu onetan OERA naiz, da*  
*enaiz ondo berotu* (P. Barrutia) (B).
- KANPOA zien orduko* (Barandiaranen ipuinetan) (L).
- Jauna amakin ETXERA zanian* (Barandiaran) (G).
- goroldiyozko egur batekin*  
*gero zitzaion BURURA* (Zapirain) (G).
- ai kondetxua! MUNDURA ziñan*  
*paraje penagarriyan* (Zapirain) (G).
- artzaña LOTA zanean* (Barandiaranek Motrikun jasoa)  
(B).
- eztakigu NORA dan* (Beobide) (G).
- bostgarren eguna're bazala ní ARA nintzaneko* (Urruzuno) (G).
- zerbait AURRERA ziranean, deadar egin zuen Morterok*  
(Urruzuno) (G).
- ELIZARA izanian, so egik bateiarrira* (Etxepare) (BN).
- MENDIRA zeneko* (Mendiburu) (AN).
- orok HARA behar dute eskusatu gaberik* (Etxepare)  
(BN).
- etzen HONDORA, leihorrean bezain segurki eta gogorki*  
*finkatzen zituen oinak* (Axular) (L).
- hek guziak IFERNURA ziren* (Axular) (L).
- heriotzeko ORENERA zenean* (Axular) (L).
- alderdi ARTARA zan* (P. M. Otaño) (G).

- HEGALTA ahal zitian zure hegaleki* (Etxahun) (S).
  - HEL ahal nadin salbamentiala* (Z. G.) (S).
  - entierroan izandu ziran ezin KONTA ala persona* (Zapirain) (G).
  - MAITHA ahal zitzadan egünetik egüniala haboruago* (Z. G.) (S).
  - ERAKÜTS ahal dezedan (haurrei) bethi zuretako beldür izaten* (Z. G.) (S).
  - NORATZEN ote dira?* (Mendiburu) (AN).
- b) –*geroago KONTURAKO dirala* (Arrue) (G).
- ilda NORAKO geran or dago balantza* (Imaz) (G).
  - ez ahal naiz hunengatik, hunen gauza aphurragatik eta hunen erraxki egin dudanagatik, IFERNURAKO?... hori-gatik IFERNURAKO zarela* (Axular) (L).
  - arima galdua... NORAKO da bere azken finean?* (Axular) (L).
  - bere bizitze gaixtoaren uzteko INGURUNERA zenean* (Axular) (L).
- d) –*diabruaren LEIZERA gabe alkar biagu anpara* (Lexo) (G).
- ELIZETARA gabe egon nai danak* (Lexo) (G).
  - egun harzaz orhit giten, othoi, HARA gaberik* (Etxepare) (BN).
  - gaixtoak ere ELKHARGANARIK* (Axular) (L).

#### 4.16. 'GERTA AHAL DAITEKE'

Aditz bat eta 'AHAL IZAN' aditza elkartzen direnean, INFINITIBOA (= erroa) DOA 'AHAL IZAN'EN AURRETIK; EZ PARTIZIPIOA.

—*SAR al baledi* (Arrue) (G).

—*ADI al balizaio* (Arrue) (G).

—*IKHAS ahal bazadan pharadüsüko bidia* (Etxahun) (S).

#### 4.17. 'ERAZI' ATZIZKIA (= ARAZI)

Aditz bati '-erazi' atzizkia erantsi behar zaionean, ERROA edo infinitiboa hartzen da oinharri; EZ PARTIZIPIOA.

Gaur, ordea, 'artuerazi', 'baskalduerazi', eta abar, entzuten eta irakurtzen dira.

Hona hemen adibide bakar batzu, legea irmo baita:

—*idekarazi* (Z. G.) (S).

—*luzaerazi, ukaerazi* (Arrue) (G).

—*eihar-arazi* (Etxepare) (BN).

—*arrerazi* (Imaz) (G).

—*arrerazi* (Urruzuno) (G).

—*aienarazi, illerazi, asmarazi* (Mendiburu) (AN).

## 4.2. 'HIKETA' ETA 'ZUKETA'

### 4.2.1. 'HIKETA' EDO 'HIKA'KO TRATAMENDUA

Honen oinarria beste artikulu batetan argitara nuen Euskaltzaindiaren aldizkarian (ikus 'Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz', EUSKERA, 1968, 127-137). Osatu egin ditut, ordea, neure honetan; eta, bestalde, 'Euskera' aldizkaria gutxi irakurtzen baitu euskaltzainez kanpo, hemen ezartzea erabaki dut.

Antzinako denboretan, eta ez horren antzina segidan agerraziko dudanez, erdarazko 'tú, toi' 'HI' zen; eta 'ZU' 'vosotros' zen; eta horretatik gero 'vos', eta 'zuek' delakoaren sorrera.

HIKA-ri eutsi nahi izatea, beraz, guztiz bidezkoa da, nire ustez. 'Hiketa', bestalde, bestetan esan izan den bezala, ez da bakarria euskaraz: 'zuketa' egiazko 'zuka'ko tratamendua (ikus 4.2.2), lege *berberen arabera* erabiltzen baita.

Baina HIKA hitzegitean ez da *beti* ere 'hikako' forma sartu behar (alokutiboa). Frasea SUBORDINATUA baldin bada, edo GALDERA baldin bada, 'hika'ri (eta 'zuka'ri) dagokion aldakuntza EZ DA GERTATZEN. (azkenekoa ez da beti betetzen.)

Gaur Gipuzkoan, eta idazle berrien artean, askotan entzun edo irakur daitezke modu honetako esakuntzak:

- etorri dukala esan dik
- joan dukan gizona harrapatu ditek
- nor erori duk hire ustez?

Gero frogatuko dugunez, hiru esaera horik gaizki daude; eta euskaldunek hau diote horien ordezt:

- etorri DELA esan dik
- joan DEN gizona harrapatu ditek

—nor erori DA hire ustez?

(nahiz askotan “nor erori DUK” ere entzun.)

#### 4.211. ‘ZU’ = vosotros, vous (gaur arkaikotzat uztekoa, agian)

Orain dela oso gutxi arte ‘HI’ ‘singular’ bakarra izan dela frogatzea ez da zaila:

a) Aditzak berak erakusten duenez, euskalki *guztietan*, ‘zu’ri dagokion aditzak pluralizatzaile bat beti eraman du; eta ‘hi’ri dagokionak inoiz ez.

b) Aski da Barandiaranen Ipuin-Sorta bikaina aztertzea, pasadizu eta istorio zaharretan ‘hiketa’ nagusi izan dela ikusteko.

d) Aspaldiko atsotitz edo errefracuetan, ‘hiketa’ erabiltzen da oso maiz, baita sintetiko harrigarritan ere:

*‘arraika ahuntzari,  
agozke kaparrari’* (Oihenarte)

e) Baserritarrek eta arrantzaleek (alegia, gaur bertan ere eskuarki euskaraz ari direnak) hika egiten duten kasuetan, erdi-erdaldun diren kaletarrek ‘zuka’ra jotzen dute. ‘Hiketa’, horretara, euskalduntasunaren neurri da.

\* \* \*

Baina, era berean, eta hau ez da ene ustez behar bezala nabarmen-erazi, ‘zu’ orain dela gutxi arte ‘vosotros, vous’ izan da, Bizkaian batez ere.

Hau horrela izanik, alferrik dirudi hiketaren jatortasunaz denborarik laburrena ere galtzeak. Eta tamalgarri dira, honi buruz, Azkuek utzitako iritziak.

Gogora dezagun, hain zuzen ere, Azkueren beraren lekukotasuna aurrenik (ikus 'Morfología Vasca', 554 gn. orr.):

"En Nabarniz, ancianos que hoy viven (consulté el mes de septiembre de 1924 con Teresa Gorriño, de 76 años), dan siempre al agente 'zu' la doble significación de vos y vosotros: 'egin dozu zuek' habéis hecho vosotros. Eso mismo observó por entonces en Elgoibar nuestro colaborador el señor Baehr.

"En Eibar y Soraluze (Placencia) el paciente 'z' de 'zara, zagoz, zatoz'... es vos y vosotros; nunca dicen 'zuek zare, zagoze, zatoze', sino 'zuek zara, zagoz, zatoz', vosotros sois, estáis, venís; pero el 'zu' agente no es más que vos: 'egin dozu' vos lo habéis hecho, 'egin dozue' vosotros... etc.

"Hasta ocho ejemplos, tomados de autores bizkainos, figuran en el Diccionario en la tercera prueba de la pluralidad originaria de 'zu', pág. 466, col. 3. El autor más fecundo en tales flexiones es sin duda el de 'Icasquizunac'.

"No resisto a la tentación de exponer aquí parte de la séptima estrofa de la canción popular festiva 'Ezkondu nintzanean', también bizkaina:

—'Gazteak, entzun dozu neure kontsejua'"

'Zu', beraz, 'vosotros, vous' izan baldin bada, dudarik ez da 'hi' 'tú, toi' dela; *eta dagozkion aditz-aldakuntzak zaharrak direla*. Aldakuntza hau berberak dira Euskal Herri guztian.

Askotan, Azkue jarraituz, Frai Bartolome aipatzen da soilki (nahiz Azkuek berak Mogel ere aipatu). Gogora ditzagun beste batzu:

—*fantasiarik EZTAGIZULA*

*serafin* eskojituak (Iruñen saritutako olerkia, 1610)  
(AN).



- ene seme alaba txipi* laztantxoak: *ofizio zital ori UTZIE-GIZU, biurtu ZAITEZ* (Ozaetako Luzuriaga arabarrak) (B).
- atsegin ar EZAZU*  
*Belengo* pastoreak (P. Barrutia) (B).
- Pastoreak: *ea, barrura sar ZAITEZ, jaio dan Jaun onekin konsola zaitetz* (P. Barrutia) (B).
- neure mutill* onak: *iges EGIZU gaurko neskatilletati. Jaungoikoak eukiko dau zubentzat berak artuten dabena. ETZAITTE inos ezkondu neskatilla naasi, baldan eta mutilzaleagaz, aberatsa bada bere* (Mogel) (B).
- mutillak: bota DEUTSEZU jaatekua idijai?* (Mogel) (B).
- gizon* onak: *jaso NAGIZU ta ezarri oera* (Mogel) (B).
- Nor da?* —*Umiak: zeuben aita, EDEGIDAZU atia* (Mogel) (B).
- agur, adiskidiak; ondo etorriak izan ZAITIALA* (Mogel) (B).
- pranzas ta kiputza: zer DINOZU zuek?* (Mogel) (B).
- agur gizonak... jarraitu EGIJEZU orain artu dozuben bide ta lanari* (Mogel) (B).
- ni ez eze, abade jauna bere lotsatuta jua da, ikusirik zubek DAKIZUNA* (Mogel) (B).
- zeubek DAKIZU, neure entzula* onak (Frai Bartolomé) (B).

Zoru sendoan finkatzen dugu oina, beraz, 'hiketa' aztertzean.

#### 4.212. 'Hika'ren aldakuntzak

Eman ditzagun sei esakuntza xoil hauk:

etorri nauk  
etorri haiz  
etorri duk  
etorri gaituk  
etorri zarete  
etorri dituk

Hika beti ere, erants diezaiegun 'aurrizki' (= prefijo) bat, eta 'atzizki' (= sufijo) bat: 'bait-' eta '-lako'. Sei esakuntza horiek beste sei hauk ematen dituzte:

etorri naizelako	etorri bainaiz
etorri haizelako	etorri baihaiz
etorri delako	etorri baita
etorri garelako	etorri baikara
etorri zaretelako	etorri baitzarete
etorri direlako	etorri baitira

Hauta ditzagun, orain, beste sei:

ekarri diat, dinat  
ekarri duk, dun  
ekarri dik, din  
ekarri diagu, dinagu  
ekarri duzue  
ekarri ditek, diten

Era berean, 'bait-' eta '-lako' erasteen, hauk bihurtzen dira:

ekarri dudalako	ekarri baitut
ekarri dualako, dunalako	ekarri baituk, baitun
ekarri duelako	ekarri baitu
ekarri dugulako	ekarri baitugu
ekarri duzelako	ekarri baituzue
ekarri dutelako	ekarri baitute

Gauza bera baldintzazko "ba-" erasten zaionean, Lafon-ek bereziki esana zuenez: "Ba *suppositif ne peut pas s'ajouter normalement à des formes allocutives*" (La Langue Basque, p. 103).

Hortaz, 'hika' hitzegitean, hikako aditzei aurrizki edo atzizki bat erasten zaionean (alegia, frasea 'subordinatu' bihurtzen denean) 'hiketa'tik aditz-joko *normalera igarotzen da*. Hauxe omen zen Erronkarin paradigma normala biltzeko modu bakarra; bestela beti aditz-kerak 'alokutiboak' erabiltzen baitzituzten: euskara osatuan, 'erran zian, zinan, zizun', 'erran zuen'en ordeztu.

Aldakuntza berbera gertatzen da esakuntza bat GALDERA bihurtzean. Sei horiek, esate baterako, galdera hau ematen dituzte:

ekarri ote dut?  
ekarri ote duk? dun?  
ekarri ote du?  
ekarri ote dugu?  
ekarri ote duzue?  
ekarri ote dute?

Hitz batez: *nagusi ez diren esakuntzetan eta galderetan, paradigma normala erabiltzen da*; eta ez 'hika'koa. Edo-ta, alde-rantziz, 'hika'ko aldakuntzak ez dira gertatzen esakuntza *nagusietan baizik*.

Errelatiboak '-n' darama, eta subordinazio-mota bat da. *Errelatiboetan beraz aditz normala erabiltzen da*.

Argi dezagun hau etsenplu mordo baten bidez. Ekialdetik hasi eta Mendebalderaino:

(R) **erronkarieraz**

—*orrastatan BAITA narago, ez duk yire bizia izanen kain luze* (Mendigatxa) — Erronkariko adibide guztiak Mendi-gatxarenak dira.

- nola ez BAITU kanbat ekusten, ezkapatan yazanean, ez yai ekusten lasterrari emoiten.
- ni ebiltan BAINAZ erri anitxetarik, anitx ekusten dian.
- korregatik biar dadan erran zer DEN emaztekoa.
- atziriten gutuk amabi urratsez kantik, arrankaten gutuk beingoan;
- eta lein eltan GRENA yiri tokatra, eitzen gutuk libre.
- zarrarnian ekunen duk berze esprantxa bat.

### (S) Zubereraz

- habil, eta so egin ezan gizonik DENEZ agiri (Berterretxeren kantatik).
- zertako hainbeste malezia dük enetako; zeren M. Berdolién altea etxekitzen DUDALAKOZ? (Candau).
- hura DELA kausa kexü hiz (Candau).
- hi eregetiarra bekaitz behaiz, zeren Frantzia trionfan juiten DELAKOZ;  
zeren nahi baihüke lehen bezala errege baten esküpián bizi GITIN (Candau).
- eñan ez igorriren, hik ni, Iratirat,  
ez Holtzarterat ere, gütig'Arbotirat,  
sarrí ni jinen BENIZ Elhartxüniálat (Etxahun).
- pheza ezak untsa hitz hoien indarra: Jinko bat, zuiñek ikhusten behai. Jinko bat bere graziareki; mement bat, zuiñ EZPEITA deus (Zuberoko Güthüna).
- ikhus ezak, ene arima, nula Jesús ezintürík erorí ZEN khürütxiaren pian (Z. G.).

—*hire egitate itxusi eta gormandizak DIELA kausa, izan dük hola erabilirik (Z. G.).*

—*basa-gizuna zuñ DEN, harek badakik (Etxahun).*

(BN) **baxenabarreraz**

—*nor uste duk NIZALA? (Etxepare)*

—*horlako bat ez duk uste  
nik ikusi DUDALA? (Etxepare).*

(AN) **nafarreraz**

—*hik ere bide bera deramak, ez DEA hala, Manez? (Manezaundi).*

—*abiatu nuk hunat, hea eskale hobeagorik gertatzen DEN (Manez).*

—*oraiko egunetan ustegabe gertatzen ez DENIK ez duk (M.).*

—*ikusdik han gelditzen DIRENAK (M.).*

—*hire ezpainetarik entzun DITUDANEKIN, badiat aski eremu madarikatu hek higuintzeko bizi NIZENO (Man.).*

(G) **gipuzkeraz**

—*bestela parra egingo ditek  
begira DAUDENAK (Xenpelar).*

—*ezur igarrak autsitzen dizkik  
indarra DUENAK (Xenpelar).*

—*bañan esperantzetan natxiok  
alkar joko DEGULA nundik edo andik (Txirrita).*

—*i bizirik aizela  
etortzen BANAIZ ni (Txirrita).*

- ni txakurren bat NAIZELA uste al dek, makilla orrekin jotzeko?* (Arrue).
- etzekiat zenbat diru DAGOEN: baña esaten diat, lengo zarren esaera DALA, eta egi aundia, Jaungoikoak laguntzen DIOLA goiz jaikitzen DANARI* (Urruzuno).
- ai zan: gure etxiak eztiñ eskelerrarik. Ez al dakiñ piso llanuan bizi GERALA?* (Urruzuno).
- zerbait ere ezagun dek gaur puntu artua, EZTALA kantu-truka karga artua; aurten egiñagatik preziyo bajua, geienean utsa dek guk DEGUN zakua* (P. Amezketarra).

#### (L) Iapurteraz

Oso irakurgarri dira, honi buruz, Duhalderen 'Meditazioneak': 146 gn. orrialdetik aurrera ba dago zer ikusirik 'hika'ri buruz. Esakuntza batzu hautatuko ditugu izkribu ugari horretan:

- bahiakien eta sinhetsi duk ni NINTZELA hire egilea, hire nausia, hire jabea; bahiakien hire obligazione hertsia ZELA, adin, egun eta mement guzietan ni zerbitzatzea, ta nere lege seindua phondu guzietan begiratzea; hala ikhasi huen, ala sinhetsi duk.*
- Bainan hik, ô zoratua! Hain erhoki, ezdeus batengatik, galdu duk zeru eder hau; zabaldu dituk ilhun hetako atheak, berriz phiztuta bertzela izanen ZIREN baino miletan ikharagarriago egin suzko elementa hek.*
- hire arima ta hire gorputza hautatu nitojan nere tenplutzat; bainan, ô sakrilejioa! Zenbat aldiz eta zenbat*

*gisetara eztuk profanatu, likhistu, lohitu nere tenplu bizi, harrizko ta zurezko Eliza baino miletan sakratuago ZEN hori?*

Eta Axularrenetik beste bi hauk:

*—zerk aratza hor, alfer nagia? Nik atzo hik baino bide gehiago iragan nian; inguratu BAINUEN mundu guztia; eta orai ere hi baino goizago jaiki nauk.*

*—horrela duk, bada, munduko erhokeria ere. Uste BAITUTE bekhatoreek bekhatu anhitzekin, karga pisuarekin, hobeki jaikiko DIRELA arinarekin baino.*

#### (B) bizkaieraz

*—badakik DATORREN zapatuan gurean ze egun DAN (Azkue).*

*—etxean ez BADAGO, neu nok Doistuko sakristau ori (Azkue).*

*—esa eutsan onek: zer darabilk emen lapur zital orrek? Iri guztiak deubee gorroto. Elizaan DABILTZANAK, erua-ten ditubazalako ill gura jituben eperrak (Mogel).*

## 4.22. 'ZUKETA' EDO 'ZUKA'KO TRATAMENDUA

Har ditzagun sei esakuntza, egiazko 'zuka' idatzirik:

etorri nauzu  
etorri zara  
etorri duzu  
etorri gaituzu  
etorri zarete  
etorri dituzu

Erants diezaiegun 'bait-' eta '-lako', gorago egin dugun beza-  
la:

etorri naizelako	etorri bainaiz
etorri zarelako	etorri baitzara
etorri delako	etorri baita
etorri garelako	etorri baikara
etorri zaretelako	etorri baitzarete
etorri direlako	etorri baitira

Eman ditzagun orain beste sei hauk:

ekarri dizut  
ekarri duzu  
ekarri dizu  
ekarri dizugu  
ekarri duzue  
ekarri dizute

eta 'bait-' eta '-lako' erantsiz gero, hauk ematen dituzte:

ekarri dudalako	ekarri baitut
ekarri duzulako	ekarri baituzu
ekarri duelako	ekarri baitu
ekarri dugulako	ekarri baitugu
ekarri duzelako	ekarri baituzue
ekarri dutelako	ekarri baitute

Beraz: *'hiketa'n bezalaxe, nagusi ez diren esakuntzetan, eta galderetan, paradigma normala erabiltzen da;* eta ez 'zukakoa'. Edo-ta, alderantziz, *'zuka'ko aldakuntzak ez dira gertatzen esakuntza nagusietan baizik.*

Egiazko 'zuketa', beraz, eta uste denaren kontra, *galduago dago 'hiketa' baino.* Ez, halere, Euskal Herri guztian: Baxenabarren eta Zuberoan bizirik dago gaur ere; eta Erronkarin (Nafarroan) bizirik iraundu zuen euskalkia iraungi arte.



Ahalean eutsi behar zaiola esanez, berriu besterik ez dut egiten Azkueren eta beste euskaltzaleren iritzia.

Bi izkribu birlandatuko ditut eredu gisa.

Lehenengoa, erronkarieraz idatzia, Mendigatxarena da:

*—Iror mazte zitiozun urutan: ama, alaba ta errena. Sua lotu zunien, eta ezezen nai ixiki, eta zarrak erran ziezun: ile xuria bera argi. Alabak erran ziezun: lua bera ori tzu. Erranak (ilea beltz baziozun) erran zion: ile beltza tira eta murteka. Ñork ezion sua ixiki. (Ia osoki ongi).*

Bigarrena, Etxausko Beñat Artzapizpikuaren gutun bat da (1584):

*—Ene anaie jauna,*

*Hunekila hirugarrena dikezi ezkribatu DARAUZU-DALA. Batez ere arroposturik eztizit ukhen, zoinez phena BAITUT, zure berri hunen jakin gabiaz, bai eta halaber aitaren eta amarenez. Heben ahal bezala nuzu: hortik jalgiz geroz, zamariak pentsaraziten dirauztazu, NITIEN arropa guziak higatu BAITITUT, eta enizi pagatu nahi. Kontxit galdegin dirakozut eta erran diraudazu Kontxit de Gaskon nahi DUDANEZ, hura emanen DARAUDALA. Berze zerbizariak orok utzi dizie eta batre eztizi pagatu nahi ukhen. Seguratzen zitut ezi gizon terrible bat DELA. Guthun haur DERAMENA etxeko zerbizari bat duzu. Othoi egiten darauzut zure berri hunen eta aita amenez ezkribatziatz, zoin BAITA gauza desiratzen DUDANA. Iehiaz eztarazut ezkribatzen luzazago; fin egiten dizit presenteko hunezaz, Jeinkoari otoi egiten DARAKODALA zaduzen osorik eta alegerarik bere grazia sainduyan, eta ni ere halaber zurian.*

Patuaren bitxikeriak dira hau; eta euskaldun artzapizpiku famatua piztuko balitz, eta hilobitik atera, harrituta geldituko litzateke bere gutun izkutu hura gramatika-modu honetara erabilia ikusita...

#### 4.23. 'DIAT / DERAUAT', 'DIZUT / DERAUTZUT'

'Hiketa' eta 'zuketa' aztertu ondoren guztiek ba dakite hau, eta dagoeneko irakurleak igarria duke: gipuzkeraz nahasketa bat dugu. Gipuzkerak ez ditu 'diat' / 'derauat' eta 'dizut / derautzut' sailak berezten. Beste euskalkiek bai; eta lapurterak bereziki arras ongi.

Eman dezagun esakuntza normal hau:

—etxe bat erosi DUT

'Hika' eta 'zuka' jartzeko, honela aldatuko dugu:

—etxe bat erosi diat (= dinat.)

—etxe bat erosi dizut.

Nahaspidea zertan datzan ageri da; zeren-eta:

—etxe bat erosi diat (nik HIRI erosi)

—etxe bat erosi dizut (nik ZURI erosi)

beste adierazkizun desberdin bat izanik ere, hitz berberak ageri baitira. (Gipuzkeraz.)

Lapurtar batek ez luke nahaspide hori izango:

—etxe bat erosi diat (erosi dut, hika)

—etxe bat erosi derauat (erosi diat NIK HIRI)

—etxe bat erosi dizut (erosi dut, zuka)

—etxe bat erosi derautzut (erosi dizut NIK ZURI)

Hau dela-ta, gaurko idazle batzu, Aresti buru, 'nor-nori-nork' duten aditzentzako gipuzkera oinarritzat hartzearen kontra agertu dira, lapurterari bidezkoagotzat iritziz.

Hizkuntza-mailako arrazoinak soilki kontutan hartuz gero, lapurtera (berriz ere!) gipuzkera baino hobea eta jatorragoa dela ez da dudako gauza.

Euskara Batua-rentzako, halere, nahasketa iturri horri jaramonik ez eginik, "diat, dinat, dizut" eta "nian, ninan, nizun" hautatu dira. Ez baita denen gustoko erabaki gertatu...

### 4.3. 'DATE' / 'DUKE'

Har ditzagun 'izan' eta 'edun' en orainaldiak:

naiz	dut
haiz	duk, dun
da	du
gara	dugu
zara	duzu
zarete	duzue
dira	dute

Lehenengoari '-te' eta bigarrenari '-ke-' erantsiz gero hauk irtetzen dira:

naizate	duket
haizate	dukek, duken
date	duke
garate	dukegu
zarate	dukezu
zaretete	dukezue
dirate	dukete

Aditz-joko hau, antzina euskalki guztietan bizirik, gaur Iparaldeko euskalkietan ez bestetan dago bizirik.

1. Bere adierazkizuna hau da:

date (= dateke) = izango da (será, sera).

duke = izango du (habrá, aura).

Entzun dezagun Mizpiratzegiren iritzia (Mizpiratzegi zuberotarra baitzen, eta aditz-joko hau Zuberoan erabiltzen baita gaur gehienik) : "futur sans auxiliaire: je serai, tu seras... j'aurai, tu auras".

Hortaz:

hil da = ha muerto, il est mort

hil date = habrá muerto, il sera mort

erosi du = lo ha comprado, il l'a acheté

erosi duke = lo habrá comprado, il l'aura acheté

2. Honetatik bere USTEZKO iritzia hartu du, erdaratik itxuraz:

—gaur elur egin du = ha nevado, il a neigé (egiaz, objectivement)

—gaur elur egin duke = habrá nevado, il aura neigé (ustez, il me semble qu'il a dû neiger, subjectivement)

*Bigarren* adierazkizun honetan, ez da *futuro* hutsa, USTEZKO gertaera bat baizik. Baxenabarren honela erabiltzen da gaur, eta Laffittek alde honetatik hartzen du bere Gramatika famatuan. Baina, *jatorriz*, eta izkriburik segurenetan, *futuro hutsa* da. (Hots, gertakizuna, jakina denez, ez dago gure eskuetan; eta horretatik ere USTEZKO kutsua. Hizkuntza askotan gertatzen da gauza bera: ingleseseraz eta alemaneraz, esate baterako.)

3. *Ohar bat*: 'date' eta 'dateke' ez dira *potentzialak*. Potentzialak, gero erakutsiko dugunez, \*'edin' aditzetik datoz, eta *infini-tiboarekin* erabiltzen dira. 'Date' saila, aldiz, 'izan' aditzetik dator, eta *partizipioekin* erabiltzen da. (Axularrengan berarengan ere bai, nahiz askotan 'ahal dateke' eta 'ezin dateke' irakurri ere, zergatik garbi ikusten ez dudala; ezta A. Omaetxebarria zorrotzak ere.)

Hona hemen adibide sorta bat:

- Josafaten BADATE heiaigor egile,  
gü jüj'izan gabe,  
Jesüs han BEITATE:  
gütiala bere!  
Aski BATÜKEGÜ nurk guriak ere!* (Etxahun) (BN).  
(azken egunaz ari da.)
- denbora batentako Pürgatoríualat, nuntik, egin DÜKIA-  
NIAN aski satisfazione... juanen beita zelialat* (Z. G.) (S).
- zer begiz so eginen dügü lürreko huntarzüner, ützi  
behar TÜKEGÜNIAN?* (Z. G.) (S).
- zer DATE mündüko plazer, uhure, edertarzüñ, ürhe eta  
zilharrez?* (Z. G.) (S).
- hiltzeko orenian ageri DIRATE diren bezala* (Z. G.) (S).
- bona, hiltzeko orenian, ez DATE ardü!* (Z. G.) (S).
- Jinkuaren aitziniala agertü behar düten egün batez, egin  
DÜKEDAN untsa edo gaixki oroz jüjatürük izatera* (Z. G.)  
(S).
- zer erranen düten ikhusten TÜKEDANIAN* (Z. G.) (S).
- (jüjamendiaren egünian) zer DATE arren bekhatore-  
tzaz?* (Z. G.) (S).
- penitentziarik egin ez DÜKIAN bekhatoriak, zer senten-  
tzia egürüki behar DÜKE?* (Z. G.) (S).

- bizitzerik xüxenena ere eruan DÜKIANARENTAKO, zorthe gaitza DÜKEZÜ, Jauna, zük miserikordia gabe jüjatzen badüzü (Z. G.) (S).*
- denbora balin bada kofesa aitzinetik, net hun DATE undoko hoién irakurtia (Z. G.) (S)*
- gü hil GIRATEKIANIAN (= ‘après que nous serons morts’, Mizpiratzegi) (S).*
- Ni zertako jaió nínzan? Salba nendin. Il bear BAITUKET ník? Bai, gertu DATE (ikus Mitxelenaren T. A. V.).*
- bide dela jaten badu graziaz Jainkoa DATELA (1609, Iruñe, ikus T. A. V.) (AN).*
- lekhü ederren haitatzez, kargüdünak gora, gü taula petan GIRATEKE, jende gradoz aphala! (Etxahun) (S).*
- nuíz DÜKEGÜ plazera zure juiten ikhustekua eztügü nígarrik eginen (Etxahun) (S).*
- jokatüren deregü plazér DÜKIENIN (Etxahun).*
- gaxo ene lagüna, urthuki nüdüzüna, pharkatürik DÜKEZÜ zük egin ogena (Etxahun) (S).*
- Jinkuak ber batzarri dereizüla zelin zure azken orena DÜKEZÜN egünin (Etxahun) (S).*

Beñat Etxeparek ere etsenplu onak ditu (BN):

- ordu hartan afer DATE hari apellatzia*
- behar-orduian EZTUKEGU gero agian aitzina*
- arimaz aski egiteko BADUKEGU orduian*
- hantik harat EZTUKELA bothererik jagoitik*

- egun hartan juje DATE mundu ororen jabia*
- bekhatoren kontra DATE orduian mundu guzia*
- non DIRATE egun hartan hebengo jaun erregiak?*
- amoretan othe DATE leial denik bat ere?*
- bekhatuzko amoria bethi DATE traidore*
- erioa dauginian egia sogeri DATE*
- hartu den plazer oro orduian iragan DATE (= sera pas-sé, habrá pasado).*
- hala egin bedazagu, ohoratu GIRATE*
- ni zugatik hil banadi kargu handi DUZeku.*
- bata bertzearen ondoan dohazi, halako moldez ezen adina datorreneko, akhabatu BAITIRATE leheneko guz-tiak (Axular).*
- baldin ken baitzaitzu alferkeriak, galdu DIRATEKE kupi-doren arkuak (Axular).*

Eta hona hemen, bukatzeko, ustezko kutsua duten bi esakuntza, baxenabartarrak biak:

- zori honian sortu DATE haren besoan datzana (Etxepa-re) (BN).*
- arbola bizi deno  
BADUKE itzala.  
beraz balaike fruitu  
ekar dezakela;  
baina nork du nahiko,  
nork DUKE ahala,  
Aldude ezartzeko  
lehen zen bezala? (Xalbador) (BN).*

#### 4.4. 'JAIKI BANADI' / 'JAIKITZEN BANAIZ'

Har ditzagun euskal aditz hauk (= subj.):

jaiki nadin	jaikitzen naiz
jaiki hadin	jaikitzen haiz
jaiki dadin	jaikitzen da
jaiki gaitezen	jaikitzen gara
jaiki zaitezen	jaikitzen zara
jaiki zaitezten	jaikitzen zarete
jaiki daitezen	jaikitzen dira

(para que me levante,  
pour que je me lève.)

(me levanto,  
je me lève.)

(Teoriari dagokienez egokiago litzateke oinarritzat *potentziala* hartzea; baina didaktikoago eta ulerterrezago zait honela azaltzea.)

Erants diezaiegun 'ba-' aurrizkia:

jaiki banadi	jaikitzen banaiz
jaiki bahadi	jaikitzen bahaiz
jaiki badadi	jaikitzen bada
jaiki bagaitez	jaikitzen bagara
jaiki bazaitetz	jaikitzen bazara
jaiki bazaitezte	jaikitzen bazarete
jaiki badaitez	jaikitzen badira

(Potentzialetik ere atera daitezke, '-teke' kenduz.)

Egin dezagun gauza bera transitiboetan:

jaso dezadan	jasotzen dut
jaso dezaan	jasotzen duk
jaso dezan	jasotzen du
jaso dezagun	jasotzen dugu
jaso dezazun	jasotzen duzu



jaso dezazuen

jaso dezaten

jasotzen duzue

jasotzen dute

'Ba-' erantsiz:

jaso badezat

jaso badezak

jaso badeza

jaso badezagu

jaso badezazu

jaso badezazue

jaso badezate

jasotzen badut

jasotzen baduk

jasotzen badu

jasotzen badugu

jasotzen baduzu

jasotzen baduzue

jasotzen badute

'Banadi / badezat' eta 'banaiz / badut' sailak gauza *desberdina* dira. Lehenengoak 'infinitiiboarekin' doaz, bigarrenak 'aditzizenarekin':

eror banadi

etor badadi

itzul bagaitz

bazkal badezak

ikus badezate

erortzen banaiz

etortzen bada

itzultzen bagara

bazkaltzen baduk

ikusten badute

Baina 'jaiki banadi' saila galdu ala, 'jaikitzen banaiz' nagusitzen ari zaio, bien arteko semantikazko hedadura lehenengoak hartuz.

Gaur maiz entzun daiteke, esate baterako:

—kontuz! *jaikitzen banaiz ikusiko duzu!*

Mikoleta zaharraren arabera, beste hau esan beharrean:

—kontuz! *JAIKI BANADI ikusiko duzu!*

(¡ojo! ¡ya vas a ver si me levanto! = attention! vous allez voir si je me lève).

Alegia, hori esan dezanak, *jaiki egin daiteke*; eta, mehatxu gisa, edo agintza gisa, *egin dezakeena* aipatzen du. Omaetxebarriak, horregatik, puntu hau beharbada sakonkienik aztertu dituen euskaltzaleak, 'superpositivo del POTENCIAL' bataiatu du aditz-

-modu hau; egin *daitekeen* zerbaiti buruz ezartzen baita 'ba' baldintza. Alegia: 'jaiki egin naiteke ni; beraz, kontuz: jaiki banadi berandu izango da, eta jipoi galanta hartuko duzue!'

'banadi / badezat', bestalde, \*'edin' eta \*'ezan' aditzetatik datoz: baldintza SUBJETIBOEN mailan gaude, beraz, kondaira-mailatik at: gerta liteke noizpait.

'Jaikitzen banaiz', berriz, beste gauza bat da. Esate baterako: 'beti berandu jaikitzen banaiz, ohartu egingo dira azkenik lantegian'. Baldintza hau, beraz, OBJETIBOA dela esan daiteke; eta 'izan' eta \*'edun' aditzez ezartzen da kondaira mailan, beraz: gertatua da, ala ez.

Funtsean, jakina, *itxura / denbora* arazoa datza. Honengatik "jaiki banadi" puntukorragoa da, *behin* gerta daitekeen gertaera bati buruz egokiagoa; "jaikitzen banaiz", berriz, zabalago dela, eta *behin baino gehiagotan* gertatzen direnei buruz erabiltzeko modukoa.

Hona hemen adibide jator batzu:

- eta ZATI BADEZAZU ere,*  
*zati nai duzunetan,*  
*beti osorik gelditzen da*  
*len zedukan guztian* (Iruñeko Txapelketa, 1609) (AN).
- au GUARDADU BADAGIZU, nik prometietan deusut*  
*zure Jaunaren reñua* (hirugarrendarren agintza zaharra) (B).
- JUAN BANAKIJO daguan lekura, irakatsiko deusat*  
*zelan berba egin* (Mogel) (B).
- hongí EGIN BADEZAZU, segur parabisuia* (Etxepare) (B).
- HIL BADADI, hura nola nor doake gainera* (Etxepare) (BN).

- ni zugatik HIL BANADI, kargu handi dukezu (Etxepare) (BN).*
- nork kidatuko, nork ostatatuko du, zuk EZPADEZAZU (Axular) (L).*
- hala nola segur baita, inihurriak bezala EGIN BADEZAGU, gure uda, gure gaztetarizona, ENPLEGA BADEZAGU obra onetan, Jenkoaren zerbutzian, jin dadinian gure negia, herio beltza... ukhenen dugu (Tartas) (S).*
- hala EGIN BADEZA, bertze mundian ukhenen du gose errabiatia (Tartas) (S).*
- usantza hura ITZUL BADADI bertze aldera... edirenen da bekhatuaren bide hura bera errax, atsegin eta plazent (Axular) (L).*
- eztu behin ere Jainkoak uzten gizona, baldin lehenik gizonak UTZ EZPADEZA Jainkoa (Axular) (L).*
- bere adinik hoberenean HIL BADADI (Axular) (L).*
- (zahartzean) baldin orduan EROR edo ETZAN BADADI, ezin jaiki baititeke (Axular) (L).*
- baldin KONTSIDERA BADITZAGU gaingiroki, azaletik eta kanpotik, bada hauk baino handiagorik. Ordea, baldin HAR BADEZAGU barrena, mamia, edirenen dugu... (Axular) (L).*
- ezin KOFESA BADADI, ez MINTZA, eta ez deusetan ere MANAIA, asko da orduan barren ona, borondatea (Axular) (L).*
- dudan guztia probei EMAN BADI AZET ere, eta neure burua erratzera UTZ BADEZAT ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut (Axular) (L).*
- deus honik ene librian EDIREN BADEZAZU (Tartas) (S).*

- hala EGIN EZPADEZAZU, jakin ezazu (Tartas) (S).
- baldin EZPADETZAT IKHUS... EZPADEZAT EZAR...  
EZPADEZOT SAR... ez dut sinhetsiren (Haraneder) (L).
- baldinetaria norbaitek ENTZUN BADETZA ene hitzak,  
eta EZPADETZA BEGIRA (Haraneder) (L).
- norbaitek nitan SINHESTS BADEZA (Harander) (L).
- baldin urthe heken buruan JAR BAGAITEZI hetzaz zer  
egin diren gogoetan, eztugu deus edirenen (Axular) (L).
- JAGI BANADI, itxiko deustat moltsuarekin aoa (P.  
Barrutia) (B).
- bardin OSA BANADI  
laster da ondo egingo deustat  
pagu erreala beroni (P. Barrutia) (B).

## 4.5. 'JAIKI BANENDI' / 'JAIKIKO BANINTZ'

Har ditzagun euskal aditz joko hauk:

jaiki nendin	jaikiko nintzen
jaiki hendin	jaikiko hintzen
jaiki ledin	jaikiko zen
jaiki gintezen	jaikiko ginen
jaiki zintezen	jaikiko zinen
jaiki zintezten	jaikiko zineten
jaiki litezen	jaikiko ziren

Erants diezaiegun 'ba-' aurrizkia:

jaiki banendi	jaikiko banintz
jaiki bahendi	jaikiko bahintz

jaiki baledi  
jaiki bagintez  
jaiki bazintez  
jaiki bazintezte  
jaiki balitez

jaikiko balitz  
jaikiko bagina  
jaikiko bazina  
jaikiko bazinate  
jaikiko balira

(si me levantase,  
si je me levais.)

(si me levantase,  
si je me levais.)

Egin dezagun gauza bera transitiboetan:

jaso nezan  
jaso hezan  
jaso lezan  
jaso genezan  
jaso zenezan  
jaso zenezaten  
jaso lezaten

jasoko nuen  
jasoko huen  
jasoko zuen  
jasoko genuen  
jasoko zenuen  
jasoko zenuten  
jasoko zuten

'Ba-' erantsiz:

jaso baneza  
jaso baheza  
jaso baleza  
jaso bageneza  
jaso bazeneza  
jaso bazenezate  
jaso balezate

jasoko banu  
jasoko bahu  
jasoko balu  
jasoko bagenu  
jasoko bazenu  
jasoko bazenute  
jasoko balute

(si levantase,  
si je levais.)

(si levantase,  
si je levais.)

Ageri den bezala, erdaraz bi aditz-aldi hauek ez dute diferentziarik; eta horretatik heldu da euskaraz gero eta nahasiago ego-tea, bigarrena lehenengoari nagusituz.

Bi adizkera hauk, ordea, desberdinak dira osoki: a) Lehenengo \*'edin' eta \*'ezan' laguntzaileetatik dator, eta *subjeto* edo ustezko kutsua du, *potentziala* baita. Alegia: *egin daitekeen*, edo gertatzea benetan *nahi genukeen* edo *bildur ginatekeen* zerbait azaltzeko erabiltzen da, 'jaiki banadi' saila bezala. Bigarrena, aldiz, 'izan' eta \*'edun' laguntzaileetatik dator, eta *objeto*tasuna daxekeo, gure eskuetan ez dagoen zerbait azaltzeko, edo gertatzea berdin zaiguna. Alegia, baldintzaren obratzea ala ez obratzea ez dago gure ahalmenean. Kanpotik edo gaineratik datorkigu baldintza: 'hilko ez bagina', 'haur inoiz izan ez bagina', 'mundua bihar amaituko balitz', 'Jaungoikorik ez balitz', eta abar. Omaetxebarriak ongi dio: 'irreal' dela baldintza, gure eskuetan ez dagoelako. Lehenengoak, hortaz, *infinitivo* behar du (ETOR baledi, GERTA baledi, EROS baneza); eta bigarrenak, alderantziz, *partizipio*tik datorren 'futuro-ki'a (ETORRIKO balitz, GERTATUKO balitz, EROSIKO banu).

Azal dezagun adibide batez:

—*SAR BALITZA Justiziak hamar gizon gartzelean barrena urkabera kondenaturik; eta handik ATERA BALITZA egun bat, eta bihar edo bertze egun batez bertze bat edo bia; ote lizateke nehor ere heken artean bizitze luzearen esperantza luenik?* (Axular) (L).

Beraz: benetan *gerta daitekeen* gauza batez mintzo zaigu Axular; Justiziak SARTU EGIN DITZAKE hamar gizon presondegian, eta banan-banan HAR DITZAKE.

Ikus dezagun beste hau:

—*Jeinkoak ONDATU ZUKEIEN lur guzia engoitik, balinetan zu EZPAZINA ararteko gugatik* (Etxepare) (BN).

Bi aditz-sail hauk oso nahasirik daude. Teoriaz, baldintza 'baledi' sailekoa bada (potentziala), ondorioak ere 'liteke' sailekoa izan behar du (potentziala ere; eta halaber beste sailean). Hauxe da Omaetxebarriak ematen duen erregela: "A una proposición absoluta de sentido real, corresponde una prótasis supositiva real; y dígase lo mismo de las correspondientes prótasis y apódosis irreales y potenciales", Euskera, 48 gn. orr. Egia esateko, lege hau gutxitan betetzen bide da aspaldidanik, 'banintz / nintzake' sailean ez bada.

Kutsu *subjetoarena* ongi xamar gorde da 'banadi' sailean, madarikazioetan eta antzekoetan ageri den bezala:

—*ojala orrelakorik*  
*GERTA EZPALERI!* (Udarregi) (G)

Hausnar ditzagun adibide batzu:

—*haren eskü miserkordiatzia ene egartetik BARA BALEDI, galdürik nintzate oroz batkoz. Orai nun nintzate? Ifernüko sü ikharagarrietan* (Z. G.) (S).

—*ene bizitza oro IGARAN BANEZA ere zuri erraiten: Jau-na, ükhen ezazü pietate nitzaz, eneikezü oraino askitan erran* (Z. G.) (S).

Ongi dio Boryel nafarrak (BN):

—*SANJA BALITE ezpatak*  
*GARBI LAITEZKE disputak.*

—*oraino EZ LAITEKE*  
*anitz MANIFESTA,*  
*holakorik gehiago*  
*EZ BALEDI GERTA.*

eta egoki esaten zidan behin Jean Etxepare zenak, zoritxarrez gazterik hilik:

—*eskuara GAL BALEDI, zer GERTHA LAITE?* (BN).

zoritxarrez gerta *daitekeen* zerbaitez ari baitzen; eta, ageri denez, baldintzan eta ondorioan, potentzialak erabili zituen.

—*on* lizateke *orai ere halakoekin egoiteaz eta usatzeaz bertze kalterik ETHOR EZPALEDI ere... hura bera behar lizateke asko* (Axular) (L).

—*baldin UTZ BAZENEZA harri handi bat eskuetarik, norat othe lihoake goiti ala beheiti?* (Axular) (L).

—*eta gaixto hura, zahar, itsu, maingu, hebain, eri hura HAR BALEZA ere Jainko miserikordiosak, ez lizateke, ez, guztiarekin ere halakoa egiteko gabe* (Axular) (L).

—*jaunak EZPALEZAKO  
hiltzia OFREZI  
oraino behar luke  
mila urtez bizi* (Boryel) (BN).

Baldintza OBJETIBOETAN errazago da etsenplu egokirik aurkitzen:

—*ikusia besterik JAKINGO EZ GENDUKE, besteakandik IKASIKO EZ BAGENDUKE* (Gregorio Arrue) (G).

—*berezkoa BALU, berdiña eta bat izango litzake guztion hizketa* (Arrue) (G).

—*hanko amek BALUTIE SARTZEN haurrak holako, intres LIZATE har gintzan orok emaztiak hanko* (Etxepare) (BN).

—*JAGIKO BALIRA lurpetik antxinako asabak, ez leukee sinistuko* (Mogel) (B).

—*ez nintzate ondo azija izango, nik bere ERANTZUNGO EZPANEUNTSA zure egitada prestubari* (Mogel) (B).

—*nekezale guztijak BALIRA zu baisen begiratubak, urrezko bidiak ikusiko liraatez* (Mogel) (B).



Ene eskuetan ez dagoen gertakizunari buruz mintzatzean, hortaz, indikatibozko baldintzak erabiliko ditugu:

—datorren urtean Bilbo osoa suntsituko balitz.

Bestela, nahikunde, beldur edo esperantza kutsua hartzen du esaldiak:

—datorren urtean Bilbo osoa suntsi baledi.

Eta kasu batzutan zorakeria litzateke:

—datorren urtean De Gaulle hil baledi (ezinezkoa baita).

Indikatiboz egiten diren baldintzak, hitz batez, *ahaltasun*-mugetatik at egiten dira, eta *hipotesi huts* izan daitezke, nahiz funtsik gabeak. Potentzialaz egiten direnak, aldiz, mami edo *obra dai-tezkeen* gertakariak aipatzen dituzte; eta horretatik beren barne-karga.

#### 4.51. 'AHAL BALEDI' / 'AHAL BALEZA'

Omaetxebarriaren ustez diferentzia bera dago 'ahal izan' aditzarekin. Alegia, 'ahal banu' eta 'ahal baneza' diferenteak dira, lehenengoa \*'edun'etik baitator (OBJETIBOTASUNA, kanpotik datorren egoera), eta bigarrena \*'ezan'etik (SUBJETIBOTASUNA, geure eskuetan dugun zerbait denean). "No hay que confundir las flexiones de este supositivo del POTENCIAL eventual con las del presente perfiendo del IRREAL. Debe conservarse la diferencia entre 'Al banu, egingo nuke' (pero de hecho no lo puedo) y 'Onela al baneza ondu umoria' (es posible que en esta forma consiga tener mejor humor)" (Omaetxebarria, "Euskera", 50).

Gauza batetan nabaitzen da desberdintasuna oso garbiki: erdaraz 'ojalá' daramaten esakuntzetan, euskaraz 'ahal baledi' aurkituko dugu:

—*ESNA AL BANITZA... alerik pentsatu gabe pekatuan lo datzaten arima zorigaiztokoak* (Arrue) (G).

- AL BANITZA KONBERTI! (G).
- KONPLITU AL BANEZA  
*nere ordenian;*  
*saiatuko naiz al dan*  
*modu onenian* (Lexo) (G).
- lengo bandera mantxatu gabe  
AL BAGENEZA gora IYO (Lexo) (G).
- aitatuko det sarri, ESNA AL BANITZA... *arima zorigaiz-*  
*tokoak* (Arrue) (G).
- Jauna, argi zadazu  
*entendimentua,*  
ATERA AL BAGENTZA  
*bear dan frutua* (Imaz) (G).
- ADIERAZI AL BANITZAKE  
*zer diran pasadizuak* (Imaz) ('adieraz al banitzake' hobe  
litzateke, jakina).
- konbeni zaigun ixtoriya bat  
KONTATU AL BAGENEZA (Zapirain) ('konta' hobe) (G).
- ai, ene seme: tori, gaxo orrek:  
AL BAZENEZA TXUPATU (Zapirain) (G).
- bertso bi paratzeko  
*egin det ametsa,*  
*San Joseren bizitza*  
KANTA AL BANEZA (Xenpelar) (G).
- Gipuzkoako euskal erriya  
AL BANEZAKE NOMBRATU (Xenpelar) (G).

Beste batzutan esperantza edo nahikunde kutsua du:

- gizonak Jaungoikoaz, eta geroko bizitzarako ipiñita  
*dauzkan eskain sari eta kastiguaz, aztutzera IRITXI AL*  
*BALITEZ* (Arrue) (G) ('iritx' hobe, esana dugun bezala).

—*AL BALEZAKEE, bota eraziko liekee odola izerditan serbitzariei* (Arrue) (G).

—*andre gaizto bat biraldu zion  
KONBERTITU AL BAZEZAN  
atormentatu biarko zala  
baldin mudatzen ez bazan* (Udarregi) (G).

—*oi aldi oneri AL BANEGI ENPARA,  
barriz enendorke Aramaioko kontrara* (Abendañoren kanta) (B).

Askotan, halere, potentzial huts gisara erabiltzen da:

—*nork bere grandeza  
dubanak ar beza,  
plazan ager beza,  
baldin AL BADEZA* (Fernando Amezketarra) (G).

—*IKASI AL BAGENZAKE... egingo genduke* (Gerriko) (G).

—*egiaz, Jaungoikoa ezin izango litzake Jaungoiko, ezpa-  
litz neurrigabea; eta ezin izan liteke neurrigabea, gizo-  
naren adimentu laburraren neurrian SAR AL BALEDI;  
edo berebat dana, gizonari oso ADI AL BALITZAIIO.  
Anega ez litzake izango anega, lakarian SAR AL BALE-  
DI* (Arrue) (G).

## 4.6. BESTE OHAR BATZU ADITZARI BURUZ

### 4.6.1. 'JAIKIKO BANAIZ' / 'JASOKO BADUT'

'Jaikiko naiz'etik, 'jaikiko banaiz' ateratzen da: baldintza OBJETIBOA beraz, eta *etorkizunean*:

- fedea nai edo ezekoa da gizon guzientzat, SALBATUKO BADIRA* (Arrue) (G).
- naiz gazteak, naiz zarrak, estaduari begiratu gabe egin behar du, SALBATUKO BADA* (Arrue) (G).
- IRUNTSIKO BADOT, edan biar dot* (Mogel) (B).
- jagiten dira gaberdirunz... gero oera BIURTUKO BADI-RA bere* (Mogel) (B).
- nik SINISTUKO BADEUTSUT, neuk enzun biar deusadaz* (Mogel) (B).
- IRAUNGO BADA, biziak zer bait biar izaten du* (Iturzaeta) (G).
- dago konfesatzeko obligaziyua, KONSEGITUKO BADA absoluziyua* (Udarregi) (G).
- ATERAKO BANAIZ ni batere arrazoiz, oiera etzitea komeni zait goiz* (Imaz) (G).

Esaera hau Hegoaldean erabiltzen da batez ere.

Eta gauza bera "zen"etik:

- bere gorputza gloriuz apainduta gerorako gizonen artean GERATUKO BAZAN, nai edo ezekoa zan guretzat, estaldurik geratzea* (Arrue) (G).

#### **4.62. 'DEDINEAN' / 'DEZANEAN'**

Subjuntiboaren ordeztu batzutan indikatiboko orainaldia erabili ohi da, *adierazkizuna aldatuz*:

—jaikitzen zeranean, begira zazu leihotik.

Gaizki esana da. Esaera jatorra hau da:

—jaiki *zaitezenean*, begira zazu leihotik.

Hona hemen adibide batzu:

—*Jaungoikoa egon dedilla pekatariak NAI DEZAN ARTE zai* (Arrue) (G).

—*JAN DAIGUNIAN erdiraño, emongo deusut edaaten ardaa* (Mogel) (B).

—*bekhatutan HIL DADINA, bertan kondenatuia.* (Etxepare) (BN).

—*gure azken orena JIN DADINIAN* (Tartas).

—*GERTA DEDIN ARTE bortxaz eragin bear dira onelako gauzak* (P. Iturriaga) (G).

#### 4.63. 'EGIZU' / 'EGIKEZU'

Desberdintasun hau ezaguna da, eta anitz lekutan azaldua. Baina batasunari buruz, beharbada euskara osatura ekartzea bidezko daitekeela iruditzen zait. Mogel eta Añibarroren izkribue-tan normala da.

Entzun dezagun Añibarroren beraren azalpena: “Azkenez esan bear deusut eze, liburu onetan ikusiko dozula, batzutan esaten dala ‘egizu, egidazu, degizula’, eta beste batzuetan ‘eikezu, eikedazu, deikezula’, etc. Lenengoak esaten dira gauzea ordu berean egin bearra danean; bigarrena, barriz, geroagogarrenean egin bearko danean. Alantxen esan daroe, baita ondo baino obeto, gure bizkaitar baserritarrak” (Añibarro, ‘Eskuliburua’, 7).

Beste azalpenik ez da behar.

Hona hemen adibide batzu:

—*agur, bada, maisuba, gois artian; gau on bat IGARO EGIZU, ta DEI EGIKEDAZU ez ollarraren goixeko soñuban, ta bai eguna zerbait argituta* (Mogel) (B).

—*ez naz ni neskia, neskatilla garbija baño; IKASI EIKEZU urrengoan obeto berba egiten* (Mogel) (B).

—*ilean bein egingo direanak: 1/ ARTU EIKEZU il guztirako santuren bat zeure bitarteko... 2/ Onetan ARTU EIKEZU egun bat, eta berean ikusi zeure arimako atzera-aurreak* (Añibarro) (B).

—*EMON EIKEZU ordu laurdentxu bat gitxienez egunian adimentuzko orazinoan* (Añibarro) (B).

\* \* \*

#### 4.64. 'JAIKIKO DA' / 'JAIKIKO ZEN'

Sebero Altubereren 'Erderismos' liburuan ederki eta argiro azaltzen da 'jaikiko zen' eta 'jaikiko zitzakeen' en arteko diferentzia.

'Jaikiko zen' 'jaikiko da' delakoaren simetrikoa da:

—*esan du etorriko dela / esan zuen etorriko zela.*

*Kasu horretantxe, eta ez bestetan, erabili behar da:*

—*(azaldu zien)...nola gizona pekatutik askatua IZANGO ZAN, eta zeruko miserikordiaren iturriak IDIKIKO ZIRAN, nola JAIOKO ZAN donzella garbi baten erraie-tatik* (Arrue) (G).

—*(agindu zuen) elizarekin beti EGONGO ZALA* (Arrue) (G).

#### 4.65. 'NAHI NUKEEN' / 'NAHI NUKE' / 'NAHIKO NUKE'

'Nahi izan', 'behar izan', 'hobe izan', eta hitz batez, 'izan' laguntzailea atxikirik duten aditzak, era berezi batera jokatzeko dira.

Legea hau da:

(iaz) NAHI NUKEEN (= quería, hubiera querido; je voulais, j'aurais voulu).

(orain) NAHI NUKE (= querría, je voudrais)

(geurtz) NAHIKO NUKE (= querría, je voudrais).

Erdarazko itzulpenetan ageri den bezala, erdaraz pentsatuz gero, euskarazko formak nahasi egiten dira.

Esate baterako:

—*Jaungoikoa guzien mende ipiñi NAI LUTEKE* (Arrue) (G)  
(ez du idatzi, beraz, 'nahiko luteke'; *orain* nahi baitute hori).

—zuri eskerren emaiteko, lurrian kreatura den *bezaiñbeste mihi ükhen NAHI NIKEZU* (Zuberoko GÜthüna) (G).

—(*orain*) *NAI GENDUKE jakin* (Arrue) (G).

—*aserratuko ez balitxakio, jakin GURA NEUKE nor dan* (Mogel) (B).

—*NAHIAGO ZINDUKET illik ikusi... egingo duzula jakin baño* (Arrue) (G).

—*badakit zer egin BIAR LITZATIAN, egiten ez badot ere* (Mogel) (B).

—(*orain*) *ezagutu BEAR LUKE zer arrera izan lezakean* (Arrue) (G).

—*zer NAI ZENDUKE egitea?* (Urruzuno) (= oraintxe egitea) (G).

- orai oro NAHI NUKE liren Jeinkoagatik* (Etxepare) (BN).
- ixil ladin NAHI NUKE* (Etxepare) (BN).
- ama emazte luien ala ez NAHI NUKE galdetu* (Etxepare) (BN).
- parabisiuan NAHI ENUKE emazterik ezpaliz* (Etxepare) (BN).
- maite nuiena NAHI ENUKE ehork hunki liazadan* (Etxepare) (BN).

*Aspaldiko* pasadizuei buruz, 'nukeen' saila dator:

- hügü bahündüt NAHI NUKIAN bezala!* (Zuberoko Güt-hüna) (S).
- soldadu danak bota zituen  
lurrera derrepentean,  
Jaungoikoaren semea zala  
adiazi NAI ZUKEAN* (Imaz) (G).
- presidenteak bere burua  
NAI ZUKEAN garbitu* (Imaz) (G).
- juezak Jesus eriotzatik  
NAI ZUKEAN libratu* (Imaz) (G).
- aurtxuak, parrez, bazirudiyen  
NAI ZIYOKELA lagundu* (Zapirain, Jenobeba santuaren kondairan) (G).
- 'Esan zadazu, Jesus, bazera  
Mesias prometitua';  
baietz eralki eta formatu  
NAI ZIOKIAN delitua* (Imaz) (G).
- OBE ZUKEAN Ziriakok Praiskoren bertso ori ondo ikasi  
balu* (Urruzuno) (G).



- ospitaleko pobre gaixuak*  
NAI ZITUZKIAN mantendu (Iturzaeta) (= aspaldian) (G).
- au esan BEAR NUKIAN* (Udarregi) (G).
- (*dirurik ez zuen*) *zergatik eze diputau izateko diru asko*  
*atera BEARKO ZUKEAN, eta egia esateko,* (Urruzuno) (G).
- eiztari ere bazan; edo izan NAI ZUKEAN beiñipein* (Urruzuno) (G).
- berak NAI ZUKEAN txakurra eraman omen zion* (Urruzuno).
- herstu zenean, NAHI ZUKEIEN aphur bat luzatu, NAHI ZUKEIEN*  
*biharamun arterainoko denbora irabazi* (Axular) (L).

## 4.7. "ERITZ / ERITZI" ADITZAZ

(Txosten hau 1977-ko Maiatzean igorri zitzaion Euskaltzaindiari; eta bere hartan uztea erabaki dut, beharrezko oharrak erantsiz)

Orain dela zazpi urte argitara nuen neure lehenengo "SUS-TRAI BILA"-n, azken puntu gisa (5.9) ikutu nuen aditz berezi honen kaso; baina gaingiroki bakarrik.

Eta, Mitxelenak berehala gutunez azaldu zidanez, alegiazko berezketa batzu onartu nituen; eta, hitz batez, "iritzi"-ren berezitasunak argitu baino, ilundu egin nituela pentsatu nuen.

Berrikiago, aurtengo Apirilean, eztabaida garratzak izan ditugu geure artean Euskaltzaindiak izendatu gintuen Batzorde berezi-

kook; aditz honen kakoari ez baikenion denok batera erizten. Eta ez da harritzekoa, aditz hau aspaldidanik gain behera baitoa ("ces expressions sont mortes" dio Lafittek bere Gramatikan, 333); eta gero eta gutxiago (eta baldarkiago!) erabiltzen baita.

Mogelek berak, moldiztegiko hutsik ez badago, nahasketa-aztarnaren bat bederen erakusten du bere "Peru Abarka"-n: "orain txito ederto derist", dio Mogelek, P. A. 147; "deritxot" edo esan beharrean.

Larramendi ere zalantza horien lekuko da. "Parecer" artikuluan (II, 232) "deritzat" eta "neritzan" sailak dakazki, eta "uste det" en kidetzat ematen ditu:

deritzat = uste det, me parece  
neritzan = uste nuen, me parecía  
"deritzat baietz = paréceme que sí".

Baina "agradar" artikuluan (I,43) antzinako moldetik urrunduz (on daritzut = maite zaitut), arau zaharretik kanpora ematen ditu erdal itzulpenak: "on derizkidazu = tú me agradas; on derizkit = aquel me agrada; on derizkizugu = te agradamos", eta abar. Are nahasketa handiagoa "aborreker" artikuluan (I,7): "te aborrezco = gaitziriztea dizut" irakurtzen dugu (gaitz irizteN irakurri beharrean).

Pundu hau argitu beharra zegoen, hitz batez; eta neure alde tik argitzen saiatuko naiz ondoko lerro hauetan. Eta, noski, argi-bila horretan, atzera joko dugu; aditz hau askoz bi ziago egon baitzen aspaldiko mendeetan, oraingo euskaldun gizartean baino.

#### **4.71. IRITZ-I (ERITZ-I, ERETX-I) = OPINAR, ESTIMAR, CREER QUE = JUGER, ESTIMER, PENSER QUE**

Ithurryk ongi azaldu zuenez (Gramm. 339), "iritz-i" aditz honek ba du, noski, NOR/NORI/NORK erabilkera; baina ba du ere

NOR/NORK hutsezko erabilkera ere, "eraman", "ekarri", eta bes-tek biak dituzten bezala: dakart/dakarkiot, ez demala/ez demozula, eta abar.

Iparraldeko euskalkietan gertatu ohi den bezala, "-ritz-" aditz-sustraiaren ondotik, "a" erantsi izan zaio aditza jokatzean; eta "eras-i"k, "derasat" eta "eraunts-i"k "darauntsa" eman dituzten bezala, "iritz-i"k "daritzat" eman du *NOR/NORK sailean*; eta gainerakoak.

Hau ez da hango euskalkietan batere bitxia; eta "NORI"rik somatu beharrik ez dago. Oihenartek "nigorra" (199), "nakarrana" (26), "derahatza" (174), "debaka" (179), "derosa" (180), "daku-sat" (151), "dabila" (622), eta abar erabili zituen; baita atsotitz argitsu hura: "otsoak zer baitetsa / otsemak donhetsa" (Ats. 390). (Kasu honetan ere adizkera hirukuna izan balitz, hau irakurri genukeen: "otsoak zeri, otsemak donhetsa".)

Leizarragak ere "dakusa"ren hildotik jokatu zuen "ikusi" ("dacussa", "çacussatenean", "becussa"). Gauza bera Axularrek ere ("etzakusa", XXXI, 1); eta Etxeparek ("diakusazut").

Gaur bertan ere "zer darasa horrek?" eta horrelakoak entzuten dira maiz Iparraldean ("zer debru derasa hunek?", Xalbador, 80).

"Daritza", hitz batez, NOR/NORK adizkerak dira batzutan; besterik ere (HARI-dunak, alegia) batzutan izan badaitezke ere.

#### **4.72. NOR/NORK ERA BIKUN XINPLE HONETAN, ETA BIZ- KAIERAZKO ALDAKUNTZA EZAGUNAK KONTUTAN HARTUTA (iritz = eretx), HONELA AURKEZ DAITEKE ADITZ HONEN JOKABIDEA:**

A1 (nik) daritzat  
(hik) daritzak<sup>n</sup>

B2 neritzan  
heritzan

(hark)	daritza	zeritzan
(guk)	daritzagu	generitzan
(zuk)	daritzazu	zeneritzan
(zuek)	daritzazue	zeneritzaten
(haiek)	daritzate	zeritzaten

*zer daritzazu?* = ¿qué opinas? ¿qué te parece?  
 qu'est-ce que tu en penses? = zer uste duzu?

*komeni zela neritzan* = yo creía que convenía; je croyais que cela convenait = komeni zela uste nuen.

“completiva/complétive”izeneko esaldiak (-la, -nik) osatzeko (4.721), eta iritzi soil bat besterik gabe ematen delarik (4.722), NOR/NORK adizkera *bikun* hauk erabili izan dira euskaraz. Hona adibide batzu:

#### 4.721 Konpletibetan (-la, -nik)

—*eritzi DUT etzaokeela* hemen gaizki”, izkiriartzen zuen Oihenartek “Ezkontidearen hilxexua”ren aintzin-solas gisa (Atsotitzak eta Neurtitzak, 187). DUT horretan garbi agertzen denez, konpletibetan NOR/NORK adizkerak erabiltzen dira.

—“beti joz joz, *daritzana*, inkudeak bezala diraukedala? (Oih., 158. orr.). (“*daritzana*” hori, noski, galde-hitza besterik ez da, “uste duna?” alegia = crees tú, crois-tu que?)

—“jaunak hala *badaritza* (Oih., 200) (= hala dela uste badu.)

Lehenagoko etsenplurik ere ba dago. Eta Lafonek, nahiz eskuarki NOR/NORI/NORK atxeman, “*ezteçagula on eritzi*” berez-

ten du (= n'aimons pas), eta "sans objet de référence" dela dio; hau da, NOR/NORK sail bikunekoa.

Bide beretik ari izan dira bizkaitarrak.

P. Bartolomek, esate baterako, hau dakazki; beti ere kasu hauetan "a" batez oratuak: *deritxAzu*, eta ez *deritxOzu*.

—Onak diriala *deritxazun* kondezinoe (P. Bart., 40).

—*deritxat*, neure kristinaubak, on modu edo kondezinoe oneek guztiok daukazan persona bat topauko bazendu, naiko zendukiala aren adiskide izatia (P. Bart., 41).

—zer dala *deritxazu* bada, kristinaubak, munduko zuzentasun guztia (P. Bart., 44).

—ze pekatu *deritxazu* dala orditutia? (P. Bart., 273)

eta gauza bera Añibarrok:

—*baderitxazu* ori izango dala laungoikoaren... (Eskul., 16).

Geroagoko bertsolariek ere berdin jokatu izan dute:

—bastante dela *deritzat* nik (Izuela, 73).

—aiekin dagoala / batek *baderitza* (Alzo, 113).

—mantxarik dadukanik  
baldin *baderitza* (Izuela, 79).

#### 4.722 Irizpidea soilik dagoelarik

Alde batetik, Leizarraga zaharraren itzulpenean aurki daitezke horrelako esaldi batzu:

—*eztezagula* on eritzi (= n'aimons pas, Lafon).

—*badaritzat* (= je pense, Lafon).

—*badaritzak* (= tu penses, Lafon).

Baita Oihenarterengan ere, guztiz "uste dut"en kide gisa:

—Ban' etzar' aski gaitz, *daritzat*,  
gaizki horren egiteko (Oih., 181).

Baina bi esakera horien kidetasun zehatz horren etsenplurik argigarriena Gerriko-engan aurki daiteke agian:

—ala uste dedala eta *deritzadala* (Gerriko, 28).

eta *-o// -a* arazoa gerorako utziaz:

—libertadea bakoitzari eman baligu... ondo *deritzoguna*  
sinisteko... edo gaizki *deritzoguna* ez (Gerr., 287).

eta molde berriagoan (Larramendi-engan ere bai, dena dela):

—*deizkiyona* esango du (= uste duena).

#### 4.73 NOR/NORI/NORK ADIZKERAK

Juzkatua den gauza edo pertsona hizketan aipatzen delarik, juzkatu izan den hori *datibotan* jarri izan da eskuarki; eta "iritzi" aditza honetara *hirukuna* da (NOR / NORI / NORK).

Lafon-ek *-ritz-* sustraiari buruz ongi azalduak dituen fonetika-aldakuntzak berriro guk hemen onartuz eta erabiliz:

tz + t > zt  
tz + k > z  
tz + ku > zku  
tz + zu > tzu  
tz + zue > tzue  
tz + te > zte

adizkera sail hau sortzen da *orainaldian*:

a)

(niri)	hik	daritzak / daritzan
	hark	darizt

zuk	daritzazu
zuek	daritzazue
haiek	daritzate

(hiri)	nik	darizat /dariznat
	hark	darizk / darizna
	guk	darizagu / dariznagu
	haiek	darizate / dariznate

(hari)	nik	daritzot
	hik	daritzok / daritzon
	hark	daritzo
	guk	daritzogu
	zuk	daritzozu
	zuek	daritzozue
	haiek	daritzote

(guri)	hik	darizkuk / darizkun
	hark	darizku
	zuk	darizkuzu
	zuek	darizkuzue
	haiek	darizkute

(zuri)	nik	daritzut
	hark	daritzu
	guk	daritzugu
	haiek	daritzute

(zuei)	nik	daritzuet
	hark	daritzue
	guk	daritzuegu
	haiek	daritzuete

(haiei)	nik	dariztet
	hik	dariztek / darizten
	hark	darizte
	guk	dariztegu
	zuk	dariztezu
	zuek	dariztezue
	haiek	dariztete

Hortaz:

—haiek niri ero *dariztate* = ellos consideran que estoy loco, ils croient que je suis fou.

—nik zuei eder *daritzuet* = creo que vosotras sois bellas, je crois que vous êtes belles.

b) Nahasketa, ordea, eta handia, hirugarren pertsonetan gertatu da: *hari* eta *haiei* adizkeretan.

Jakina denez (eta Josu Oregik burutazio aztergarriak eman bide ditu honi buruz) hirugarren pertsonaren datiboetan beste atzizki batzu ere erabili izan dira: 3. sing. (-a); eta 3. pl. (-e) kasu hauetan, eta nik arestian emanak ditudan horien ordezkariak ere sor daitezke (“deutsot”ekin batera “deutsat”, “zaio”rekin batera “zaika”, eta abarren antzera):

A2

(hari)	nik	daritzat
	hik	daritzak / daritzan
	hark	daritzza
	guk	daritzagu



zuk	daritzazu
zuek	daritzazue
haiek	daritzate

(haiei)	nik	daritzet
	hik	daritzek / daritzen
	hark	daritze
	guk	daritzegu
	zuk	daritzezu
	zuek	daritzezue
	haiek	daritzete

Hots, irakurleak errepara dezakeenez, (hari)ren adizkera hirukun hauk (A2) eta NOR/NORK adizkera bikun normalak (A1) *berberak* dira, homofonoak dira osoki. Aspaldidanik, hortaz, eta juzkatu nahi izan dena hirugarren pertsona delarik, zalantzarik eta nahasketa franko sortu da.

c) Idazle bakar batek berezi bide zituen garbiki (NOR/NORK) bikuna eta (NOR/NORI/NORI) hirukuna: Prai Bartolome Santa-Teresak. Ondoko adibide honetan eta gorago (4.721) emandakoetan soma daitekeenez:

—*neuk bere (sinistu daikezu, irakurlia, baderitxazu)* ondo *neritxon* egitiari (P.B.,VI). Lehenengoan NOR/NORK dugu, *a* batez; eta bigarreanean, aldiz, NOR/NORI/NORK, *o* batez.

Adizkera bikunak eta hirukunak behin eta berriz berezten ditu:

—onak diriala *deritxazun...* (40).

—*deritxat...* naiko zendukiala... (41).

—zer dala *deritxazu...* (44).

—ze pekatu *deritxazu dela orditutia* (273).

Baina horien ondoren hauk dakazki, NOR/NORI/NORK sailekoak:

- jaaten daben kopaubari asko *deritxola* (7).
- otseginaren biarrari gitxi *deritxola* (227).
- ondo *neritxon* egitiari (VI).

Beste idazle guztiengan, nik uste, Leizarraga barne, *deritza* / *deritzo* bikotea nahasirik agertzen da; edo-ta, beti ere, *deritza* saila erabiltzen dela.

**4.74** Ikus ditzagun orain, sailka, adibide batzu. Beti ere kontutan hau hartuz: "on iritzi", amar, aimer; eta "gaitz iritzi", odiar, haïr. Gogoan har dezagun esaldi zahar hura: "onerestea daukat biozean sarturik", TAV 122, estoy enamorado, je suis amoureux.

(*niri*)

- on *dariztak* niri? (Leiz., maite al nauk?).
- hobe *dariztak* (Leiz.).
- norbeitek on *badarizt* niri (Leiz., Norbaitek maite banau).
- niri gaitz *darizt* (Leiz., gorroto nau).
- hon *ezteriztana* (Etxep.).
- niri on *eztariztanak* (Leiz.).

(*guri*)

- guri on *darizkula* (Leiz., maite gaitula).
- baldin norbeitek gaitz *badarizku* (Leiz., norbaitek gorroto bagaitu).

- zeren on *baitarizku* (Leiz.).
- on *darizkutenak* (Liz.).
- maite gaitu, on *derizku* (Ax., 197).

(hiri)

- on *darizadala* (Leiz., que je t'aime).
- gaitz *deritzanak* irri deraidik, on *deritzanak* hasperren (Oih., 176).

(zuri)

- hon *derizut* (Etxep.).
- hon *baderizut* nik zuri (Etxep., maite bazaitut).

(zuei)

- baldin zuei gaitz *badaritzue* munduak (Leiz.).
- baldin zuei on *daritzuenei* on badariztezue (Leiz.).

(hari) Hiru zatitan emango dugu hau:

a) Aditz laguntzaileaz:

- eure hurkoari on *eritziren draukak* (Leiz.).
- bere anaieri gaitz eritzitea (Leiz.).
- elkharri on *eritzi diezogun* (Leiz.).
- zeinbatek egunazko ikasijari gitxi eritxita (P. Bart., 41).
- ederki *iritzi zion* aren konsejuari (Gerr., 111).
- menturaz askok *eritxiko deutsa* astun (P. B., 278).
- zer *iritzi dio*, Don Martin, atzoko koñakari (Urruz., 138).

- zeure soldateari gitxi eretxirik (Añ., 100).
- obe *eretxi eutsan* ixi-ixilik egoteari, erantzuteari baizen (Añ., 143).

b) —“deritza” sailekoak:

- emaiten duenari on *daritza* lainkoak (Leiz.).
- elkharri on *badaritzagu* (Leiz., elkar maite badugu).
- zembeitak lainkoari on *badaritza* (Leiz.).
- ezen on *daritzadala* Aitari (Leiz.).
- zer *deritxazue* zuek... lotsagaldu oneri (Añ., 64).

d) —“daritzo” sailekoak:

- elkharri on *daritzogun* (Leiz.).
- arropari-ere gaitz *daritzogula* (Leiz.).
- bere emazteari on *daritzón* (Leiz.).
- hon *eztaritzozunari* (Oih., 149).
- orain motibo bategatik on *deritzonari*, gero beste motibo bategatik gaizki *deritzo* (Gerr., 89).
- zer *deritzozu*, Praisko, gure Matxalenen burutazioai (Urruz., 35)

(*haiei*)

- Kristgatik ahaidei gaitz eritziteko (Leiz.).
- zuen emaztei on *eriztezue* (Leiz.).
- anaiei on *dariztegu* (Leiz.).
- lehen jar lekhuei on *dariztezue* (Leiz.).

- baldin zuei on daritzuenei on *badariztezue* (Leiz.).
- lehen plazei on *darizté* (Leiz., = dariztete).
- haei nik ere gaitz *diarizteat* (Leiz., = dariztet, hika).
- zergatik *darizten* Jainkoak hain gaitz hirur bekhatu-  
suerte hauri (Ax., 260).

#### 4.75. IRAGANALDIAN, ERA BEREAN, ADIZKERA HIRUKUN HAUK ATERATZEN DIRA:

(niri)	hik	heriztan
	hark	zeriztan
	zuk	zeneriztan
	zuek	zeneriztaten
	haiek	zeriztaten

(hiri)	nik	nerizan / neriznan
	hark	zerizan / zeriznan
	guk	generizan / generiznan
	haiek	zerizaten / zeriznaten

(hari)	nik	neritzon
	hik	heritzon
	hark	zeritzon
	guk	generitzon
	zuk	zeneritzon
	zuek	zeneritzoten
	haiek	zeritzoten

(guri)	hik	herizkun
	hark	zerizkun
	zuk	zenerizkun
	zuek	zenerizkuten
	haiek	zerizkuten

(zuri)	nik	neritzun
	hark	zeritzun
	guk	generitzun
	haiek	zeritzuten

(zuei)	nik	neritzuen
	hark	zeritzuen
	guk	generitzuen
	haiek	zeritzueten

(haiei)	nik	nerizten
	hik	herizten
	hark	zerizten
	guk	generizten
	zuk	zenerizten
	zuek	zenerizteten
	haiek	zerizteten

#### 4.76. ETA HIRUGARREN PERTSONETAN (HARI), GORAGO AIPATURIKO ARRAZAIN BERBERENGATIK, HAUK ERE AURKI DAITEZKE NAHASKETA ITURRI:

(hari)	neritzan
	heritzan

(haiei)	neritzen
	heritzen

zeritzan  
generitzan  
zeneritzan  
zeneritzaten  
zeritzaten

zeritzen  
generitzen  
zeneritzen  
zeneritzeten  
zeritzeten

Adizkera horietatik, teorian bederen (literatura zaharrear  
noiztenka agertuak), baldintza-adizkerak atera daitezke:

zeritzan	balerizt / leriztake
neritzun	baneritzu / neritzuke

#### 4.761 Hona hemen adibide batzu:

- denbora baten on oi *neretxu* (Mikoleta, TAV 134).
- gaitz *zaritzoten* (Leiz., gorroto zuten).
- guri gaitz *zarizkuten* (Leiz., gorroto gintuzten).
- baletsa Jaungoikoari  
har nenzan zerbitzari,  
hark er' eta *leriztan*  
hambat on zein nik hari (Oih., 176).

Ongi azaldu zuen aditz honen erabilkeraren kakoa Lafon eus-  
kalariak: "Attribution d'un nom ou d'une qualité: tel paraît être le  
sens fondamental de *eritz*: la qualité attribuée est tantôt celle de  
bon et de mauvais, exprimée par *on* et *gaitz*, tantôt celle de vrai:  
dans ce dernier cas, *eritz* se suffit à lui-même. Rien n'est attribué  
expressément au sujet, et l'objet de l'attribution reste indétermi-  
né" (Lafon, Système, I, 290).

#### 4.77. ERITZITAKO AIPATURIK ERE NOR/NORK ADIZKE- RA BIKUNA?

Idazle zahar batzuek (Axularrek bereziki), eta geroago ber-  
tsolari jator batzuek ere berdin, iritzia edo aburua jasotzen duen

gauza edo pertsona *nominatiboan* utzi izan dute, kasu hauetan ere NOR/NORK adizkera bikunak erabiliz. Bide beretik ibili dira beste batzu: Mendiburu eta Sara-ko Etxeberri bereziki.

Jokabide hau desegokitzat jotzen dute gehienek, Mitxelena barne (ikus TAV, 109). Hona hemen, adibidetzat, esaera bitxi horietako batzuk:

—*hura daritza* asko (Ax., 44).  
(=“hari daritza asko” espero zitekeen.)

—batzuek bekhatu *badaritzate* ere gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea, ez ordea *eztaritzate* bekhatu zor iakinari eta aithortuari luzatzea (Ax., 328; eta “edukitzeari” eta “luzatzeari” espero genitularik).

Gauza bera Mikoleta zaharrak:

—*alkarr on baderetxe* (TAV, 133).

eta Prai Bartolomek berak, adizkera hirukunetan:

—umiak, gurasuak dauken *guztia* gitxi *deritxuela* (P. Bart., 253).

—emoten deutsen janari *kopauba* asko *deritxuela* (P. Bart., 253).

Bertsolariengan ere horrelako batzu aurki daitezke:

—gaizki *deritzat uztia* (Ausp. 74-75, 110).

—deboziaz *entzutea*  
maiz on *deritzat* nik (Alzo, 25).

—pasa dan gauza *ukatutzia*  
nik ez *deritzat* egoki (P. Err., 60).

—baserrira *joatia*  
*etzeritzan* ondo (P. Err., 122).



—eder al *deritzazu*  
oiek *esatia*? (Segurako Itxua, 155).

Horietan guztiotan erizten edo juzkatzen den gauza aipatu egiten denez gero (esatea, joatea, eta abar), datibotan espero bide zitezkeen eskuarki: esateari, joateari, eta abar. Eta 4.73 puntuan azaldu dugunez, desegokitzat hartu behar dira.

#### 4.78 “DARIZT” = ME LLAMO, JE M’APPELLE

Hauta ditzagun orain, NOR/NORI/NORK emandako adizkera horietan, *HARK* (niri, hiri, hari, guri, zuri, zuei eta haiei) delakoari dagozkion formak. Eta azpi-multzo hauk ditugu:

##### 4.781 orainaldian

(hark)	niri	darizt
	hiri	darizk / darizna
	hari	daritzo (edo daritza)
	guri	darizku
	zuri	daritzu
	zuei	daritzue
	haiei	darizte (edo daritze)

##### 4.782 iraganaldian

(hark)	niri	zeriztan
	hiri	zerizan / zeriznan
	hari	zeritzon (edo zeritzan)
	guri	zerizkun
	zuri	zeritzun
	zuei	zeritzuen
	haiei	zerizten (edo zeritzen)

**4.783** Hots, aspaldiko denboretan, eta hizkuntza askotan Mitxelenak azaldua duenez, zerbaiti buruzko *iritzia* eta zerbait horretxen *izen-bataioa* ELKARREN KIDE HERTSIKAK izan dira: "the act of naming and the fact of identity are inseparable" (Dell Hymes, Wishram Chinook-i buruz mintzo delarik).

Gauza bera gertatzen zen euskaraz zalantzarik gabe: aspaldiko euskaldun batek *A* uste bazuen gauza bati buruz, "A" deitzen zuen gauza hori; eta "A" zeritzan, hortaz, bi sentiduotara batera.

Fenomenu hau Mitxelenak azaldua duenez, beraz, garbi agertzen da Leizarragarengan. Behin batez hau izkiriatu baitzuen:

"Lystra-koek Barnabas-i 'Iupiter' *eritzi*, eta Paul-i 'Merkurio' " beherexeago beste hau erantsiz:

"eta Barnabas deitzen zutén Iupiter; eta Paul, Merkurio".

Eta Mitxelenaren hitzak honera ekarriz: "Euskaraz, ordea, Litra-koek Barnabasi Jupiter-en *izena* eman bazioten, *Jupiter-tzat* zeukatelako izan zen eta, bestalde, *Jupiter zutelako ustean* baldin baziren, Jupiter *deitu* behar zuten".

Zerbaiti buruzko *ustea*, hortaz, eta zerbait horretxen *izena*, GAUZA BERA izan dira euskara zaharrez; eta bakuntasun hori morfologiako bakuntasunean ageri zen.

Norbaitek, hortaz (hizketan aipatu beharrik ez dagoen nornahik, beraz) uste hau edo hura baldin badu zerbaiti buruz, horrela *deritzola* edo *zeritzola* esango da euskaraz.

"Yo me llamo A", hortaz, je m'appelle A, (edonork) *niri A darizt* esaten zen euskaraz; eta "nosotros nos llamábamos B", era berean, nous nous appellions B, *guri B zarizkun*. Eta abar.

#### 4.784

Etsenplurik famatuena Mogelek dakar "Peru Abarka" liburuan:

—alan *derist* Peru Landetako  
(= niri darizt, nire izena P. L. da.).

Eta Leizarragak dakazkien beste batzu ez dira ilunago:

—eta *hari eritziren zaio* Emmanuel (Emmanuel deituko da).

Besterik ere aurki daiteke euskal literaturan barrena; eta ez askoz gutxiago bertsolari herrikoien ahotan:

(hari)

—*oni nola deritza?* (Larr., Dicc., I, XLVII).

—*batari deritxo* agorra, ta *bestiari* lina-berria (Mog., 126).

—*oneri deritxo* biotzeko berbaldia (Añ., 15).

—*batari deritxo...* koroia, *besteari deritxo* errosarioa (Añ., 150).

—ta egin eban lelengo emakumia, *zeñi deritxon* Eba (P. B., 14).

—bolsa *oni deritzaio* kapulea (Iturriaga).

—ur *oni deritza* lixiba (Iturr., 99).

—arkitzen *denari deritza* gatzarria (Iturr., 96).

—Kastillan erri *bati deritzaio* Laño (Alzo, 324).

—or goiko etxe *orri* / Artzabal *deritza* (Sokin, 78).

—Miraballesko etxe *orri*  
leen oi *zeritzan* Zapatari (TAV, 127).

(zuri)

—jakin gura neuke zelan *deritxun* (Mog., 40).

(haiei)

- ala *derizte* argizki meetxo biribil batzuez eginikako *bil-dotxai* (Larr.).
- semeai derizte*... (Gerriko, 106).
- nola *derizte* patriarka *aei*? (Gerr., 106).
- oneei deritxee* pelikraneua ta kraneua (Mog., 70).

**4.785** Jakina: beharbada gehiagotan erabiltzen direnez gero, *daritzan* / *daritzon* (= que se llama, qui s'appelle), eta *zeritzan* / *zeritzon* (= que se llamaba, qui s'appellait) adizkera errelatiboak hobeki gorde dira:

- “Larrikalea” *deritxon* Ierusalengo kalera (Añ., 147).
- “Argia” *daritzanari* (Oih., 149).
- Gimnofisita *zerizten* iende batzuek (Ax., 70).
- Udo *zeritzan* bati erran zeikana (Ax., 487).
- Aurelia *zeritzan* andre batekin (Ax., 461).
- Lais *zeritzan* andre batekin (Ax., 500).
- “Astiasu” *deritzan*  
leku apartian (P. Err., 27).
- “Fuente Hermosa” *zeritzan*  
iturri batera (P. Err., 53).
- Arantzazu *deritzan* komentu zarrera (P. Err., 111).
- Melitona Muturbeltz *deritzan* bat ill dala gaur (Ausp., 26, II, 65).

#### 4.79 GAURKO BILAKABIDEA

Azken bolada honetan, “deritzo” sailari orain, eta XVIII. mendez geroztik dirudenez, “derizkio” saila ari zaio gaineratzen,

-ki- artizkiak beraz; eta "zeritzon" sailari, era berean, "zerizkion" saila. Era honetara:

—zer *derizkiozu* horri? (= qué te parece eso, qu'est-ce que tu crois au sujet de...).

—gaizki *nerizkion* (= me parecía mal, il me semblait mal).

—Kepa *zerizkion* (= se llamaba Kepa, il s'appellait Kepa).

—zer *deritxok*? (= qué te parece, qu'est-ce que tu en penses?).

Hona hemen adibide batzu:

—zer *derizkiyok*  
txurreruagatik? (Txirrita, 136).

—zer *derizkiyozute*? Ondo egin al det nere papera?  
(Ausp., 26, II, 112).

—zerbait bazala *bazeizkion*  
orrek bere buruari (Txirr., 36).

—ondo *zerizkiola* aren asmoari (Urruz., 38).

—al dan moduan *derizkiona* (Alzo, 94).

—*deizkiyona* esango du (Ausp., 66, 87).

Adizkeraren hirukuntasuna (NOR/NORI/NORK) forma berriago hauetan ongi azaltzen duenez gero, esaera desegokiak baztertzen lagun bide dezakete.

#### 4.791 EDER IRITZI; GOZO IRITZI; ETA ABAR

Esan dugunez, gaurko "maite izan", "on iritzi" esaten zen lehen; eta "gorroto izan", berriz, "gaitz iritzi". "Onerizkoa" eta "gaitzerizkoa" hitz zaharrak dira; eta esakera horrek aspaldidaniko sustraiak dituela ageri da.

—*lainkoari baino boluptatei hobe erizle* —zion Leizarra-  
gak, “amateurs de voluptés” esateko.

“Eritzi” eta “etsi” guztiz dira elkarren kideak; eta ederretsi, donetsi, gaitzetsi, berantetsi, eta abar, erabili izan diren bezalaxe, adjetibo asko erabili izan bide da “iritzi” aditzari loturik, makina bat aditz desberdin sortuz: eder iritzi, gozo iritzi, eta abar.

Hona hemen joera zabal eta orokor horren adibide bakan batzu:

—ago *eder iritzita* (Txapel), 39.

—hemen naza orzirik  
noizbait *gozo erizirik* (Elegía de Amendux, 1584, TAV  
109).

—etorriko naiz, eta  
ez *luze iritzi* (P. Err., 130).

—eta frutari *eder irizirik* (Greg. Arrue).

“Me ha gustado”, “cela m’a plu”, *ederretsi diot* entzuten den bezala; lehenago “eder iritzi diot” esaten zen.

## **OHARRA:**

Liburua moldiztegira joanda gero, bere azken hitza emana du Euskaltzaindiak aditz sintetikoari buruz (1977-VIII-26).

“*Eritz-i*”ri dagokionez, Mitxelenaren irizpidea nagusitu da: 1) “*Eritz-i*” aditza beti NOR-NORI-NORK tankerakoa dela; 2) orainaldiko adizkiek “*de-*” hizkiez hasten direla, beraz; 3) Leizarraga-ren formetan “*da-*” eta “*de-*” ez direla berezten; eta hortaz, bizkaierari jarraituz, “*de-*” sailaren arabera jokatu beharra dela aditz hau.

Hautapenaren zaila erakusteko, hona hemen nork zein bide-tatik jokatu duen aditz hau:

### **A) deritzat/ot**

Larramendi

P. Bartolome

Gerriko  
Etxepare  
Urruzuno  
Mikoleta  
(bertsolariak)  
Mogel  
Añibarro  
Iturriaga  
Astarloa  
Otxoa-Arin  
Mendiburu  
Lardizabal

B) **daritzat/ot**

Leizarraga  
Ithurri (gram.)  
Oihenarte  
Axular  
S. Pouvreau  
Haraneder  
Sara-ko Etxeberri

(eta hildo honetatik zetorren  
Maiatzeko ene Txostenean  
agertzen den paradigma: dari-  
tzat, eta abar. Aski da *deri-  
tzat*-en bidetik, *e* jarriaz, joka-  
tzea).

Batez beste, hortaz, *Hegoaldekoen bidea onartu da*; Iparral-  
dekoetan nahaspila dagoela erabakiz.

EUSKARA BATUA-ri dagokionez, hortaz, aski du irakurleak  
ohar hau kontutan hartzea, eta A-ren arabera jokatzea.

# 5. ZENBAIT EUSKAL JOSKERA

## 5.1. 'NORK BERE' / 'NOR BERE'

3.2 puntuan askatzen saiatu naizen korapiloaren ondorio da hau. Alegia: 'nork bere etxea saldu zuen' edo 'nor bere etxera sartu zen'. Baina, esaera jator hauen ordeztan, 'norberak bere etxea saldu zuen' irakurtzen da; eta, hildo beretik, 'norbera bere etxera joan zen'.

**Eman ditzagun adibide batzu:**

- Jesus umillak au esan zien  
atzera begiratuaz:*  
*'Ez neri, negarrik egin zazute*  
*ZEÑEK BERE pekatuaz' (Imaz) (G).*
- NORK BERE errian (Txirrita) (G).*
- konfesatzeko Jaungoikoari  
eskatu bere grazia,  
eta urrena esamiñatu*  
*NORK BERE kontzientzia (Imaz) (G).*
- NORK BERE soberbia  
ondo umillatu,  
desordenan gauzarik  
ez deseatu (Imaz) (G).*
- zu errotari eta  
ni tabernaritzan,  
NORK BERIA bear du,*  
*'Juan Debalde' il zan (Pello Errota) (G).*



- ZEÑI BERIA kendu  
biar dan moduan,  
oientzako zer esanik  
eztago orduan* (Xenpelar) (G).
- sententzia eman dezan jujeak NORI BERIA* (Etxepare)  
(BN).
- ezta miresteko NOR BERE bekhatuagatik penatzea*  
(Axular) (L).

\* \* \*

## 5.2. ZENBATASUNA ETA NOLATASUNA

Gaztelera ez baitira hauk berezten ('cuánto calor hemos pasado estos días' eta 'cuántos amigos he visitado'), euskaraz ere, oharkabean hitzez hitz itzuliz, gauza bera entzuten da: 'denbora asko pasa dugu zai', 'asko maite zaitut', eta abar.

'Asko' eta 'gutxi', ordea, zenbatasuna azaltzeko erabiltzen dira azkeneko mendeetan. Axularrek ez du behin ere esaten 'denbora asko' edo 'denbora gutxi', '*denbora LUZEA*' eta '*denbora LABURRA*' baizik. Gauza bera 'maite izan' aditza: 'oso maite' esaten da, 'gogoz maite'. Pedro Maria Otañok, era beren, '*OSO triste-tu*' dio, eta '*OSO indartu*'. Nolatasunari 'oso' dagokio, edo 'erruz', 'txit', biziki', eta abar.

- OSO pozturik banidadeak*, dio Iturzaeta bertsolariak  
(G).

Hendrike Knörr-ek puntu honi buruz lan sakon bat prestatzen duela jakin dugu. Beude hemen izkiriaturakoak azterketa horren aintzin-solas gisa.

## Gogora ditzagun beste batzu:

- badakite San Antonio maite dedala GOGOTIK* (Saiburu) (G).
- OSO naiz bildurtu* (Imaz) (G).
- beñ senar oi urrutiko paje'atea denbora LUZEKO jûn ementzan* (bildu du Barandiaranek) (G).
- ikazkiñe OSO larrittu ementzan* (Barandiaran) (G).
- OSO arrittu ementziran* (Barandiaran) (G).
- morroiak OSO errukittu* (Barandiaran) (G).
- erruki AUNDIE izete ementzion* (Barandiaran) (G).
- amak OSO estimau eukan* (Barandiaran) (B).
- eta geo SEKULAKO abeastu ementzan* (Barandiaran) (G).
- gaur etxeakôn bidea lêngo atâatzen zatân gauzea ematen badîk, EUNDAÑO abeastuko aut* (Barandiaran) (G).
- OSO larrittu ementzan urdûntxe* (Barandiaran) (G).
- denbora LUZIE pasaute* (Barandiaran) (G).
- ezetz esan zion da OSO bildurtu zan* (Xenpelar) (G).
- banuen astakume polit bat, OSO maite nuena* (Urruzuno) (G).
- emen OSO asarretu eta sutzen da Alper-andi* (Urruzuno) (G).
- OSO maite zaitut nik* (Urruzuno) (G).
- zure jakinduriak OSO nau arritzen* (Urruzuno) (G).

- gaztetan sarjento tropan izana, eta guk erregiña BEZIN maite genduena* (Urruzuno) (G).
- urtebete artan kasualidadez oilloak OSO ugaldu ziran errian* (Urruzuno) (G).
- TXIT maite gaitu* (Gerriko) (G).
- herstura hartan hain denbora LABURREAN prestatuko eta apainduko dela* (Axular) (L).

### 5.3. 'ELKAR'EN DEKLINAZIOA

Pasadizu farragarri bat kondatuko dut hasteko, neuri gertatua:

- Ongi zegok. Beraz, bihar ALKAR JANGO DIAGU (sic).

Nire adiskide hori antropofago ez delako, eta horrelako proposamendu gogor bat beste modu batera egiten ote den ustetan, beste hau ulertu nion:

- Ongi zegok. Beraz, bihar ELKARREKIN jango diagu.

'Elkar' hitza, beste edozein hitz bezala deklinatzen da: elkarren, elkarri, elkarrenganako, elkarrekin, eta abar. Gaurko idazle batzuk, ordea, ez beti entzute txikitakoak, 'elkar' besterik ez dute erabiltzen: elkar jango dugu, elkar joango gara, ta elkar entzun diogu.

'Elkar' en perlesia berri hori sendatu egin behar da.

**Hona hemen adibide jator batzu:**

- adituko dute ALKAR* (Arrue) (G).
- beti ALKARREKIN izan balira bezela* (Arrue) (G).

- ALKAR ikusi eta aditu ez arren* (Arrue) (G).
- nola ALKAR artu eta laguntzen duten* (Arrue) (G).
- notiziyak emango*  
*dizkagu ALKARRI* (Txirrita) (G).
- konde-kondesak ibiltzen ziran*  
*ALKARREN aldamenian* (Zapirain) (G).
- beren arteko pasaizuak*  
*esan zizkaten ALKARRI* (Zapirain) (G).
- elizatikan ateratzian*  
*junta ALKARREN ondora* (Xenpelar) (G).
- nastatu gabiltzanak*  
*ALKARGANA bildu* (Xenpelar) (G).
- eraso zioten ALKARRI ama-alabak* (Urruzuno) (G).
- anhitz gauzatan baitirudite ELKHAR* (Axular) (L).
- miserikordia eta justizia hurbil dagotza Jainkoari eta*  
*ELKHARRI* (Axular) (L).
- zeren denborak eta urak ELKHARREN iduri handi baitu-*  
*te* (Axular) (L).

#### 5.4. 'LOAK HARTU NAU'

Jatorrizko forma horren ordeaz, 'lo artu dut', 'loak hartu naiz' (Axular bera), eta abar, ari dira gure artean zabaltzen eta sendotzen.

### Ikus ditzagun etsenplu jator batzu:

—*sarritan gertatu da, ama LOAK ARTU, eta jiraren batean oiean bertan aurra itotzea* (Arrue) (G).

—*motill oi LOK ARTU ementzôn* (Barandiaran) (G).

—*naigabe'atek emantzion errege orri* (Barandiaran) (plegu bereko esakuntza da) (G).

—*LUAK ARTU ebanian* (Barandiaran) (B).

—*bei zai zegola LOAK ARTU zuun* (Barandiaran) (G).

—*LUAK ARTU mentzun ta eerki lo in* (Barandiaran) (G).

—*bai ama ere bere aurtxua  
LO gozo BATEK ARTUTA* (Zapirain) (G).

## 5.5. ...N NAHI DUT.

Euskalki guztietan eta gaur arte, 'nahi izan' aditz nagusiarekin zihoan subordinatua 'etor zedin', 'eros dezazun', eta abar, erara esaten zen. Erdaraz, ordea, ez da diferentzia hori egiten: beti 'que' da lotura. Horretatik euskaraz ere piskanaka nahastuz joatea.

etorriko *DELA* esan du = ha dicho *QUE* vendrá, il a dit *QU'il* viendra

etor *ZAITEZEN* nahi du = quiere *QUE* vengas, il veut *QUE* vous veniez.

Baina *erdaraz berezten ez delako*, geuk ere *erdaraz bezala*:

etor *ZAITEZELA* nahi du (edo, okerrago, etorri zaitezela...).

Nik gauza bat gerta dadin *NAHI* izatea, ez da gauza hori gertatzea, *BI* gauza dira, oso desberdinak. Fenomenu bera gertatu da

euskaraz beste aditz batzutan: 'agindu', 'opa izan', eta abar. Horietan 'N' da erdarazko 'que', eta ez 'la'.

### Esate baterako:

—*guziz nai genduke adierazi degiguzuN* (Arrue) (G).

—*nai dute ikusi ditzateN* (Arrue) (G).

—*gura al dok ibili nadiN makilaka eta agaka?* (Mogel) (B).

—*nai du ekarri dizaiodaN?* (Munibe) (G).

(‘adieraz’, ‘ikus’, ‘ibil’ eta ‘ekar’ hobe lirateke, noski.)

—*aitzitik atsegin hartzen du zeren hala penatzen den, eta nahi du pena dadiN, eta are handik ilkitzeko esperantzarik gabe pena dadiN* (Axular) (L)

—*nahi baduzu urrikal gakitzaN geure Jainkoari, entzun gaitzaN, lagun dakiguN, eta eduki dezaN gutzaz miserikordia* (Axular) (L).

—*nahi baduzu geldi dadiN etsaia, geldi zaitezi; nahi baduzu ixil dadiN, ixil zaitezi. Nahi baduzu sua iraungi dadiN, egurrak edeki iatzozu* (Axular) (L).

## 5.6. MUNDURA JAIO

Erdaraz ‘nacer EN el mundo’ esaten da; baina euskaraz ez. Euskaraz ‘munduRA jaiio’ esaten da; ‘baserrira ezkondu’, ‘etxera bildu’ eta ‘herrira batu’ esan ohi den bezala.

Bertsolarien bildumetan ikus daitekeenez, joskera hori oso bizirik dago:

—*Jesus ona da guregatican  
mundu ONTARA jayua* (Iturzaeta) (G)

- ni ez naiz fortunoso*  
MUNDURA jayua (Udarregi) (G).
- MUNDURA kristo jaio zitzaigun  
zenbat pena ikusteko (Imaz) (G).
- dudarik gabe ill bear degu*  
MUNDURA jaio guziak (Imaz) (G).
- zeñen pobre kondesagandik*  
MUNDURA jaio zerana! (Zapirain) (G).
- jaio ziñan MUNDURA* (Bera) (AN).
- mundu ONTARA jaiok* (Alzo) (G).
- MUNDURA da jaio (Alzo) (G).
- MUNDURA jaio naia (Alzo) (G).
- MUNDURA sortuak (Alzo) (G).
- Nafarruako seme*  
kreatu MUNDURA (Boryel) (BN).
- Kristo MUNDURA jayorik* (Saikola) (G).
- mundu ONETARA sortua* (Etxeberri) (G).
- jaio giñan gu MUNDURA* (Etxeberri) (G).
- jaio zan MUNDURA* (Errenteri) (G).
- Jesus MUNDURA jaio duk eta gu galdûk gattuk*  
(Barandiaran-ek Oiartzunen bildua) (G).

Hildo beretik Lapurdiko idazleek:

- jaio baitu gizon bat MUNDURAT* (Haraneder) (L).

Hots, hiltzea *mundutik aldentzea* zaio euskaldunari, jaiotzea *mundura etortzea* den bezalaxe:

—*Jaunak mundutikan illa* (Txanka) (G).

“Belaunikatu” eta beste batzu horrelaxe erabili izan dira:

—*lurrera belaunikatu* (Txanka) (G).

## 5.7. ...RAKO BIDEA

Erdarazko ‘el camino DEL cielo’, guk hitzez-hitzez itzultzean, ‘zeruko bidea’ esan ohi dugu. Baina euskaraz ZERURAKO bidea’ esan da beti.

**Gogora ditzagun esakuntza jator batzu:**

—*ZERURAKO bide bakarra* (Arrue) (G).

—*ZERURAKO bide garbia* (Arrue) (G).

—*zer ikhüsi düdan PAUERAÑO bidin* (Etxahun) (S).

—*IFERNURAKO biria dator* (Imaz) (G).

—*INFERNURAKO bide lasaiak  
saia gaitezen galtzera* (Saiburu) (G).

—*gero ETXERA bidean* (Imaz) (G).

—*bestela ezin egin gentzake  
INFERNURAKO biderik* (Imaz) (G).

—*ikusi ditugu ETXERAÑO bidea artzen* (Txoperena, Igan-  
tzikoa) (AN).

—*ETXERA bidiin lapur batzuk zeuden* (Barandiaran).

—*bazekian Moisesek Sinaiko MENDIRAÑO bidea?* (Ge-  
rriko) (G).



## 5.8. ...Z JOAN

'Le basque est en train de se perdre' = 'el vascuence está perdiéndose' honela esaten dute gaur batzuk: 'euskera galtzen doa'. Hori ez da euskara. Euskaraz bi modutara esan daiteke:

1/ euskara galtzen ari da

2/ euskara galduaZ doa.

Bigarren hau gero eta gutxiago entzuten denez gero, adibide batzu ekarriko ditut:

—*atsegin det gutxituaZ joateaz* (Arrue) (G).

—*Jesusen dotriña ona  
letuaZ goazen* (Udarregi) (G).

—*zu ere zartuaZ zoaz* (Urruzuno) (G).

—*bazijoan agure gizajoa sarean sartuaZ* (Urruzuno) (G).

—*biok goaz zartuaZ, eta agur egiten dizut Josafateko  
zelaira arte* (Urruzuno) (G).

—*oilloak urrituaZ zijoazela auzoetan* (Urruzuno) (G).

—*bera ere zaartuaZ zijoan* (Urruzuno) (G).

—*eta ala, egunetik egunera, geituaZ joango dira ontzako  
urreak* (Urruzuno) (G).

—*aituZ ta aituZ doa* (Mendiburu) (AN).

—*zu baitzoaz, bekhatu eginaZ eta bekhatutan egonaZ,  
hala doa Jainkoa ere gure arimatik ihes eginaZ eta  
urrunduaZ* (Axular) (L).

—*guztiak dohatzi behehituaZ, ahituaZ eta bere indarrean flakatuaZ (Axular) (L).*

—*nola baitzohan dudatuaZ eta fidantzian galduaZ, hala zihoan itsasoan barrena ere sartuaZ eta hondatuaZ (Axular) (L).*

# 6. EUSKAL FONETIKAZ BIDE URRAKETAN

## 6.1 EUSKAL BOKALETASUNAZ

Fonetikaren mailan ere EUSKARA BATU-ra jo nahi izanez gero (eta OINARRI BILA honetan, Hitzaurrean azaldu dudanez, horixe da gure helburua, eta ez besterik), halako erdibidea bilatu beharra dago; Hizkuntzalaritzaren arrazoinak eta euskalkien abantailak kontutan harturik ere, gaurko euskaldun herria zertan dagoen ahaztu gabe.

Fonetika hertsiaeren azterketak alde batetara utzita, beraz, eta FONOLOGIA-ren mailan (alegia, soinu-desberdintasunen funtziotasunen edo semantika-balioen mailan), euskarak BOST bokale du eskuarki: /i/, /e/, /a/, /o/, /u/. Zuberoa-ko eta Bizkai-ko bokale berezitasunak, beraz, bakanka bakarrik Fonologiaren mailakoak, oso zabalera txikikoak direlako, ez ditugu hemen kontutan hartuko.

Bost fonema horiek, gutxi gora behera, gazteleraren bokaleen balio fonetiko berbera dute.

Alderdi honetatik, hortaz, Hegoaldeko euskaldunentzako bederen, soinu-arazorik ez legoke.

Euskaraz, ordea, (eta hemen izango bide dugu burruka-leku gaitza), bokaleek, kate mintzatuan barrena elkarren ondoan gerta tzen direnean, kutsatu egiten dute elkar; eta horretatik, betidanik eta euskalki guztietan dirudienez, bokale aldakuntza nabarmenak sortzen dira gure hizkuntzan.

Euskara biziago egon den mendeetan, "belarri" bidez ikasten ziren fonetika-joera berezi horik. Gaur, berriz, euskaldun berri askoren doinu arrotzak ongi erakusten duenez, goitik eta behere-tik aldameneko bi erdarak barne-muinetaraino sartzen zaizkigularik, *azaldu* egin behar dira euskal bokaletasunaren lege horik; kon-tsonanteenak edo azentuarenak azaldu beharko diren bezalaxe.

**6.11** Joerarik zabalduena, eta agian eredu edo normaltzat har-tzekoa, ondoko hau izan daiteke ("cambio casi regular", Holmer):

ea	>	ia
oa	>	ua

Iparragirre giputzaren kanta famatua, esate baterako, beti eman izan da honela:

*giltzapian sartu naute*  
*polliki-polliki*

eta ez oso maiz, nik dakidalarik:

*giltzapean*

Era berean:

*Maritxu: nora zuaz*

kantatzen da; eta ez:

*nora zoaz*

Eta Euskal Herriko beste muturrean, bide beretik, honela ent-zun izan da beste hau:

*txoriñua: nurat hua*  
*bi hegalez aidian*

eta ez inoiz ere:

*txoriñoa: norat hoa*  
*bi hegalez aidean*

Orain dela gutxi zuberotar adiskide batek zorrozki esaten zidanez, esakera "dotore" horik "aphezen kontuak dituk". Zeharo konturatu gabe beharbada, xuxen azaltzen zidan esakera arrotzaren kaxoa: alegia, erdal fonetikaren legeak "zuzenago"tzat dituzten jende erdal-eskolatuen joerak direla horik. Herria araeuzko idazkeratik urrun ibili da euskaraz aspaldidanik edo betidanik, honetan eta bestetan, beste erdara asko ibili ohi den bezalatsu.

Euskaraz ez da "dagoen bezala" irakurri behar. Frantsesez eta ingelesez bezala, eta EZIN BESTEAN HAU, gauza bat idazten da eta beste bat esaten. Zergatik? Atzizkiek, aurrizkiek eta hitzen ilarak edo kateak berak FONETIKA ONDORIO GARRANTZI TSUAK dituztelako. Hau gazteleraz ez gertatzea (edo gutxi gertatzea) gauza bat da; "hortaz" euskaraz gertatzen ez dela pentsatzea... kaikukeria eta arlotekeria hutsa.

Jakina. Ohar batzu egin beharra dago hasera-haseratik:

1. Zenbait eskualdetan (Bizkaiko Arratian, Gipuzkoako Goierrian, gutxi gora behera) aurreko bokalearen itxitura hori ez dela gertatzen; eta liburu honen egileak eta beste anitzek ba dakigula hori. Aurreko bokalearen itxituraren joera, halere, OSO ZABALDUA DA euskalkirik gehienetan; eta hau aski da orokortzat eta eredutzat ere proposatzeko. Joera hau, bestalde, zaharra da oso Euskal Herrian.

2. Bokale aldakuntza horik ez direla leku guztietan berdin gertatzen, eta ez gutxiagorik ere. Euskara Batua-ri buruz hau edo hori proposatzea, Idazkeran gertatu zaigun bezalaxe, ez da sekula denen gustokoa izango; beti hemendik edo handik, eta arau bat eman nahiz, aukera edo hautaketa bat egin beharko baita.

Hona hemen, adibide gisa, *aa*, *ea*, *ia*, *oa*, eta *ua* bokale-bikoteei buruz Kandido Izagirrek ematen duen ilara bikoitza:

Batuan: soka, neurea, herria, artoa, burua.

*Brinkolan*: sokéa, neréa, erríe, artóa, burúe.

*Eskoriatzan*: sokíe, neuríe, erríxe, artúe, burúe.

Eskoriatzan, hitz batez, areago hesten dira bokaleak Brinkolan baino; nahiz herri hau hartatik batere urrun ez egon.

Normala ez den esakera bakarra, hain zuzen, idazkeraren arauerako "teorikoa" da (gaur gero eta zabaldugo!).

Batera datoz honi buruz herri xehea, Van Eys, Holmer eta gainerakoak.

Soinu-aldakuntza hau zeharo normala izanik, adibide bakar batzu besterik ez dugu hemen jarriko.

Fenomenoa HITZ-BARRUAN gertatzen da. Santakruz bertsolariaren ahotan, hauxe da punttua:

(G) *klasian / luzian / bakoitzian / gurutzian / alditzian*

eta nun-nahi irakur daitezke, Lexo-ren bertsoetan:

(G) *nekia franko / onian / danian / derrigorrian/ pasa biarra*

Euskalki guztietan horretara:

(AN) *egum batian, bere semiari, atian atzian (=atearen atzean), billatzia, biatza, zenian, larritasunian, betia, etxian*

(G) *bestia, jendiak, biar, artian, arratsaldian, biyotzian, luzia, lanian, aguria, maitia*

(B) *bestiari, semiak, eittia (= egitea), aisia, senian*

(BN) *luzia, kuntiari, maitia, altian, gabiak*

(S) *legía, godalía, e:artía, haustía, trixtía, bakía.*

eta SANDHI-bidez ere gertatzen da:

- (G) —*ara! aldi artan beste txori bat* (Soroa).  
—*pekatu zali au* (Manual Vascongado).

Holmer-ek piloa dakar:

—*etxi au, aldi orretan, andri orrek*

- (G) —*notizi trixti ori, etxi ontan, legi ori, trantzi artan, kantori  
· aiek.*

“Se trata de una tendencia fonética todavía viva” (Holmer, El Euskera hablado, 24).

**Gutziz honen kidea da eo > io.**

Esate baterako:

- (G) —*gurutziaren siñali ori* (Lexo).  
(AN) —*nun egondu zerate tenori ok arte?* (P. Yantzi).

eta aurrekoak bezain maiz gertatzen.

### 6.111 Gauza bera gertatzen da:

oa > ua

Lexo-ren bertso hauen punttuan ageri denez:

- (G) —*pasua / amenazua / jasua / mazua / gozua* (Lexo).  
—*lañuak / dañuak / doñuak / soñuak* (Lexo).

edo

—*ez iltzekuan eta ez illetakuan* (Beobide).

Eta guztiz normala da euskalki guztietan:

HITZ BARRUAN:

(B) —*altua, naikua, itxasuak*

(G) —*bertsuak, gaiztua, zankuak, gonatxuak, soñekua, ardua, biyotzekua*

(AN) —*juambiar, goguan, kazua*

(L)—*kanpuan, goguan*

(BN) —*neskatuak*

Baita xibereraz ere ("régulier" zaio hau Larrasquet-i):

(S) —*lépho / lephúa*  
*ártho / arthúa*  
*séndo / sendúa*  
*gáxto / gaxtúa*

Gauza bera SANDHI-z:

(G) —*kuadru au maniatzen* (Soroa)

eta Holmer-en bilduman, anitz:

(B) —*angu andriek*

—*arruzpiko* (= arro-azpiko).

**OHAR GARRANTZITSUA**

Fonetikazko kapitulu honetan barrena, hauxe hartu behar du gogoan irakurleak:



*ia, ie, io, ua, ue, uo* idazkerak BI silabatan esaten direla; baina:

*ja, je, jo, wa, we, wo* idazkerak, lehengo soinu berak adierazten dituela, baina silaba BAKAR BATETAN esaten direla.

<i>maitia</i>	=	mai-ti-a	(3 silaba)
<i>maitja</i>	=	mai-tia	(2 silaba)
<i>juan</i>	=	ju-an	(2 silaba)
<i>jwan</i>	=	juan	(silaba bakar bat)

Nahiz idazkera teknikoetatik ihes egin nahi, puntu honetan ez zait hoberik bururatu.

6.12 Oso joera zabaldua da, era berean, euskalkirik gehienetan, bokale bikoitzen DISIMILAKUNTZA gizatzen duen joera, bai hitz barruan bai sandhi-tan ere:

ee	>	ie
oo	>	uo

Esate baterako:

### 6.121 ee:

Kanta famatuan ageri da:

*neure semien seme*  
*neure illoba*

Eta eguneroko hizketan:

—*oik andrien kontuk dituk* (= andreen)

—*denon etxietan gertatzen dira olakuak* (= etxeetan)

Baita, noski, bertsolarien bertsoetan, biltzaileak haren esanak zeharo "razionalizatu" ez dituen heinean:

(G) —*iñuxentien bizitza* (Lexo)

—*urtietan* (Lexo)

Eta idazle zaharretan:

(G) —*Flandes-ko itxas-aldietan zijoan* (G. Menan)

—*araugabien izen onari* (K. Beobide)

—*Zazpi igandietako deboziyoaren asiera* (Menan)

—*Kontairagillien utsegite miñgarria* (K. Beobide)

—*jarri dizkigun bidien artean* (Menan)

—*bideko neskietatik atsedentzeko* (Menan)

—*aben atietan deitu zuan* (Menan)

—*txit urtietan aurreratua* (K. Beobide)

—*Sanjosietako asten dira* (Soroa)

—*bestietan* (Soroa)

—*batzubekiñ... eta bestiekiñ* (Soroa)

—*arri kolpiekiñ* (Soroa)

Eta bertsolarietara berriro bihurtuta:

—*bestietan esana* (Iturzaeta)

—*uste ez diran parajietan* (Bakallo)

—*errendituko lirakienak* (Lexo)

## 6.122 oo:

Ikus ditzagun bertsolarien esakera batzu:

- (G) —*aurtengu ontan* (Txirrita)  
 —*oraingu ortan* (Txirrita)  
 —*jeniyu oiek* (Txirrita)  
 —*ontzaku ori galtzeko* (P. Errota)  
 —*bosteku ori ekatzu* (Zubeldia)  
 —*urpeku orrek* (Aranberri)  
 —*paganu oiek* (Aranberri)

Eta, euskaraz etxen bakanka xamar entzun badut ere, makina bat aldiz entzun bide diot nik neure amari:

- (G) —*útikan! erú orí!*  
 —*txorú orí!*  
 —*txotxólu orí!*

Gutziz hizkera herrikoiaeren bidetik:

- zaude ixilik, astu ori* (Altzaga)  
 —*ori esan du mandu orrek* (Altzaga)  
 —*oraiñgu ori diperente da* (Lexo)  
 —*beru onekiñ* (Soroa)

**6.13** Oso orokorra da, era berean, EUSKAL DIPTONGOEI BURUZ (hitz-barruan eta sandhi-tan) eman daitekeen fonetika legea: diptongoen bokaleen artean H-rik ez dagoenean bederen (edo-ta H hori galdu berria ez denean, Iturzaeta-ren ahotan "nari" tzuten dugunean bezala), AI, EI, OI, eta AU, bokale-bikoteak silaba-BAKUNAK direla euskaraz (hitz-barruan eta sandhi-tan, berriz ere), azentoa beti lehenengoan doalarik:

ai > *ái*  
ei > *éi*  
oi > *ói*  
au > *áu*

Adibidez: *áita, déitu, errói, háuse* (eta ez iñolaz ere: *a-íta, de-ítu, erro-í, ha-úxe*).

Harrigarria ere ba da, honi gagozkioz, gure leku-izenak erdal hiztunek nolatan eta noraino lardazkatzen dituzten: *E-ibar, Beasa-ín, Orma-íztegi, Bera-ún, vizca-íno, bilba-íno*; apropos egingo balute bezala.

Diptongo hoik silaba BAKARREKOAK dira beti.

Bertsolarien bitxikeria batzuk H-aren galdu berrian dute kakoa. *Nari* diote behin eta berriz bertsolariek: Iturzaeta, Saikola, Atano; baina *nari* hori, "nahi"tik dator; eta ez NAI berritik. (Ikus Mitxelena, Fonética Histórica Vasca, 88).

**6.131** Alderantziz, eta bide beretik goazelarik, IA, -IE, IO eta UA bokale-bikoteak (aurrekoen alderantziketak, beraz), silaba BIKUNAK izaten dira euskaraz:

ia > *i-a*  
ie > *i-e*  
io > *i-o*  
ua > *u-a*  
ue > *u-e*

Euskalkirik GEHIENETAN diogu, beti bezala; eta Batuaren esakeran, beraz, modu horretara esan behar liratekeela.

Gaur entzuten direnak ez dira euskal fonetika orokorraren arauerakoak: *swerte, fwerte, gobjernu, jwan*.

Hain zuzen ere, Euskal Herriko parte zabal batetan (*ixa*), (*ixe*), (*ixo*) eta (*uba*) entzuten dira: edo-ta antzekoak, silaba-bikuntasuna nabarmen agertzen delarik. Arrazoin askorengatik Ekaldeko joera, puntu honetaz, ez zaigu kontutan hartzekoa; eta euskalkizko esakera gisa utziko litzateke.

Gauza bera entzuten da sandhi-tan: (mendi-y-oitan, zerri-y-ori).

Erdal hiztunek, honetan ere euskal fonetikaren arras kontra, zeharo aldrebesten dituzte gure leku eta pertson-izenak, *garmendja* (3 silabatan), *arrjeta* (3), *elorrjo* (3) *ermwa* (2), *azkwe* (2), eta abar.

Esakera normala hau bailitzateke:

*garmendia* (4), *arrieta* (4), *elorrjo* (4), (edo-ta *elorrixo*), *ermua* (3) eta *azkue* (3).

Aski da mondragutarren *materixalak* gogoraztea... Eta Alzako bertsolarien *alkiyori* (sandhi = alki ori).

Ana Mari Etxaidek egokiro agerrerazi duenez, ("Castellano y Vasco en el habla de Orio"), bestela jokatzen dute oriotarrek gaur bertan eta erdaraz ari direnean ere:

*dies* (2 silaba), *sien* (2), *juez* (2), *miel* (2), *dios* (2), *liriyó*, *nobiyo*, eta abar, erdarazko diptongoak bi partetan emanez.

Joera orokor horren lekuko argitsuak dira, gure herrialdeko bi muturretan, Ziberu-ko Etxahun (*süberte*) eta Bizkaiko Prai Bartolome (*suberte*), biek erdarazko bikuna (*swerte*) hirukun egiten dutelarik.

**6.14** Beste fenomeno batzu aski zabaldua egonagatik ere (*arrie*, *errie* / *eskue*, *burue*, sailekoak esate baterako), liburu honetan eta Euskara Batuari buruz ari garelarik, esakera eredutzat edo normal-

tzat bederen ez proposatzea iruditu zaigu gaur gaurkoz bidezkoena; batasun bilaketa honetan zinez eta osoki **orokorrak** (edo ia orokorrak behinik behin) diren fonetika-legeak **bestarik ez** baitugu kontutan hartu nahi.

**6.15** Gorago aipatu dugun fonetika-joerarengatik (bai kondairazko fonologi mailakoak, bai gaur bertan ere gauza bera gertatzen delako), berdintza hauk eman daitezke:

erd. *ié* = eusk. *e*  
erd. *ué* = eusk. *o*

Hona hemen adibide batzu:

**ie**

- konbenentzia* (Alzo)
- gomenentziya* (Txirrita)
- merenda* (Txirrita)  
(*berendu* ere bai beste lekutan)
- esperentziyak* (Iturzaeta)
- gobernu*
- abendu* (= adviento)
- entendimentu*

**ue**

Ana Mari Etxaidek *corda, porro*, bildu ditu Orio-ko erdaran. Baita *moble* ere (Iparraldean bezalaxe, beraz), "caso claro de repugnancia hacia el diptongo creciente" (Orio, 48).

Harrigarria da ere *mueta* hitz zaharrak *mota* eman duela.

*Truke* hitzak ere joera berbera erakusten du.

Hortaz, *jé* eta *wé* duten euskal hitzak baztertu egin behar dira; batez ere *e* eta *o* dutenak aldamenean eta semantika-balio berberaz daudenean: gobernu, zorte, bortxa, eta abar.

## 6.2 EUSKAL KONTSONANTETASUNAZ

6.201 Hona hemen lege irmo eta orokor bat:

$$(s, z) + (b, d, g) = (sp, st, sk; zp, zt, zk)$$

edo, xehekiago, *sei berdintza* hauk:

$$\begin{array}{rcl} -s + b - & = & sp \\ -s + d - & = & st \\ -s + g - & = & sk \\ -z + b - & = & zp \\ -z + d - & = & zt \\ -z + g - & = & zk \end{array}$$

Lege hau, gainerakoak bezala, HITZ-BARRUAN betetzen da; eta sandhi-z (KATE MINTZATUAN barrena) ere bai.

Holmer-ek honela ematen du lege hau: "Los grupos de sibilante más oclusiva son siempre desonorizados en vascuence" (El idioma vasco hablado, 25).

Ikus ditzagun mordoka.

6.2011  $(s, z) + (b) = (sp; zp)$

Fonetika joera hau:

a) Izugarri ZAHARRA da. Aspaldidanik Mitxelenak oharrerazi duenez, joera berbera ageri da AKITANERAZ (akitamera = erromatarren garaiko euskara baizik ez da). Eta eskuarki “-bon(n)” agertzen den atzizkia, “-pon” gisa izkiriaturik agertzen da frikatibaren ondoren:

“-bon”, beraz; baina “**Andoxponni**”.  
(ikus Fonética Histórica Vasca, 261).

b) OROKORRA da euskalki guztietan, ondoko etsenplu-ilaran agertuko denez.

d) ONDOKO ERDAREK ezagutzen ez duten fonetika-legea da; aitzitik ere, aurkakoa baita. Mintza bekigu Holmer: “El vasco carece de grupos de sibilante más oclusiva sonora (como en español ESGRIMA, DESDE, ESBOZO); en vez de esas combinaciones fonéticas, los vascos pronuncian propiamente consonantes sordas (-zk-, -zt-, -zp-; o -sk-, -st-, -sp-), aun cuando prevalece cierta tendencia moderna a IMITAR LAS NORMAS FONÉTICAS DEL ESPAÑOL (pronunciándose, p. ej., en vasco *ezdá* por *eztá*; *apáiz bat* por *apáizpat*) (Holmer, IVH, 14).

Ondoko fenomenoetan ere agertuko denez, fonetika joera hau OSO BEREZIA da, eta osoki ondoko erdaren kontrakoa. Eta hau ez zaio Holmer-i itzuri: “Se trata de una asimilación progresiva, QUE ES PRIVATIVA DEL VASCUENCE, así como lo ha sido desde hace siglos de las lenguas celtas: en las demás lenguas europeas, como las románicas y eslavas, la asimilación retrogresiva (como en *apáizbat*, en que se sonoriza la Z) parece dominar”. (Holmer IVH, 16.)

Bukaerazko -s gutxi dago euskaraz, bizkaieraz ez bada:

–*iñúspe* (Holmer) (inoiz bere).

-z delakoaz ez dago trabarik, besterik ez balitz ere ez ukaera hor dugulako; baita *noizpait* ezaguna, edo *nolazpait*.



“Si la consomne qui suit le K est une labiale explosive, elle prend ou conserve la qualité sourde; si la labiale est B, elle devient (ou redevient) P” (Gavel).

a) **ez ba** > *ezpa*

(G) *—jarri nai ezpadegu* (Lexo)

*—bideak ezpaditut* (Alzo)

*—ezpadu're* (Urruzuno)

*—ezpalu ikusi* (Txirrita)

*—ezpanaiz* (Soroa)

*—ezpaiz zuzenô portatzen* (= ez ba haiz zuzenago portatzen,  
Motza)

(B) *—emoiten esposu* (Orozko, Barandiaran)

*—espabe* (“de lo contrario”, Bc)

*—emoten espostan* (Barandiaran)

*—alan bazan / ezpazan* (Barandiaran)

*—ezpadostazu ekarten* (Barandiaran)

*—il ezpañoan dragoia?* (Barandiaran)

(BN) *—jaunak ezpalezako*

*hiltzia ofrezi* (Bordel)

(L) *—ezpazuten* (Axular)

*—ezpadakigu* (Axular)

*—utz ezpadeza lainkoa* (Axular) (nahi hainbat, jakina)

(AN) —*ezpazára egiten gauza onetará* (Elkano-ko Lizarraga)

—*ezpaduzu formatzen* (Holmer)

—*indiyabaik ezpazoon* (Izagirre)

—*mantena ezpagaizke ere* (Iruñea, 1609)

—*ezpagina izen* (Izagirre)

—*ezpaduzue izan* (Adoain)

(S) —*ezpalitz agitü* (Etxahun)

—*jiten ezpazaizie* (Etxahun)

—*agertzen ezpazaio* (Etxahun)

b) **ez bait** > *ezpait*

(L) Axular-en izkirioetan nahi bezanbat:

—*ezpaita*

—*ezpaitu*

—*ezpaitaki*

—*ezpaitzakien*

(BN) —*parerik ezpaitu* (Luzaide)

—*nola ezpaituke lehena* (Bordel)

—*kasik ezpeítirots erran* (Bordel)

Fonetika-lege hau ezaguna da aspaldidanik: “les particules BA = si et BAIT ou BEIT = parce que, deviennent (ou redeviennent) respectivement PA et PAIT ou PEIT lorsqu’elles sont précédées de la négation” (Gavel, *Eléments*, 325).

Gauza bera zibereraz:

- (S) —*ezpeitzakian nuat juan* (Helena C.)  
—*halako olhalterik ezpeita Ziberun* (Etxahun)  
—*ezpeinintzan ebili* (Etxahun)  
—*ezpenündia nahi ützi* (Etxahun)

d) **ez baldin** > *ezpaldin*

Horrela mintzo zaigu Lexo bertsolaria:

- (G) —*ojala trabatuak*  
*ezpaldin bageunde!* (Lexo)

eta berdin beste euskalkietan:

- (AN) —*ezpaldin badituzu* (Yantzi)

- (S) —*ezpaldin badüğü* (Helena C.)

e) **Ezezko agintzetan:**

- (L) —*ezpedi hartarako fitsik aipha* (Duhalde)

- (B) —*ezpekizu burutarik kendu* (Añibarro)

—*ezpedi galdu arima au* (Añibarro)

—*gura ezpekizu gu bekatutan iltea* (Añibarro)

f) **Bestetan ere** bide beretik:

- (L) —*Jainkoak gizonek ezpezala jujatzen du* (Duhalde) (= ez bezala)

6.2012 (s, z) + (d) = (st; zt)

Hona hemen adibide batzu:

(G) —*oraindik goiz ta* (Erauskin)

—*noiz tian* (= noiz diran, Garmendia)

(BN) —*errez ta* (Xalbador)

Eta maizenik EZ ukaerarekin. Esakera hau GUZTIZ normala da gaur bertan; eta antzina, areago:

(B) —*eztakit* (Añibarro)

—*eztakus* (Añibarro)

—*eztot inos atzera ekarriko* (Añibarro)

—*eztiraust* (Añibarro)

—*beste ardurerik eztaukozu* (Barandiaran)

Bertsolariaren puntu-beharrak ez du zalantza izpirik uzten:

—*astia / uztia / bestia / eztia* (= ez dira) (Lexo)

Eta honetaz, batera datoz Gipuzkoako jakintsuak eta Gipuzkoako bertsolariak:

(G) —*kasorik egin eztét* (Larramendi)

—*abecea eztakí* (Larramendi)

—*egia ezta* (Larramendi)

—*eztakit aditu're* (Urruzuno)

—*eztia* (Txirrita)

- izan eztezan* (Xenpelar)
- eztik barkatzen* (Bakallo)
- ura eztijua* (Iturzaeta)

Bide beretik gainerako euskalkiak:

- (AN) –*eztakuske* (Iruñea, 1609)
- fantasiarik eztagizula* (Iruñea, 1609)
- eztákit* (Elkano-ko Lizarraga)
- eztaike manteni garbi eta kasto* (J. Lizarraga)
- eztakiziéla ági errátea itzgoi* (J. Lizarraga)
- (L) –*zer on eztatxeizko aphalesguneari* (Duhalde)
- iokoa ezta errenta* (Axular)
- eztuenik* (Axular)
- eztugu* (Axular)
- eztakigu* (Axular)
- (S) –*eztákit* (Larrasquet)
- ezta ihur ere* (Etxahun)
- eztüzü nigatik sofritü* (Etxahun)
- eztizüt nahi hunik, ez eta uhurerik* (Etxahun)

Eta Hegoaldeko “baxenabartarrak” ere bide beretik ari:

- (BN) –*eztakigu nola egin*  
–*aien alabantzak* (Bordel)

Baita Hegoaldeko "xiberutarrak" ere:

(R) —*nik eztúr entzún* (Artola)

—*eztóker xan ónki* (= ezin dezaket ongi jan)

—*eztiéla xátan*

—*eztún, eztúk*

*ez dakit, ez da etorri*, eta abar, errotik dira berrikeriak eta euskal fonetikaren arrunt kontrakoak.

Eta oraindik ere zalantzan dagoenak, ondoko hau irakur beza:

(B) —*Eztakus, eztantzu, eztabil, eztau zirkinik ez txitik egiten* (Añibarro, Eskuliburua, 26).

## 6.2013 (s, z) + (g) = (sk; zk)

Fonetika-joera hau, gorago esana dagoenez, ahultzen hasia da. Baina orain dela gutxi arte guztiz azkar egon da:

erd. desgrazia	eusk. deskraziya (Zabaleta)
juzgar	juzkatu (Alzo, Iturriaga)
mayorazgo	maiorazkua (Txirrita)

Honen arabera esaten zuten Txirritak:

—*atso gaiztuen juzkua.*

a) Konjuntzio gisa hartua izan delako (= **ezkero**), jatorrian dagoen sandhi-a ahanzi bide dugu:

—az gero > —*azkero*

—z gero > —*zkero*

Oraingo berrikeriak eta erdalkeriak gertatu arte, ez zitzaion inori ere bururatu *ori esanez gero* (!!)

—*emate ezker* (Xenpelar)

—*atera ezker* (Soroa)

—*jarri ezker* (Zulaika)

—*pasatu ezker* (Saikola)

—*oietara ezker* (Barandiaran)

(Bertsoen punttua neurtuta, bestalde, nekez onar daiteke —*zker* denik, eta ez *ezker*, hiru silabatan).

b) EZ ukaerarekin fenomeno bera gertatzen da:  $g > k$ .

Hona adibide bakar batzu:

(B) —*ezkéndun áitten* (Holmer)

—*aspaldian ez kosak arkalegaz* (Barandiaran)

(G) —*ezkera txarrak izandu* (Txirrita)

—*guk ezkentzake erosi* (Txirrita)

—*ezkabilitzan okerretik* (Iturzaeta)

—*ezkendukake bestela* (Txapel)

—*indarrik ezkenduben da* (Txanka)

eta Iturzaetak ere:

—*zeiñ ezkeran ibiltzen*

*arrasto zuzenez* (Iturzaeta)

edo Azkuek bildua:

—*ezkaituk alperrik lanean ari.*

(AN) —*gu ezkára sanduak* (Elkano-ko Lizarraga)

(L) —*ezkara deus ere* (Axular)

—*ezkenduke geuretzat aski* (Axular)

—*ezkaitezilla* (Axular)

—*ezkaitu jaunak jujatuko* (Duhalde)

—*ezkaitu enganatu* (Duhalde)

(S) —*amorekati izan ezkitian*

*hil onduan damnatü* (Recoquillart pastoralean)

## 6.2014 EZ-en gainerako loturak

Hauk dira:

a—	ez	n-	>	<i>en-</i>
b—	ez	h-	>	<i>eh-</i>
d—	ez	l-	>	<i>el-</i>
e—	ez	z-	>	<i>etz-</i>

a) Hona hemen adibide batzu:

(G) —*enuke esango* (Urruzuno)

—*enituan nik desamortizatuko* (Urruzuno)

—*enekian, jauna* (Urruzuno)



- bestan enitzen* (Txirrita)
- enaiz etorriko billa* (Txirrita)
- enuben ikasi* (Xenpelar)
- enatorrek ni berriz* (Motza)
- apartatuko enatxak* (Erauskin)
- enatxiak gaizki* (Izuela)

Lexo-ren bilduman ageri da biltzaileen joera: “bertso pape-rean ez-nak”, baina:

- (G) —*sekulan ezkonduko enak*  
(*daudenak / penak / astelenak*) (Lexo)

baina:

- (G) —*enaiz sesiyuan ari* (Lexo).

Eta bide beretik:

- (G) —*enitzake orrenbeste larrituko* (Alzaga)  
—*enitubela aldatu* (Soroa)
- (B) —*enendorke* (1443-ko kanta)  
—*enaiz etzingo* (Barandiaran)  
—*iñok enau ikusten* (Barandiaran)  
—*enakutsu, banakutsu* (Azkue)
- (BN) —*nik enikezi dudarik* (Luzaide)  
—*enaite konsola* (Luzaide)  
—*enintzela egonen* (Luzaide)

- (S) —*eniz estonatzen* (Etxahun)  
 —*aitak enündilakoz eskola erazi* (Etxahun)  
 —*bihotzez enialarik herria kitatürrik* (Etxahun)  
 —*enüzü ez ordi* (Helena C.)  
 —*eniro erran ahal* (Helena C.)

b) Bigarren pertsonetan:

- (L) —*ehitzakete beraz orai nere seinduek onhets* (Duhalde)
- (BN) —*ehaizela joaiten* (Barandiaran)  
 —*nihun eiz bagatuko* (Barandiaran)  
 —*ehintzala bortian izan* (Etxahun)  
 —*zumbat ehio estima* (Etxahun)  
 —*ehadila ez afliji* (Xiberua)  
 —*eia ehaidanez idekiren etxerik* (Xiberua)  
 —*ehien hula tinkatu* (Recoquillart)  
 —*ehiz hiltziaz orhitzen* (Kantika E.)  
 —*ehaie hanitz hunkitzen* (Kantika)  
 —*behin baizik ehiz hilen* (Kantika)

d) Aski galdua, zenbaiten ustez. Egia dea, ordea?

- (G) —*elikio iñork igarriko* (Urruzuno)  
 —*elitzake juezen bearrik* (Urruzuno)

- iñork eluke esango* (Soroa)
- eliteke orain abitu* (Zepai)
- eleike atera izen* (Iturzaeta)
- eleike jarri toki obiaguan* (Iturzaeta)
- biar banuke elitzairake ajolik* (Soroa)
  
- (B) –*elei ori* (Barandiaran)
  
- (L) –*elitzake torriko* (Mattin)
  
- (BN) –*oriek oro deus elitaizke* (Luzaide)
- munduan elaitেকে ainbeste dolu* (Luzaide)
- oriek oro deus elitaizke* (Luzaide)
  
- (S) –*elio lüzaz prezia* (Etxahun)
- elitzeikezü komeni* (Etxahun)
- eliro ihurk sinets* (Helena C.)
- elizate enia estonatzeko* (Helena C.)
- ihurk elüke desirätzen* (Kantika)

e) Lotura guztietan biziena. Adibide bakan batzu aski, hortaz:

- (B) –*infernura bota etzaikezan* (Añibarro)
  
- (G) –*etzituan konpondu're nai* (Urruzuno)
- etziok inportarik* (Xenpelar)
- nola etziran arrituko?* (Beobide)

- (AN) —*etzákijen zer tzian* (Holmer)  
 —*il etzaitzan begirauzu* (Iruñea, 1609)  
 —*zuék etzaráte sandu* (J. Lizarraga)

(S) —*etzünin* (Etxahun)

**6.202** Aurreko legearen antzera, eta beharbada biziago atxikia:

(**ts, tz**) + (**b, d, g**) = (*sp, st, sk; zp, zt, zk*).

*Oharra*: teorian bederen **-tx-z** bukatzen diren hitzek bide berbera segitzen dute; lehen **-x-z** esan genezakeen bezala.

Euskaldun batek ez du inoiz esango: *ezetz ba*; baizik-eta, beti, beste honetara: *ézezpà*. Era berean *izpat* esaten du; sekula ez *itz bat*.

Toponimia osoa mintzo da honen alde: *azpeitia, azkoitia, azkarate, aizkorbe, ezkarai*, eta abar; beti gogorraz, eta inoiz ez ozenaz. Jakina denez *aizkorri* da "Aitzgorri" delakoa (ikus Gandiaga edo Kandido Izagirre-ren lanak; edo-ta Barandiaran-enak); baina etimologikeriak ez bide gaitu oraingoz baketan utzi...

Aurreko **ts > s** gertatzen da, (*huseria*) eta era berean **tz > z**. Baina hau gogor bide zaie etimologizaleei (Axular-ek berak ere hamu hau irentsi zuen honetaz). *Moztu* esaten da, ordea; eta ez *motztu; hoztu*, eta ez *hotztu; mingostu, histu, zorroztu, lastu*, eta abar, afrikaziorik GABE, esaten diren bezala. Gauza bera (*h*)*izpide, balizko oleak, hizkuntza, mahasti*, eta beste mila.

Hona hemen, biltzaileek eman dizkiguten bezalaxe, etsenplu batzu:

- sendatutzen gaitz ta* (Alzo)  
(dudarik gabe > *gaizta*)
- gizona motz ta* (Alzo) (= *mozta*)
- eroritzen gaitz ta* (Astiasu) (= *gaizta*)
- uzten izugarri gaitz ta* (Erauskin)
- esan biar ditut itz pi* (Txirrita) (= *izpi*)
- jarri biar dizket itz pi* (Txanka)  
(dudarik gabe > *izpî*)

(Adibide hauk, bertsolarietan beti bezala, Auspoa-sortaren arauera ematen ditut; eskuarki bederen).

Zer esanik ez: Holmer-ek esana duenez, “se convier-te cualquier africada final en la correspondiente sibilante”; eta berorren ondoren ozenari eustea (*b, d, g*) ez da euskal fonetikaren arauerakoa. “Más castizo” zaio Holmer-i (IVH, 26) *ózta(g)o* esatea, jakina, *ózda(g)o* baino.

Gauza bera, bestetan bezala, sandhi-tan eta hitz barruan.

### 6.203 (t, k) + (b, d, g) = (p, t, k)

Hona hemen gaurtxe arte oso bizirik egon den fonetika-legea. /t/ eta /k/ fonema gogorrak izanda, eta soinu-gabeak, lege hau eta 6.201 puntuan azaldu duguna, *elkarren kide hertsia*k dira: aurreko fonemak bere gogortasuna baizik ez du azterna gisa uzten, bigarrenak berriz bere artikulazio-puntua atxikitzen duelarik (asimilazio-plegu berbera, hitz batez).

Goiko formula horren bidez *sei* fonetika-aldakuntza biltzen ditugu:

- 1-  $t + b = p$
- 2-  $t + d = t$
- 3-  $t + g = k$
- 4-  $k + b = p$
- 5-  $k + d = t$
- 6-  $k + g = k$

Sortzen den soinu-ondorioa kontutan harturik, hortaz, ikus dezagun fenomenoa hiru partetan.

a)  $(t, k) + (b) = (p)$  (1 eta 4)

Etimologiarekiko isuria dela-ta, aurreko letra idatzi egiten da batzutan, nahiz eskuarki arrastorik ez utzi:

*bápes* entzuten da bizkaieraz.  
(eta ez teoriako *bat be(re)ez*.)

Barandiaran-ek bildutako ipuin honetan ongi ageri denez:

- (B) *-bape obeak es dira*  
*orraskerokoak* (Barandiaran)

eta ondoko adibideotan:

- (B) *-iñope ezeuen ezetu* (Holmer)  
*-pipérripe* (egunero errana)  
*-bérape* (Holmer, = berak bere)  
*-ori dok pa* (San Martin)  
*-trukauko naitxukek pa* (San Martin)  
(bi hauetan *K* ageri da; eta esan ere egiten da Eibarren beharbada. Baina ongi liteke ere idazkeraren

eraginez izatea. Mitxelenak ederki esana baitu arazo hauetaz: "el respeto a la letra escrita domina hasta a los lingüistas". Nola idatz "do", hortaz, hainbestetan "dok" irakurri ondoren?)

—*inó(k) pes* (= inork bere ez)

—*beste aberatsak bape ez eukela* (Barandiaran)

(G) —*nípezelaxe* (Izagirre, Altsatsun bildua)

—*arraun lanian geradelako oipañon abillaguak* (Saikola)  
(= oik bañon, horik baino.)

—*nundipait lanian* (Izuela)

—*biñipiñ* (Txirrita) (eskuarki *beñipein*)

—*ortzio pa* (egunerokoa)

—*etxên sartuko beyik pae* (Barandiaran)

—*batipat* (= batik-bat)

(AN) —*emakumie perríz* (Izagirre)

—*gízakumie perriz é* (Izagirre)

—*dánopatin* (Izagirre)

Eta baita Ziberoan ere, Larrasquet-ek xehekiro azaldu due-  
nez:

—*nípai* (Larrasquet)

—*hí pazkátü* (= hik bazkatu)

"Le groupe  $k + b$  se réduit, dans le discours suivi, à une consonne unique, labiale, sourde, fortement explosive:  $p$ ". (Larrasquet, Vélaires, 159)

Hona hemen orain  $t + b = p$  erakusten duen adibide-ilara bat:

(B) —*bost pider* (Añibarro) (*t* entzuten ote?)

—*linda eder galanpat* (1609)

—*esta bápe* (egunero)

(G) —*ardipat azaltzen ez etxian* (Soroa, = ardit bat)

—*basarri txuri polipat* (Txanka)

—*istanpat* (Bakallo, = istant bat)

—*txurruptat* (Soroa, Altzaga)

—*gauza polipat* (Txirrita)

—*negar begi bapederak* (1564) (= bat bederak)

(AN) —*laño polipat agertu mentzen* (Barandiaran)

\* \* \*

b) ( $t, k$ ) + ( $d$ ) = ( $t$ ) (2 eta 5)

$t + d$

Hona adibide batzu:

(G) —*dibertsioy bata* (= bat da, Xenpelar)

—*bost tia* (Txirrita, Saikola). Geminazio hori ez da batere segurua, Izagirre batzutan zalantzan ibilia bada ere; eta *bos tia* entzun daiteke, "bost dira" noski.)

—*zenbatan ezin juzka liteke* (Txirrita)

—*bizi dana bat ta* (Garmendia)



—*zuzen nunbait tia* (Barandiaran)

—(*bos tia, bata, nunbai tia* entzunak, eskierki)

(BN) —*presta* (Xalbador, = prest da; eta besta, tximista eta erre-  
kestarekin dator, germinaziorik gabe itxuraz)

(AN) *zenbatia* (Izagirre)

**Oharra: EZ DAGO GEMINAZIORIK (= t + t).** “Nous n’a-  
vons pas noté de redoublement de consonnes: le  
parler de Soule y répugne, ainsi que TOUT DIA-  
LECTE euskarien” (Larrasquet, 61). Gavel ere iritzi  
berberekoa zen.

### **bait d > bait**

Aurreko legearen ondorio da:

(G) —*oso apalak baitia* (Saikola) (Kasu hauetan ageri da garbiki  
geminaziorik ez dagoela)

—*so matua baitago* (Larramendi)

—*gauza ona baita* (Txirrita)

—*nola Errenteriya*  
*baitagoen bian* (Aranberri)

—*baïtauka* (Santakruz)

(AN) —*baitu bakotxak berea* (J. Lizarraga)

—*baitu oposizio kastidadearen kontra* (J. Lizarraga)

(L) —*ezpaitugu uste* (Axular)

—*salbatzen baitira* (Axular)

- (BN) —*baitaki bai huntsa* (Bordel)  
 —*nehork ezpaïtu maite* (Xalbador)  
 —*nik nihauren berri baitakit* (Xalbador)  
 —*baitauku emana* (Xalbador)
- (S) —*gáltzea beítá* (Casenave)  
 —*beitü mündü huntan sofritü* (Helena C.)  
 —*erraiten ahal beítüt* (Etxahun)  
 —*beítía, beítie, beítütie, beita* (Larrasquet)

\* \* \*

**k + d > t**

Lege honen argigarritzat, oso etsenplu zaharra dugu; Ma-txin Zalba-koak 1415-an izkiriatu zuen gutuna:

—*jauna tizula abarion* (= jaunak dizula)

Joera, hortaz, ez da atzokoa... Eta hor ageri da, bere osoan, geminazio aztarnarik gabe; *bait*-en kasuetan ere ageri den bezala.

- (G) —*alfer alferri ta* (Txirrita)  
 (oso gogoangarria da J. A. Zabalak ezin bestean erantsi behar izan duen oharra; Txirrita, 35.)  
 —*gizon piñaren kalidadiak otia* (= ok dira, Txirrita)  
 —*ezurrak gogortu,*  
*belarriak gortu,*  
*enbidia nortu.* (Xenpelar)  
 (nortu = nork du, noski.)

- kontu txarra(k) tira* (Itxaspe)  
(erretira / urrutira / barrutira / txarratira)
- nortu* (Iturzaeta, = nork du)  
(agertu / sartu / artu , bêrtu, edertu, nortu) (*k*-ren arrastorik ez.)
- gútanok* (Izagirre, = guk danok, Altsatsun.)

(B) –*orrék takó* (Holmer)

–*bardiñak tie* (Holmer)

–*ník tekót* (Holmer)

(*k* horik parentesi artean jartzen ditu askotan.)

–*nería(k) tie* (Holmer)

–*eiñak tittut* (Holmer)

(S) –*núrtaki* (Larrasquet) (= nurk daki)

(Eta hau dio: "ainsi articulé et accentué dans toute la Soule", L'action de l'accent, 41.)

(AN) –*Jáinku tezúla senárgai txár* (Izagirre)

–*baderuitei páloma tiala* (Izagirre)

\* \* \*

c) (t, k) + (g) = (k) (3 eta 6)

Hona hemen adibide argitsu batzu:

t + g

- (B) *–boskarrena* (Añibarro)
- (G) *–ogei ta bakarrena* (Izuela) (= bat garrena)  
*–nola baikeran zuriak* (Txirrita)
- (L) *–zahartuko baikina bezala* (Axular)  
*–baikiniaki bezala* (Axular)
- (S) *–gaxki bizi beikira* (Etxahun)  
*–hitzak hala beiküntin* (Etxahun)  
*–hainbeste beikia alde ootaat hürün kürritü nahi* (Herria, S)
- (AN) *–atra baikaitu infernutik* (J. Lizarraga)

Xibereraz maiz aurki daitezke horrelakoak:

*–urus izanen beikira* (Kantika)

Eta Larrasquet-ek guztiz normalizat ematen ditu ilaran:

*–beikía, beikütük, beikinén, beikütie, beiküntién* (Larrasquet)

k + g

- (G) *–gustaturikan egonak kera* (Lexoti)  
(*k* bikoitz hori izkiriozkoa da, noski, eta *ez ahozkoa*; behin eta berriz eman ditugun arrazoinengatik.)
- (B) *–aro biakaz guztiz apaindurik* (Otxandio-ko Iturzaeta)  
*–zuen gorputzeko zirkinakaz* (Iturzaeta)  
“–gaz, que en el plural se convierte en –kaz; por asimila-

ción a la *-k* final de la terminación del nominativo” (Holmer)

—*gíxonakaz*

—*éskuekaz*

(S) —*gükinizün* (Gavel, = *gük ginízün*)

(BN) —*duaika* (= *dudarik gabe*)

### 6.2031 Bait- gainerako loturetan:

*Ez bezalaxe lotzen da, euskarazko z eta t, soinugabe izaki, kideak baitira asimilazioaren aldetik:*

bait + n > *bain-*

bait + h > *baih-*

bait + l > *bail-*

bait + z > *baitz-*

Hona hemen adibide batzu, joera hau bestetan ere betetzen dela ahaztu gabe:

—*bana, bosna* (< *batna, bostna*); *zenbana*.

n)

Esate baterako:

(BN) —*ez bainezaken bertzela* (Xalbador)

—*uste bainuen* (Xalbador)

- (S) —*ezpeinitzeion aski* (Etxahun)  
 —*húra beinín maithátü* (Etxahun)  
 —*ordükoz beinakian* (Etxahun)  
 —*etxeki beinaie presü* (Etxahun)

(L) —*ezpainaiz* (Axular)

## h)

Zibereraz errazkienik:

- (S) —*ezpehündien hartü* (Recoquillart)  
 —*hik, zuin sarrí nabasíki*  
*beihizate hilik hobian* (Kantika E.) (= beit hizate)

## l)

Tankera honetan gertatzen den arabera:

- (G) —*lenbailen* ( < lehen - bait - lehen)  
 (B) —*eurelez* (Holmer, eurek lez)  
 (L) —*ezpailakiket haizu erratea* (Duhalde)  
 (S) —*hura belüke* (Etxahun)

Eta, bizienik, *ez-en* kasoan bezala:

z)

(L) *—iduritzen baitzaiku* (Axular)

(G) *—eliza egin baitzuten* (Zubeldia)

(S) *—baratü beitzen ordian* (Helena C.)

*—deliberatü beitzian* (Helena C.)

Lau adibide hauk sail honetarako aski baitira.

### 6.204 (l, n, r) + (z, s, x) > (l, n, r) (tz, ts, tx)

Ana Mari Etxaidek ongi azaltzen duenez, “la pronunciación de las sibilantes, en vasco, es africada después de *n, l, r*” (Orio, 60).

Gure idazle zaharretan puntu hau maiz ahantzia, arreta berezia bide zeukan Añibarrok (*nor tzarean, beartsari, iltzan, egintzan*, eta abar). Ikus haren “Eskuliburua”. Horrelako idazkeraz mukurru dator.

Joera hau oso zaharra eta orokorra dela garbi ageri da erdaratikako hitz zaharretan: *dantza, faltsu, galtza, pentsatu*; eta bizirik dirauela esan daiteke: *kontzejal* (Iturzaeta), *deskantsu onian* (Iturzaeta), *pentxamentu ta beste lore batzubek* (Soroa), eta abar. Beti ere gauza bera izan behar da gogotan: bertsolarien biltzaileek, bertsoak “apaindu” nahiz, askotan aldatzen dituztela jatorrizko esakerak. Argi eta garbi dakigu hau, bestetan ere esana dudanez, Etxahun ziberutarraren lanaz.

Goazen atalka.

### 6.2041 (l) + (z, s, x) > ltz, lts, ltx

“Cambio importante y general”, “dentro de palabra, como también a menudo en sandhi” (Holmer, IVH, 25).

(G) —*eta il tzuen serpientea* (Barandiaran)

Aldakuntza hau zeharo normala da; eta zenbait aldiz, puntua dela-ta, bertsolarien bildumetan nabarmentzen:

—*ditzan / zebiltzan / zitzan / bizitzan / iltzan* (Iturzaeta)

Hamaika adibide bil baliteke ere, hona hemen banaka batzu:

(G) —*il tzan* (Iturriaga)

—*emen al tzaudete* (Barandiaran)

(B) —*il tzanari* (Añibarro)

Fonetika-lege honi ez eusteko arrazoinik ez dut ikusten. Eskuarrena afrikazioa da, ene ustez.

#### 6.2042 (n) + (z, s, x) > *ntz, nts, ntx*

Aldakuntza hau ere guztiz normala da:

(G) —*intzazu alegiña* (Errenteri, = egin zazu)

—*esan tzion* (Holmer)

—*omen tzan* (Holmer)

—*jun emen tzan* (Holmer)

—*zer esan tzun* (Holmer)

(G) —*ikusten tzitun* (Barandiaran)

—*ein tzak* (Barandiaran) (= egin zak)



- botatzen tzutena* (Barandiaran)
- emen tzuten* (Barandiaran)
- geldittu mentzîn* (Barandiaran)
- an ze eitten tzôn* (Barandiaran)
- emen tzeillen* (Barandiaran, = omen zebillen)
- zeiñ tzan* (Barandiaran)

- (AN) –*eraman tzuen* (Holmer)
- esaten tzuen* (Holmer)
  - emen tzauzkat* (Holmer)
  - juan tzitzaion* (Holmer)
  - erantzun tzion* (Holmer)
  - eitten tzuenian* (Holmer)
  - jun emen tzan* (Holmer)
  - fan tzen* (Holmer)
  - nun tsartu* (Holmer)

- (B) –*dispentsa*
- kontsolio*
  - kuntsentitü* (Helena C.)

6.2043 (r) + (z, s, x) > rtz, rts, rtx

Beste biak bezain bizia eskualde askotan:

- (G) —*artzak* (egunero) (eta ez *(h)ar zak*)  
 —*zer tziren* (Holmer)  
 —*izan bear tzun* (Barandiaran)  
 —*attona zartzar bat* (Barandiaran)  
 —*zer tzaio* (Holmer)  
 —*lizartzan* (Holmer)  
 —*kartzela* (Holmer)  
 —*iurtzi* (Holmer)

(AN) —*zer tzuen* (Holmer)

(B) —*popuertzakue* (Praí Bartolome, = por puerza...)

(L) —*bortxatu, bortxaz*

eta askotan ere:

—*bertso, bertsolari*.

## 6.205 (i) + (l, n, s, t, ts) > (ill, iñ, ix, itt, itx)

Bustidura (= palatalkuntza) *ez da Euskal Herri osoan eta kasu guztietan gertatzen*: Bizkaian maizago gertatzen da, eman dezagun, Baxenabarren baino. Jakina da hori.

Euskara Batu *Idatzian, bustidura diren kasoetan* (baño, illabete, itxaso, eta abar) jatorrizko eran izkiriatzea erabaki da (= baino, (h)ilabete, itsaso, eta abar).

Baina:

1) *ll*, *ñ*, *x*, *tt* eta *tx* guztiak EZ DIRA beste zerbaiten bustidura:

*llabur* ez dator \**ilabur*-tik  
*ñir-ñir* ez dator \**inir-inir*-tik  
*xamur* ez dator \**isamur*-tik  
*ttotta* ez dator \**itoita*-tik  
*txakur* ez dator \**itsakur*-tik

Era berean, *andereño* ez dator \**andereino*-tik.

2) *Ahozko* hizkuntzari dagokionez (eta Fonetikagintzan hizkera *mintzatua* zaigu axola, eta ez idazkera), *orokorrago* da palatalkuntza, bestea baino:

<i>baño</i>	normalago	<i>baino</i>	baino
<i>(h)illabete</i>	"	<i>hilabete</i>	"
<i>ixuri</i>	"	<i>isuri</i>	"

(G) —*miñgaiñ*, *jakiñ*, *jakiño*.

Bizkaieraz, zibereraz ere, askotan dago bustidura.

Iruditzen zait, hortaz, *esakera bustia* egokiago dela Euskara Batuaarentzat, bustidurarik gabea baino. Eta ez dagoela *baino*, *ila*, *isuri*, *paitarra*, eta araberakoak, zertan horrela esan BEHARRIK.

6.206 Hitz haseran:

erd. (p, t, k)— > eusk. (b, d, g)-

Caro Baroja-k, Mitxelena-k, eta bestek, orain baino lehenago azaldua dutenez, haserako "gogorak", "ozen" bihurtzeko joera

zaharra eta sakona izan du euskaldunak erromatarren garaitik honeraino:

—*galamu, gurutze, goru, gorta, golde*

—*dorre, denbora, dorpe, durdo*

—*bake, bike, bekatu, barkatu*

Bizirik ote dago joera hori?

Gavel jakintsuak ezetz uste zuen: “la loi de sonorisation des explosives sourdes initiales est depuis très longtemps une loi morte” (Eléments, 315).

“Lege” hitza (beste puntuetan bezala, bestalde) *joera* gisa ulertuz gero, ordea, *bizirik* dagoela dirudi; eta, hortaz, erdaratikako hitzak, kultur hitz *ez diren heinean bederen*, antzinako sonorizazio horren arabera behar liratekeela hartu.

Hona adibide batzu:

**k**

—*gomenentziyak* (Alzo, Txirrita)

—*gonbiratzen* (Alzo)

—*gomertitu* (Txirrita, Iturzaeta)

—*gostata* (Txirrita)

—*gambiyatu* (Xenpelar)

—*gombertsaziya* (Garmendia)

—*galbario* (Txanka, Iturzaeta)

—*gombatia*

- gorbata* (Txirrita, Orio Etxaide)
- goliflor* (Orio Etxaide)
- gombeni* (Yanzi)
- gambion* (Orio Etxaide)

**t**

- Diburtzio* (Iturzaeta)
- denborale* (Garmendia, Txanka)
- daratulu* (= taladro)
- dendatu gaitezan* (Prai Bartolome)
- danborrada*

**p**

- Balenkaleku* (Barandiaran)
- bortu* (BN, S)

**6.2061** Alderantziz ere gertatu ohi da:

**erd. (b, d, g) → eusk. (p, t, k)–**

(nahiz joera hau bestea baino ahulago izan):

**k**

- kitarra* (Urruzuno)
- kastu, kastatu* (Alzo, Urruzuno, Barandiaran, Errikotxia, Txanka)

—(*kastau*) (Prai Bartolome)

—*kolpe* (Iturzaeta)

## 6.207 Bokaleren arteko (b, d, g) > ∅

Hona hemen Holmer-en hitzak: “(g, b, d) medias, sonoras, tienen tendencia a hacerse fricativas en la posición intervocálicas, según las mismas reglas que en español” (Holmer, 16). Eta hau erasten du: “en la posición intervocálica la media sonora, fricativa, tiende a suprimirse”.

Hauxe erdal bilakabidearen kaka:

*estado* > *estado* > *estao*

Bokaleren arteko (b, d, g) horik, frantsesek egin ohi duten bezala, egiatzko oklusiba gisa ematea, euskal fonetikaren aurkakotzat jo behar da.

Ez da hemen proposatzen, noski, -(b, d, g)- > ∅ egitea. Baina bai beste hau: (b, d, g) horik bokale artean *askotan* galdu direla *kontutan harturik*, (*b̃, d̃, g̃*) gisa *ahozkatzea* (*gaztelera bezala... baina ez... frantses bezala!*).

Goazen atalka:

## 6.2071 -b- > -∅-

—*automoillak* (Urruzuno)

—*etxeverria* (antzinako idazkerak ba du bere funtsa)

—*emen tzeillen* (Barandiaran (= zebillen, noski))

—*atea zâldu* (Barandiaran)

- emen tzeiltzen* (Barandiaran)
- ba zellela erri artan* (Barandiaran) (= ba zebilela)
- ez ementzôn ezer ê irâzten* (Barandiaran)

Eta oso maiz *bat*-en *b* hori bokale baten ondoren datorrean:

- piskat* (= piska bat)
- puskat*
- makiñat diru* (Saikola)
- azáburu at* (AN, Holmer)
- léguat* (AN, Holmer)
- azkánarruat* (AN, Holmer)
- neska gazteat* (G, Barandiaran)
- beingo atên* (G, Barandiaran)
- alako atên* (G, Barandiaran)
- katê aundiât* (G, Barandiaran)
- botin aundi atzûk jantzitta* (G, Barandiaran)
- orrekin zailtzen artên* (G, Barandiaran)

## 6.2072 -d- > -ϕ-

a)

- Ze milla emonio!* (T. Altzaga)
- aren arima galdu a* (P. Errota)

- daukat* (oso maiz)
- tristiôik ote a?* (Barandiaran)
- gauza earra* (Uranga)
- erie eo makia* (Barandiaran)
- ïgerri eust niri* (B, Barandiaran)
- fedia etsella galdu* (Barandiaran, B, = ez zedila)
- zomorroe diruik* (G, Alza)
- emáak* (S, “tous sans exception” Larrasquet)
- nahi ük jin náin?* (S, Larrasquet)

b)

Oso maiz, aditz laguntzailearen d- bokale artean gertatzen delarik:

- asi itezela* (G, Iturzaeta)
- ezpaiyou* (G, ez ba diogu)
- bauket esperentzi* (Urki)
- esango izut* (normalki)
- eskatu itut* (normalki)
- bakizu* (normalki)
- neuk emongo tsut ogie* (B, Barandiaran)
- bakusu, bakusku* (B, Barrutia)
- bakit* (B, P. Bartolome)
- zertako ttuzte* (AN, Holmer)



- bagoz* (B, P. Bartolome, = ba dagoz)
- pañelurik bakozu?* (P. Bartolome)
- ageri zü* (Etxahun, S)
- balimbáük* (Etxahun, S)  
 (“cette vocalisation étant un fait courant et universel chez les souletins de toutes régions”, Larrasquet)
- ekarri ttuzte* (Txirrita)
- txikitu ituzte* (Txirrita)
- merezi ute* (Bordel, BN)
- esango zute* (Motza)
- bialdu itugu* (P. Errota)
- jarriko izkitzut* (Garmendia)
- eskiribatuko itut* (Axular, L)  
 “Axular vocalisait déjà le *d* intervocalique” (Larrasquet).

**6.2073** -g- > -Φ-

- (B) –*bere garbitasuna jaon* (A. Iturzaeta)
- liorra* (P. Bartolome)
- ezautu ginai* (P. Bartolome)
- al badaizu* (P. Bartolome)
- al badai* (P. Bartolome)
- kampora urten guru* (= gura dogu, Barandiaran)
- neskia nearrez* (Barandiaran)
- lenaukuek* (Barandiaran)

- oneri eraitten* (Barandiaran)
- ies eiñ eban* (Barandiaran)
- oiñ ondo nau* (Barandiaran)
- amaana joan zan* (Barandiaran)

- (S) —*diaü* (Larrasquet, “constamment”)  
 —*éin düka?* (Larrasquet)

- (G) —*ez eoteatik* (Holmer)  
 —*eúm batian* (Holmer)  
 —*zulo bat dau* (Barandiaran)  
 —*eondu ementzan* (Barandiaran)  
 —*geiao* (egunero)  
 —*eitte ementzítûn* (Barandiaran)  
 —*orreati* (Barandiaran)  
 —*esan deun neska* (Barandiaran)  
 —*soro ta sâsti zebillen* (Iturzaeta)  
 —*san miel* (Barandiaran)  
 —*eunero* (normala)  
 —*sâstia* (Barandiaran)  
 —*deadar eiñ ementzôn* (Barandiaran)  
 —*eun batzûtako bê etxea jûteko baimena* (Barandiaran)

- (AN) —*izuarri batek* (Holmer)  
 —*etzen muitzen* (Holmer)

—náusi (Holmer)

—aita santuana (Holmer)

—ezpazen iñor ioten mendíra (Barandiaran)

## 6.208 -r- > - Ø -

Era berean:

*Bokale arteko -r- oso ahula da euskaraz. Ez gaurko zibereraz bakarrik (han dío esaten baita, eta ez díro; eta gúe, eta ez gúre, esate baterako); baina gainerako euskalkietan ere joera berbera nabaitzen da:*

—gwasen etxea

—atea ein biar dogu

—batea eta bestera

“Xenpelar” izena ez da, izan, jatorrizko “Senperelárre” baik.

Hona etsenplu batzu, sailka:

**ara** > **aa**, eta antzekoak.

(G) —ontâ ezkeru (Txirrita) (= (h)ontara ezkeru)

—biyamunian (Zubeldia) (= bi(h)aramunean)

—ezen arrastoik etzanên (Barandiaran)

—elizâ eamatera (Barandiaran, = elizara)

—bé eaztunêkin (Barandiaran)

- urrek *iixteko asmôn* (Barandiaran)
- erabat *ikâtuta* (Barandiaran)
- etâ (= etara, = atera) (Barandiaran)
- ezen *otsik aittu* (Barandiaran)
- ez *emen tzoên garík eitten* (Barandiaran)

(B) –*aman gona gorrije* (Barandiaran)

(AN) –*apáizan itxéra* (Holmer)

–*atéko dik* (Holmer)

b) **Hitz-amaieran** galdu egiten da maiz (baina ez azkarra denean):

–*ze beor ote zan oi?* (Barandiaran) (*ze*, baina *beor*; eta baita *oi* ere.)

**iñor** > *iño*

- ote da beste iño?* (Atano)
- iño ez liteke izan* (Balendin)
- nobera* (P. Bartolome; < norbera)
- iñok ezertzat artu* (Iturzaeta)
- nok ordainduko guri?* (Ganduaga)
- nok amauko ez zaitu* (P. Bartolome)

Bizkaieraz *iñope* entzun ohi da eskuarki; baita *iñobez* ere.

**ezer** > *eze*

—*ze ordu da?* galdetzen da

—*ze izango zen* (Txapela)

—*ze eman dik* (Soroa)

—*ze egun ederra* (Soroa)

—*ezegaz bere* (P. Bartolome)

—*ezek ezer eziegion* (B, 1511)

(ageri den bezala, ia eskuarki galtzen da bokale artean.)

c) **Bokale desberdinen artean**, silabaren bikuntasunari eusten zaiola:

—*eakusten, eaman, beteinayo* ( Zubeldia, Txirrita)

—*eosteko* (AN, Holmer)

—*geátu zela* (AN, Holmer)

—*atea emen die* (Barandiaran)

—*larrea bota* (Barandiaran)

—*ateatzen ementzien* (Barandiaran)

—*aúntzien* (Holmer, = aruntzean)

—*aurreaka, atzeaka* (Barandiaran)

Beste batzutan diptongo berri gisa:

—*euzkittan eseitta* (Barandiaran)

—*eroi ementzan* (Barandiaran)

d) **ere-ren erabilkera:**

-e:

—*andik e bialduko naue* (Txirrita)

—*bate* (Txirrita)

—*Jesusek berak e* (Xenpelar)

—*ba dijôtz beizê* (Barandiaran, = beriz ere)

—*oraindikan e ortan zabilen* (Lexo)

-re:

—*anaia're* (Urruzuno)

—*esan etzuana're bai* (Urruzuno)

—*azkena're* (Urruzuno)

—*ura're* (Urruzuno)

—*alare* (G, Urruzuno, = (h)ala're)

—*dakigula're* (Xenpelar)

—*ardua're, kafia're, soziedadia're* (Xenpelar)

—*alperra're* (Iturzaeta)

—*ezta're* (Iturzaeta)

—*antzua bada're* (Errikotxia)

—*sari naiz ni're beokin* (Soroa)

—*aurrai're kontu artu biar* (Soroa)

—*baño're pozagorik ikusiko* (Urruzuno)

- onuntzago're* (Urruzuno)
- ezta eragiteko're* (Urruzuno)
- esateko're, Bordondo're* (Xenpelar)
- geiago're* (Xenpelar)
- soñerako're* (Soroa)
- ill da gero're* (Txirrita)
- au're* (Txirrita)
- ezpadu're*
- gu're ez beti biziko* (P. Errota)
- ez banauzu're* (Xalbador)

#### 6.2081 -r- > -d-

Liburu honetan baino aisa lehenago oharrarazi da euskarazko *r* ahula eta *d* ahula oso antzekoak direla: “La *r* vasca (ere) tiene bastante relación con la *d*” (Holmer, IVH, 96). Biak, nolahi ere, *ahulak* dira. Joera hori bizirik dago:

- eskua sendo eta lori* (Xenpelar)
- deskuiratu* (Txirrita)
- erremeryua* (Garmendia)
- koitaruak* (Garmendia)
- mingaña loritu* (Txanka)
- naiko endrerua* (P. Errota)
- inbiri, ariyo* (Saikola)

- debeكاتuba da irukitzia* (Soroa)
- emakume bat zala meriyo* (Saikola)
- erozein, dura bagarik* (Bakallo)

/d/ fonemaren fonetikazko balioa erabakitzerakoan, kontutan hartzekoak dira soinu-aldakuntza horik.

## 6.209 n + n > ln

Disimilakuntza hau oso sustraiturik egon da kondairan barrena, eta oraindik ere ba dago:

B) lehenengo > *lelengo*.

- pulamentu* (Txirrita, Alza)
- pesalombria* (Astiasu, P. Errota)
- alimoso* (Astiasu, Zubeltzu, P. Errota, Meliton)
- lombria* (Urruzuno, Iturzaeta, Izuela)
- aldamiyua* (Xenpelar, Erauskin)
- aldámuño* (Izagirre)
- galantziyak* (Garmendia, Iturzaeta)
- albiente* (Bera)
- lumero* (Soroa, Orio Etxaide)
- Lormandi-ko sagardu oyek* (Soroa)
- piztiak malso-malso egiñik* (Barrutia)
- alemanijaak* (P. Bartolome)



–*aitak delonza erazi* (Etxahun) (S).

–*filosomiaz beita ilüsigarri* (S)

–*berenua* (P. Bartolome)

## 6.210 -n- > - $\Phi$ -; -nd- > - $\Phi$ -

Bokale arteko -n- galtzera doa maiz; eta ez kondaira zahar-  
rean barrena bakarrik. *Esakera arruntean* onartu beharrekotzat jo-  
tzen dut.

*Bizkaieraz* oso ezaguna da joera:

(B) –*esa eutsela* (= ziela)

–*esa eustan* (= *esan zidan*)

–*esate eben, jaki eban, urte eben*, eta abar

–*elixie eittie nai izeben* (Barandiaran) (= *nai izan eben*)

–*egunaz eitte ebezan bierrak* (Barandiaran)

–*lamiña bet etort'ei sen* (Barandiaran)

–*kontentu juat'ei sirian* (Barandiaran)

–*egunez eitte ebena* (Barandiaran)

Eta *gipuzkeraz* ere joera berbera dago, azkar:

(G) –*zertarako paratze' izkiak*  
*olako izpidiak?* (Zakarra)

–*otseitte emen tzion* (Barandiaran)

–*eakuste ementzion* (Barandiaran)

–*deadar eitte emen tzion* (Barandiaran)

- atâtze ezpanaun (Barandiaran)
- eite emen tzitûn (Barandiaran)
- jexte emen zitzaion (Barandiaran)
- eate emen tzion (Barandiaran)
- esa emen tzion (Barandiaran)
- bizi ize emen tzien (Barandiaran)
- goatze al zaizu? (Txirrita)
- iñork artz'ezpanau (Txirrita)
- emate omen du (Etxeberria)

–nd- > -Φ- ere oso zabaldurik dago aspaldidanik. Axular lekuko:

- (L) –konsolatzeintugu (Axular)
- urkatzeintuzte (Axular)
- erdikatzeintuzte (Axular)
- bertzek eramaintu (Axular)

Gaurko hizkeraz oso bizirik dirau joera honek:

- (G) –erregutze iot (Zepai)
- eukitze itu (Zepai)
- jotze itu arrastatze itu (Zepai)
- jate itun kapoiak (Zepai)
- kantatze kala (Soroa)
- pasatze'a mundube (Barandiaran)
- eite itu orrek (Barandiaran)

Eta bide beretik, antxu:

—*moja* (Txirrita, Soroa)

—*ijiniero* (Txirrita)

—*ijeniyua txartu* (P. Zabaleta)

—*moja-komentu* (Iturzaeta)

Kasu horietan: “j” = (x) (esp. jamón)

### 6.211 b- > m-

Joera hau ere aspaldikoa da; eta azalpen bitxiak idaroki izan ditu nahasketa honek (ikus Martinet, esate baterako, *Economie*, 388). Nahasketa ez da gaurkoa: aquit. *Sembe* (= seme, itxura denez).

*Hitz-barruan* ere gertatzen da:

*komentu*, *komertsazio*, *tramena* (Altzaga, = taberna), *bagamontak* (S, Helena), *kumerti-erazi* (S, Etxahun), *zemait*, *zomat*; *samartolome*, *omboria* (Mattin, L).

Baina *hitz-haseran* gertatzen da usuenik:

(G)—*Millapranka* (Urruzuno)

(L)—*Milafranga* (Baiona-ren ondoan)

(G)—*menturaz* (Urruzuno)

(G)—*mengantza* (P. Errota)

(L)—*mandil* (= bandido, bandit)

(G)—*meneno* (Iturriaga)

(G)—*mokadua* (Zubeldia, Txirrita)

(G), (L), (S)—*mengatu, mendekatu, menjátü* (Etxahun)

(S)—*mínagre* (Etxahun)

(S)—*mezpera* (Casenave)

(L), (G)—*mañu, mainu*

(S)—*miñátze* (Etxahun)

(G)—*menda* (Azkue, A. M. Etxaide)

Eta Nafarroan baita euskal jatorrizko hitzei gertatu izan zaie aldakuntza:

(R)—*nj mino gaztiágo* (Artola)

(Baztan-en ere bai)

—*bíak méste múndiara* (Artola)

Hitz haserako nahasketa hori, bestaldera ere gertatzen da:

—*berendu, berenda, berienda* (Yantzi, P. Zabaleta, eta beste)

## 6.212 -l- > -r-

Bokale artean gertatzen da inoiz:

—*orijo* (= olio, P. Bartolome)

Baina oklusiben ondoren eskuarkienik:

—*kompritu* ( < *cumplir*, Alzo, Txanka, Zubeldia, Iturzaeta)

—*pruma* ( < *pluma*)

—*gatzure prantau* (Barandiaran)

—*ombrigo* (Orio)

Eta oso maiz ere / aurretik datorrelarik:

—*karkula* (Errikotxia, Luzaide, Txirrita, Bakallo)

—*arkilatu* (Bakallo)

—*kurpitu* (Atano, Saikola, Garmendia)

—*komurgatu* (Iturzaeta)

—*mordatu* (Iturzaeta)

**6.22** Beste joera batzu ere aipa litezke.

Batzu ezagunak dira:

(AN) —*ire yauntziak eginik ziauden* (kanta zaharrean)

(S) —*héltüi tzinén* (Gavel)

eta oso orokorrak, nik uste.

Beste batzu, berriz, sailkatu eta aztertu egin behar liratek aurrenik;

—*kustizia, koxepa*

—*ausuluzio, erramarkaule*

—*Ferrando, Gerrinka*

—*prepeziyo, alpraketa*

—*endreatu, ondra*

eta abar.

Bokaltasunaz ere ba dago azterkizunik.

Arkaismora jo gabe, zer piz daiteke? Zein joera bizi da oraino baserritar eta arrantzaleen artean?

Ondoko egunotan, agian, osagarri egoki gertatuko ene lanen batetan.

# AURKIBIDEA

Orrialdea

1.— Euskal Deklinabideaz .....	9
Mugagabea noiz erabil .....	34
BAT-en deklinabidea .....	43
Aditzaren osagarria mugagabe ...	54
2.— Mugagabea erakusleekin .....	59
Mugagabea aditzarekin .....	61
3.— Ni/neu saila .....	81
Ene/neure saila .....	83
4.— Infinitiboa eta Partizipioa .....	95
Partizipio bitxi batzu .....	105
Hiketa eta zuketa .....	111
Date/duke .....	124
Jaiki banadi .....	129
Beste ohar batzu .....	140
Eritzi aditzaz .....	146
5.— Zenbait euskal joskera .....	169
6.— Euskal bokaletasunaz .....	180
Euskal kontsonantetasunaz .....	192
(s, z) + (b, d, g) .....	192
(ts, tz) + (b, d, g) .....	205
(t, k) + (b, d, g) .....	206
(l, n, r) + (z, s, x) .....	216
Beste zenbait joera .....	219